

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2015

Haur eta Nerabeentzako
Bulegoaren txostena





URTEKO TXOSTENAK

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2015

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostena



Lan hau [Creative Commons Attribution 3.0 Unported \(CC BY 3.0\)](#) lizentziapean dago



Lan honen **bibliografia-erregistroa** [Arartekoko liburutegiaren katalogoan](#) kontsulta daiteke

Formatuak eta edizioak:

Paperean, [RTF](#) eta [XML](#) formatuetan ere bai

Gaztelaniazko edizioa: [Informe anual al Parlamento Vasco 2015. Informe de la Oficina de la Infancia y la Adolescencia](#)

Dibulgaziozko edizioa: [Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2015. Laburpena](#)

Arartekoaren argitalpenak eskuratzeko:

– [web](#) gunean

– [posta elektronikoz](#) eskatuz

– aurrez aurre gure hiru bulegoetako batean, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)

ARARTEKO

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

Diseinua, maketazioa, inprimaketa eta multimedia aplikazioak: Otzarreta Komunikazioa

ISSN-e 2255-4947



Aurkibidea

AURKIBIDEA

AURKEZPENA 11

I. ATALA

Arau- eta antolaketa-testuingurua 13

1. 2015eko jarduera-esparrua 15
2. Arau- eta eskumen-esparrua 15

II. ATALA

Eskubideak urratzea? Kexak, kontsultak eta ekimen propioko jarduerak 19

1. Neska-mutilen eta nerabeen edo haiei buruzko kexa-espeditentak: gerturatze kuantitatiboa 21
2. Arriskuan dauden eskubideak: 23
 - 2.1. Bizitzeko eta garatzeko eskubidea 23
 - 2.2. Hezkuntzarako eskubidea 28
 - 2.3. Abandonu, tratu txar edo indarkeriatik babestua izateko eskubidea 32
 - 2.4. Familia babeslea izateko eskubidea 40
 - 2.5. Osasunerako eskubidea 44
 - 2.6. Adingabe arau-hausleen eskubidea 45
 - 2.7. Jolaserako, atsedenerako eta arte eta kirol jardueretarako eskubidea 46
 - 2.8. Diskriminaziorik ez jasateko eskubidea: atzerritarren seme-alabak; LGTBI haurrak eta nerabeak; haur eta nerabe ezgaituak; genero-berdintasuna 47

III. ATALA

Entzuna izateko eta bere iritzia kontuan hartua izateko eskubidea: Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseilua 51

IV. ATALA

Haurren eskubideak errespetatzeko kultura sortzen laguntzeko jarduerak 55

1. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena onartzea ospatzea 57
2. Gizarte-eragileekiko lankidetzatza 57
3. Erakunde eta baliabide instituzionalekiko lankidetzatza 58
4. Ekitaldietan parte-hartzea 58
5. Adingabeentzako web gunea eta material didaktikoak 59

V. ATALA

Haur eta nerabeen eskubideen egoera baloratzea 61

VI. ATALA

Eranskinak 69

- Grafikoen aurkibidea 71
- Arloko araudia 72

AURKEZPENA

Aurkeztera goazen agirian bilduta daude Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak 2015. urtean egindako jardueraren elementurik esanguratsuenak. Gogorarazi nahi dugu, aurtien ere, erantsitako txostenaren formatua daukala, hau da, osotasun integratu baten (Arartekoak Legebiltzarrarentzako egin duen 2015. urteko txostena) zatia izanda ere, modu independentean irakur daitekeen agiria egin dugu. Horrela, erakundearen antolaketarekin eta funtzionaltasunarekin lotutako errealitatea islatzen du, talde bereziki ahul horri dagokionez: Ararteko erakundearen jardueraren zati bereizezina izanda, haien eskubideak bermatzeko kezka, interesa eta jarduerak zeharkako ikuspuntu batetik egiten dira. Ikuspuntu horrek adingabearen interes gorenari ematen dio lehentasuna, eragindako eremua edo bizitzaren alderdia edozein dela ere. Azaldutakoaren ildoan, testuan zehar txosten orokorreko zatiak eta atalak aipatu egiten dira eta, modu berean, txosten orokorrean Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren txostenari erreferentzia egiten zaio, bai kasu batean, bai bestean, garrantzi edo zehaztasun handiagoko gogoetak egiten diren bakoitzean.

Informazioa bost kapitulutan egituratuta dago, eta seigarren kapituluan eranskinak eta arloko araudia agertzen dira. Lehenengoan bulegoaren jardueraren araudi-testuingurua


azaltzen da, bai eta txostenak hizpide duen urterako ezarritako plangintzaren barruan dauden lan-ildoak ere.

II. kapituluan, guztien artean luzeena, Ararteko erakundearen berezko jardueratik abiatuta, ikusitako arazo nagusiak aipatzen dira, arriskuan ikusitako eskubideen inguruan bilduta. Abian jarritako jarduerak eta herritarrek aurkeztu dituzten kexen; egindako ikuskapen bisitaldien; ofiziozko ikerketen; arduradun publikoekin eta gizarte erakundeekin izandako bileren; foroetan, batzarretan eta profesionalen topaketetan parte hartu izanaren ondorioz lortutako ikaskuntzak erreparasatzen dira.

III. kapituluan zehazki azaltzen da zer-nolako jarduera burutu duen haur eta nerabeentzako gure partaidetza-organoak: Haurren eta Nerabeen Kontseiluak.

IV. kapituluak haurren eskubideei dagokienez, errespetuan oinarritutako kultura sortzen laguntzeko zenbait jarduera bildu ditu.

Azkenik, V. kapituluak ixten du agiria. Bertan, haurren eta nerabeen eskubideen egoeraren balorazioa egiten da, laburpen gisa.



I ATAIA

Arau- eta antolaketa- testuingurua

I. Atala

ARAU- ETA ANTOLAKETA-TESTUINGURUA

Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak 2015. urtean zehar garatu duen jarduera erakundearen ardatz estrategiko nagusiei jarraiki bideratu da, bai eta 2010-2014 denboraldirako bulegorako marraztu diren jarduera ildoak kontuan hartuta ere. Plangintzaren aukera horiek gizarte-eta arau-testuinguru jakin batean gertatzen dira. Plangintza erantzunak ematen saiatzen da baina testuinguruak egiteko modu zehatza mugatu eta baldintzatu egiten du.

1. 2015eko jarduera-esparrua

2015. urtea biziki markatu du erakundearen titulartasuna aldatzeak. Aurreko titularraren agintaldia 2014ko urrian bukatu eta gero, elkarri lotutako hainbat gertakariren ostean, titular berriak azaroaren bukaeran hartu zuen benetan kargua. Horrek garrantzi berezia izan du estrategia-plangintzaren arloan, atzeratu egin baitu berriz gogoeta egitea, aurreko planaren (2010-2014) ardatzak eta lan-ildoak luzatuz. Plan hura zehazki azaldu zen [2010. urteko txostenean](#).

Erakundearen gainontzeko eremuetan bezala, Haur eta Nerabeentzako Bulegoak adingabeek aurkezten dituzten edo eurengan eragina duten kexak eta eskaerak jaso eta aztertzen ditu. Kexak eta eskaerak modu zuzenean edo legezko ordezkarien bitartez aurkeztu ditzakete. Lan hori modu batean norbaitek (pertsonek, kolektibok) edo zerbaitek (komunikabideen bitartez edo beste bideren bitartez ezagutu den eskubideen urraketa posible bat) aurkezten diren aurrean “erreakzionatzean” datza eta lan-ildo proaktiboagoen bidez osatzen da. Azken horien artean jarduera hauek daude: sarean, modu kolektiboan eta lankidetzara erabiliz egindako lana sustatzera eta haurren eskubidearen kultura zabaltzera zuzendutako jarduerak, bereziki, adingabeen parte hartzea eta euren ahotsa entzunarazteko aukera bul-tzatzen dituztenak.

Ararteko erakundeak gain hartu duen “matrize-eredua” dela-eta, eremu materialetan espezializatutako sektore-arloak zeharkako begiradek osatzen dituzte, kasu honetan, haurren eta nerabeen eskubideenak. Horren xedea elkar aberastea

eta lan koherente eta sinergikoa lortzea da. Haur eta Nerabeentzako Bulegoa berezko langileen hornidura txikiarekin egituratu da, haurrei eta nerabeei maiztasun handiarekin eragiten dieten gaien arloko aholkularien laguntzarekin batera.

2015eko jarduera planak (esan dugunez, 2010-2014 aldirako strategiaren esparruan azaldukoak) han azalduko lan-ildoak zehaztu ditu, esku artean dugun denboraldirako. Plan hori gure bidaia orria da eta horri esker adierazitako bidean zehar aurrera egin dezakegu ahaleginak batuz eta gure helburuak ahalik eta modu eraginkorrenean lortzeko beharrezkoak diren sinergiak sortuz. Ondorengo kapituluetan aipatuko diren jarduerak plan horren emaitza dira.

2. Arau- eta eskumen-esparrua

Haurren eta nerabeen eskubideak duela gutxi aitortu dira. Geroago hartu dira haurrak eta nerabeak eskubideak dituzten pertsonatzat, nazioarteko eskubide humanitarioak giza eskubideak aintzatestearekin eta estatuko ordenamendu juridikoetan babestearekin batera hain zuzen.

1990. urtean [Espainiak Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena \(HEH\)](#) berretsi zuen, 1989ko azaroaren 20an [Nazio Batuen Erakundearen \(NBE\)](#) batzarrak hartu zuena. HEH modu unibertsalean onartu den haurren eskubideen katalogoa da; aldi berean, estatuak errespetatzeko, bermatzeko eta beteazteko dauzkaten betebeharrak ezartzen dituena.

Konbentzioak, lehenengo bi artikuluetan haurren arloan erakundearen ekintza guztiak bideratu behar dituzten funtsezko bi printzipioak ezarri zituen: bereizkeriarik ezaren printzipioa eta adingabearen interes gorena. 6. artikulutik aurrera, lau eskubide multzo handi zerrendatu dira: **Hornidura**, hau da, zenbait baliabide eta zerbitzu edukitzeko, jasotzeko edo eskuratzeko aukera izateko eskubidea, haurren eta helduen artean baliabideak banatzekoa; **Sustapena**, alegia, erabat garatzeko eta osasun eta hezkuntza maila gorenak izateko eskubidea; **Babesa**, hots, gurasoen eta profesionalen zainketak jasotzeko eskubidea eta ekintza eta praktika neurrigabeak jasan behar

ez izatea; eta **Parte-hartzea**, hau da, gauzak egiteko eskubidea, nork bere kabuz adierazpenak egiteko eta banaka zein taldean hitza izateko eskubidea.

Horrez gain, beste bi premisa hauek kontuan hartu behar dira: eskubideen zatiezintasuna eta euren arteko lotura eta haur guztien ongizatea zaintzeari dagokionez gurasoen, familia ingurunearen, erakundearen eta gizartearen ardura partekatua.

Aukerakoak baziren ere (hautazkoak) Espainiak ere sinatu eta berretsi ditu Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmeneko bi protokoloak. Protokolo horietan babes kontuak aipatzen dira batez ere: [HEHren Hautazko Protokoloa](#), [gatazka armatuetan haurren parte hartzeari buruzkoa](#); [HEHren Hautazko Protokoloa](#), [haurren salmenta](#), [haurren prostituzioa eta pornografian haurrak erabiltzearen gainekoa](#); eta [HEHren III. Hautazko Protokoloa](#), [komunikazio prozedura baten ingurukoa](#). Azken protokolo horrek mekanismo bat ezarri du haurrek edota euren ordezkariak salaketa jarri ahal izan diezaioeten beren eskubideak babesten [espezializatutako](#) nazioarteko batzorde bati, eskubide horiek urratuak izan direla uste badute. Beraz, modu zabalago eta indartsuagoan onartu dute haurrak eta nerabeak eskubideen subjektu direla.

2015eko urriaren 1ean amaitu zitzaion Estatuko Administrazioari Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena Espainian Aplikatzeko V. eta VI. txostenak aurkezteko epea. Txosten horietan, hitzarmenaren betetze maila jaso behar da, baina lehenengo bi protokolo fakultatiboena baino ez, hirugarrena 2014ko apirilean sartu baitzen indarrean. Txosten hori egiteko, Autonomia Erkidegoen arteko Haurrei buruzko Batzordean dauden autonomia erkidegoei eskatu zaie informazioa, hala nola, Euskal Autonomia Erkidegoari.

Bestalde, gizarte zibilak aurten hasi ditu txosten osagarria egiteko lanak, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmeneko 45. artikuluan xedatutakoari jarraiki, izan ere, txosten osagarriak egitea ahalbidetzen baitie aipatu artikulua haurrei buruzko erakundearen nazio koalizioei, hau da, estatu partaideek Haurren Eskubideei buruzko Batzordeari zuzendutako txostenen txosten osagarriak egiteko aukera ematen die.

Haurren eskubideei begirako nazioarteko erreferentziazko ituntzat aipatu dugu, halabeharrez, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena (HEH); bada, ezin dezakegu ahaztu, halere, haurrak ez direla HEHn bakarrik ageri, Espainiak berretsitako eta sinatutako nazioarteko beste zazpi itunetan ere engaiatutako eta eragindako haur eta nerabeak baitaude:

- [Eskubide Zibil eta Politikoak](#) haurrenak ere badira.
- [Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalak](#) haurrenak ere badira.
- [Arrazagatiko bereizkeriak](#) haurrak ere kolpatzen ditu.
- [Tortura](#) motaren bat jasaten duten haurrak daude.
- [Emakumea](#) izateagatik bereizkeria jasaten duten neskatilak daude.
- [Urritasunen](#) bat duten haurrak daude.
- [Behartutako desagertzeak](#) pairatzen dituzten haurrak daude.

Ondorioz, beharrezkoa da nazioarteko zazpi itun horien edukia ezagutzea, bai eta horien segimenduak egiten dituzten batzordeen jardura ezagutzea ere. Beharrezkoa da itun horiek diotenaren berri edukitzea, horietan eragin ahal izateko. Nolanahi ere, horixe da aipatu batzordeek jada hartu duten ikuspegia, eta hainbat lan elkarrekin egiten hasi dira. Honakoa da adierazgarri argiena: “Emakumeen Aurkako Bereizkeria Ezabatzeke Batzordearen 31. Gomendio Orokorra eta Haurren Eskubideei buruzko Batzordearen 18. Ohar Orokorra, praktika kaltegarri buruzkoa, elkarrekin hartutakoak horiek”, 2014. urtearen amaieran. Bertan, genitalen mutilazio femeninoa, haurren ezkontza edo behartutako ezkontza, poligamia eta “ohorezko” arrazoiengatik egindako delituak jorratu dira.

Nazioartean, gogoan izan behar da badaudela Espainiak hainbat hitzarmen berretsi dituela –hainbat nazioarteko erakundeek sustatu dituzte itun horiek, hala nola [Nazioarteko Lan Erakundeak](#), [Hagako Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren gaineko Konferentziak](#), besteak beste-, adingabeei dagozkien sektore-gaietan:haurren lana, adingabekoak ostea, sexu-esplotazioa, nazioarteko adopzioa eta abar.

Europar Batasunaren esparruan ere berriaz haurren eskubideak aipatzen dituzten arauak daude. Arau horien artean nabarmenduko dugu [Europako Parlamentuaren 1992ko uztailaren 8ko A-3.0172/92 Ebazpena](#), [Haurren Eskubidearen Europako Gutuna onartzen duena](#). Ebazpen horrek hauek proposatzen ditu: haurren eskubideen defentsariaren figura, estatu-mailan nahiz Europa mailan. Defentsari horrek eskaerak eta kexak jaso beharko ditu, haurrei babesa ematen dieten legeak aplikatzen direla zaindu, eta botere publikoen jarduna haurren eskubideen alde bideratu. Halaber, haurren eskubideen erkidegoko gutun bat egin beharko litzateke, proposatzen den gutxieneko edukia duena.

Halaber, aipatzekoa da [Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutuna \(Lisboako Itunaren zatia\)](#). Gutun horrek, adingabeei dagokienez, haurrak entzunak izateko eskubidea, haurren interes gorena kontuan hartzea eta gurasoekin harremana izateko eskubidea aldarrikatzen ditu. Garapenean, bi gertaera gogoangarri: lehenbizikoa, «[Haurren Eskubideen gaineko Europar Batasuneko Estrategiarantz](#)» izeneko jakinarazpena, Europako Batzordearena (2006), zeinak hainbat egitura ezarri baititu EBko erakundeek haurren eskubideei lotutako arazoei aurre egiteko duten ahalmena indartzeko, eta egintzetan oinarritutako politiken zimentuak finkatu baititu, interesdunekiko elkarrekintza arintzeko asmoz; eta, bigarrena, [Haurren Eskubideen Aldeko EBko Agenda](#) (2011), zeinak batez ere eremu jakin batzuetan jartzen duen arreta, EBko eremu horietan benetako balio gehigarria ekar dezakeelako, adibidez, haurrentzako justizia eskuragarri egiteko arloan, egoera zaurgarrietan dauden umeak babestuz eta Europar Batasunaren barruan zein kanpoan haurrengan eragina daukan indarkeriaren kontra borrokatuz.

Azkenik amaitu da **Espainiako legedia** osoa haurrak eta nerabeak babesteko gaietan eguneratzeko asmoz abiarazi zen prozesu luze eta asmo handikoa, aurreko urteetan aipatu dugun horixe, haurren eta nerabeen babes-sistema aldatu duten [uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa](#) eta haurren

eta nerabeen babes-sistema aldatu duen [uztailaren 28ko 26/2015 Legea](#) onartu eta indarrean sartzearekin.

Arauzko bi tresna horien bidez, aldaketa handiak egin zaizkie adin txikikoen babesa arautzen duten lege nagusiei: Adin txikikoen Babes Juridikoari buruzko [urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa](#), Prozedura Zibilar buruzko [urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea](#), Botere Judizialari buruzko [uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa](#), Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko [abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa](#), Nazioarteko Adopzioari buruzko [abenduaren 28ko 54/2007 Legea](#), [Kode Zibila](#) eta beste batzuk, uanean uneko aldaketetan. Haurrei eta nerabeei eragiten dieten jarduera publiko guztiak “blaitu” behar dituzten eskubideen eta printzipioen ingurukoak dira aldaketa horien berrikuntzen zati bat. Hauei buruzkoak dira:

- Adin txikikoaren interes gorenen printzipioaren edukia- ren garapena, Haurren Eskubideei buruzko Batzordearen 14. Ohar Orokorrean jasotakoaren ildoan. Ikuspuntu horretatik, “adin txikikoaren interes gorena” kontzeptu juridiko zehaztugabea zehaztu da, eduki hirukoitza emanez: a) eskubide subjektibotzat, b) printzipio orokor interpretagarritzat, c) prozedurazko arautzat hartu da. Horrela, erabakiak interesdun haurraren edo haurraren edukit ditzakeen ondorioen (positiboen zein negatiboen) balioespena egitea dakar interes gorena zehazteak. Kasu guztietan egin behar da, eta zirkunstantzia zehazetan oinarrituta. Halere, norberaren erabakimenean ez uzteko, kontuan hartu beharreko eta zenbait elementuren arabera balioztatu beharreko irizpideak txertatu zaizkio lege- gintzako testuari.
- Adin txikikoek entzun ditzaten eta euren iritzia kontuan hartu dadin duten eskubidearen gaineko garapen zehatzagoa. Kontuan hartu beharreko irizpideen artean, euren nahiak, sentimenduak eta iritzia aintzat hartzea dago sartuta. Beharrezko egin da esaten digutena entzutea. Erabaki guztietan, une oro. Horretarako, eskubide hori erabiltzea ahalbidetuko dion informazioa jaso beharko du haurrak, hizkera ulergarria eta formatu irisgarria, bai eta bere zirkunstantzietan egokitutako formatuetan ere. Aintzat hartu beharko dira espazioak, bai fisikoak, bai denborazkoak, informatzeko eta haurren ahotsa jasotzeko uanean. Eta argi eta garbi adierazi beharko da hori hartutako erabakietan.

Sarritan nabarmendu den bezala, hitzarmeneko 3. artikulua (adin txikikoen interesari buruzkoak) eta 12. artikulua (estatuei haurrei entzuteko betebeharra ezarri dienak, haurrentzat garrantzia duten erabaki guztiei dagokienez) markatu dute 1989an onartutako testuak ekarri zuen paradigma aldaketa, testu horren aurreko formulazioekin alderatuz gero. Bi artikulua horiek eskubideen subjektu estatutu berria eman diete haurrei, eta, ondorioz, harreman berriak sortu dira helduen eta haurren artean: dinamika demokratikoa eratu da.

Gogoeta horretatik abiatuta, adin txikikoaren interesak haur GUZTIEN eskubideekin dauka zerikusia, horien bizitzetako eremu GUZTIEI eragiten die, eta, hortaz, eragingo dieten

erabaki GUZTIETAN da aplikagarria: eremu ekonomikoan, bizitegi eremuan, osasun eremuan... Legeak eta arauzko garapenak egiteko prozesuan, diren eremuak direla horiek, nahitaezko txostena egin behar da, egiten ari den arauak haurrengan eduki dezakeen eraginari buruzkoa.

Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak haurrekin eta nerabeekin ohiko harremanak duten langile guztiei ere eragiten die (hezkuntza sistemako irakasleei, pediatriako eta erizaintza pediatrikoko langileei, hezitzaileei, aisialdiko jardueretako eta jarduera sozio-hezitzaileetako langileei eta abarri). Berriki [erregulatu](#) da aipatu erregistroa, eta horrek igorri beharko du, 26/2015 Legearen hamazazpigarren azken xedapenean aurreikusitakoarekin bat eginez, eta esan bezala, adin txikikoekin ohiko harremanak edukitzea dakarren lanpostu bat beteko duen pertsona oro bertan erregistratuta ez dagoelako ziurtagiria. Haurrak sexu-esplotaziotik eta sexu-gehiegikeriatik babestea da horren xede nagusia, eta [Lanzaroteko Hitzarmenean](#) hartutako konpromisoari erantzuten dio (Europako Batzordearen hitzarmena da, haurrak sexu-esplotaziotik eta sexu-gehiegikeriatik babesteko helburua duena, eta 2007ko urriaren 25ean Lanzaroten egin zena), eta helburu hauek lortzeko tresna eragingarria izatea nahi da:

- adin txikikoaren prebentzioa eta babesa, sexu-delituei dagokienez, arau nazionalekin eta nazioez gaudikoen bat etorritik, eta gure inguruko beste herrialde batzuetako erregistro-sistemei jarraiki.
- adin txikikoekin ohiko harremanak edukitzea dakarten lanbideetara eta jardueretara sartzeko asmoa duten eta horietan lan egin nahi duten pertsonen errege dekretu horrek aipatutako delituengatik kondenaarik ez dutela jakiteko sistema garatzea, bai Espainiari dagokionean, bai beste herrialde batzuei dagokienean.
- sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituen egileen gaineko ikerketa eta identifikazioa erraztea, sexu-esplotazioa xede duen gizakien salerosketa eta pornografia barne hartuta.

8/2015 eta 26/2015 Legeek, gainera, aldaketa ugari eta garrantzitsuak sartu dituzte babesgabatasun egoeran dauden haurren eta nerabeen babeserako eskumena duten sistemetan. Berriaz eremu horri eragiten diotenez, txosten honen 2.3. atalean azalduko dira xehetasunez, abandonuaren, tratu txarren eta indarkeriaren aurrean babes gaitzatelako eskubideari buruzkoa baita.

Espainiako Estatuaren lurralde- eta administrazio-egiturarekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoak, ahal legegilea duenak, adingabeen eskubideen babesaren eta sustapenaren arloan [autonomiako legeria](#) garatu zuen [3/2005 Legea, otsailaren 18koa](#), haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko onartu zuenean. Lege horren bigarren Tituluan, “Haurren eta nerabeen eskubideak eta eskubide horien erabilera” izenekoan, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean sortu ziren eskubideak zerrendatzen dira. Legearen gainerako ataletan babesik gabeko egoeran dauden haurren babesa arautzen da. Beraz, araudi sektorialari buruz hitz egitean berriz ere aipatuko dugu legea.

Pentsa daitekeenez, lege hori eta dagozkion garapenak berriaz aztertu beharko dira, 2015ean onartu diren legeek egindako aldaketa sakonen argitan. Aldaketa horiek aurreko paragrafoetan aipatu ditugu.

Bukatzeko, adierazi behar da adingabeen eskubideak eta haurren babesean eta zainketan hartutako konpromisoak zehaztea oso lan luzea dela, hainbat arlori eragiten baitie, besteak beste: osasunari, hezkuntzari, gizarte-babesari,

arrisku-egoerei eta babes gabeko egoerei, birgizarteratzeari eta haurren osotasunaren babesari. Hori dela eta, lege, dekretu eta gainerako garapen ugarian aipatzen da, arau-markeko zabal bat eratuz. Marko horretatik elementu nagusi hauek nabarmendu ditugu dokumentu honen II. eranskinean. Arloko araudi horretan 2015ean egindako balizko berrikuntzak txosten honetako II. kapituluan azalduko dira, arlo bakoitzeko azalpenean.

III

ATAIA

Eskubideak
urratzea?
Kexak, kontsultak
eta ekimen propioako
jarduerak

II. Atala

ESKUBIDEAK URRATZEA? KEXAK, KONTSULTAK ETA EKIMEN PROPIOKO JARDUERAK

Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren jardueraren zati handi bat, ez guztia ordea, kexa- eta kontsulta-espeditenteak bideratzean datza, hau da, espeditente horiek ikertu, aztertu eta baloratzean. Kexa- eta kontsulta-espeditenteen analisiari hurbiltzeak batik bat helburu diagnostikoa du bulegoaren berriazko agiri honetan. Bere oinarritzko helburua, jarduera horren datuak adierazteaz gain, egoera kezkarriak haute-matea da, eta espeditente horietako bakoitza gure haurrak mugitzen diren errealitatearen sentzore gisa ulertzea. Beraz, interesa izaera kualitatiboaren bidez gehiago zehaztuko da izaera kuantitatiboaren bidez baino, baina edonola ere, interes garrantzitsua du.

1. Neska-mutilen eta nerabeen edo haiei buruzko kexa-espeditenteak: gerturatze kuantitatiboa

2015ean, 564 kexa-espeditentetan aipatu da argi eta garbi haurren eta nerabeen presentzia edo inplikazioa, alegia, Ararteko erakundeari egindako kexa guztietatik ia %23,31tan.


Zenbaketa horretan sartuta daude, batetik, alde batek eskatuta bideratu diren kexa-espeditenteak (519): norbanakoek edo elkarteek azaldu dituzte, horretarako ezarritako bideren bat erabiliz (bulegoak, weba, posta elektronikoa); eta bestetik, erakundeak bere kabuz hasi dituen ofiziozko espeditenteak (45), haur eta nerabeen talde batzuk ahultasun egoeran daudela edo beraien premiei behar bezala erantzuten ez zaiela susmatzen denean, egoera horiek aztertzeke eta horien bilakaera ikusteko.

Alde batek eskatuta bideratu diren kexa-espeditenteetan, honako bi kasuok agertzen dira:

- a. Nerabeek eta gazteek zuzenean egindako kexak.
- b. Neska-mutilen edota nerabeen ordezkariak egindako kexak. Oso ehuneko handian, pertsona hori adingabearen aita edo ama izan ohi da, baina batzuetan senideak eta hezitzaileak ere bai.

Horrela, kexa **nork egiten duen** ikusita, hauxe esan dezakegu: 2015ean, nekez iristen dira %1era alde batek eskatuta eta adingabeak berak egindako kexak. Ia kasu guztietan, ke-xagileak legezko adin nagusitasunaren mugan zeuden. Gai-nontzako %99 helduek egin dituzte eta neska-mutilengan eragina duten egoerak azaldu dizkigute. Kexa horietatik 9 gizar-te-erakundeek egin dituzte (norbanakoen egoerak azaldu dituzte) eta beste 11 kexa elkarteek edo gizabanakoek egin dituzte, baina pertsona-talde baten ordezkari gisa; horregatik, adingabe gehiagori eragiten diete.

1. grafikoa
Kexen banaketa, kexagileak adingabearekin duen harremanaren arabera




GUZTIRA
563

Iturria: guk geuk egina

Gaikako esparruen araberako espedienteen sailkapena (horren azterketa xehatua txosten honetako 2.2. ataleko muin nagusia osatzen du), ondorengo grafikoa islatutakoa da:

2. grafikoa
Alde batek eskatuta bideratu diren kexen banaketa, gai-esparruaren arabera




Diru-eskasia eta gizarte ahultasuna	260	(%50,09)
Hezkuntza	119	(%22,93)
Gizarte zerbitzuak: babesik eza	47	(%9,06)
Familia	30	(%5,78)
Osasuna	19	(%3,66)
Justizia	12	(%2,31)
Beste batzuk	11	(%2,12)
Ingurumena	7	(%1,35)
Araubide juridikoa	6	(%1,16)
Segurtasuna	4	(%0,77)
Aisia eta eskola kirola	4	(%0,77)

GUZTIRA
519

Iturria: guk geuk egina

Honako esparruak aztertu dira ofiziozko ikerketetan, hau da, norbanakoaren kasua gainditzen duten arazoak edo, erakunde honen ustez, haurren eskubideren bat arriskuan egon daitekeen egoerak aztertzeke hasitakoetan:

3. grafikoa Ofiziozko espedienteen banaketa, gai-esparruaren arabera



GUZTIRA

45

Iturria: guk geuk egina

2. Arriskuan dauden eskubideak

2015. urtean, adingabeen arloan Ararteko erakundeak egin-dako jardueraren ikuspegi kuantitatiboa osatzeko, antze-mandako arazoak eta kezak azaltzen dira, eta, zenbait kasutan, lortutako emaitzak edo ondorioak, zenbatutako kexen ehunekoak iradokitako hurrenkeran eta guztiak azaldutako egoeretan arriskuan dauden eskubideen inguruan bilduta.

2.1. Bizitzeko eta garatzeko eskubidea

6. artikulua¹ (Haurren eskubideei buruzko Hitzarmeneko)

2. Estatu kideek bermatuko dute, ahalik eta gehien, haurraren biziraupena eta garapena.

Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemako prestazio ekonomikoei buruzko espedienteen titularren bizikidetz-unitateetan 18 urtetik beherako zenbat pertsona dauden jakiteko balioespenak eginez urteak eman eta gero, 2015ean ahalegin handia egin da eragindako haur eta nerabeak bizikidetz-unitate horietako zeintzuetan egon diren jakite aldera. Datu hori ezin izan da kasu guzti-guztietan eskuratu, eta erakunde honetan diru-sarrerak bermatzeko errentari eta etxebizitzarako prestazio osagarriari buruz aurkeztu diren espedienteen herenean baino zertxobait gehixeagoan (%37,38) informazio hori ez edukita ere, 260 dira urritasun ekonomikoko egoeran dauden adin txikikoak dituzten bizikidetz-unitateak (izan ere, prestazio horien onuradun izateak agerian jartzen du urritasun ekonomikoko egoera daudela), hau da, diru-sarrerak bermatzeko errentari eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoari buruzko espedienteen %34,74. Bada, bulego honek eta txosten honetan kontuan hartutako espedienteen %50 dira, funtsean, adin txikikoak dituzten bizikidetz-unitateak, aurreko atalean ikus zitezkeen bezala.

2.1.1. Arauzko testuinguru soziala

Egiazki, Euskadin egindako beste **ikerket**a batzuetan eta testuinguru zabalagoei buruzko txostenetan jasotako datuek egiaztatu egin dute azken urteotan pobrezia eta desberdintasuna hazi egin direla, haurren artean bereziki:

- 2015ean argitaratutako *Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketari buruzko 2. Inkestan*, pobrezia, oro har, 2012 eta 2014 urteen artean jaitsi egin dela egiaztatu da (biztanleriaren %16,8tik -120.000 pertsona- %15era igaroz -111.000 pertsona-). Hala ere, egoera okertu egin da adin txikikoentzat, emakumeentzat eta etorkinentzat.
- Bizkaiko Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren Behatokiaren *lehenengo txosteneko* datuen arabera, Bizkaiko biztanleriaren %22,1 (249.716 pertsona) pobreziarako eta

¹ II.2 kapituluaren atal bakoitzaren goiburuan aipatutako artikulua Haurren eskubideei buruzko Hitzarmenekoak dira (Nazio Batuak, 1989).

gizarte bazterketarako arrisku egoeran dago, lau urte lehenago baino puntu eta erdi gehiago.

- **Pobrezia eta Desberdintasun Sozialei buruzko Inkestako Moduluak** *Gizarte Premiei buruzko 2014ko Inkestan* (pobrezia adierazleak eguneratzen ditu urte horren arabera) emandako datuetatik nabarmendu beharra dago, hain justu ere, haurren taldea dagoela pobrezia eta eskasiak aurrera gehien egiten duen taldeen artean. Hots, haurren pobrezia gure lurraldeko biztanleria orokorraren pobrezia beste aurrera egiteaz gain (horixe izaki ikerketaren lehenengo eta oinarritzko ondorioa), 14 urtetik beherakoen arteko benetako pobrezia egoerek gainerako biztanleen artean baino azkarrago egiten dute aurrera. 14 urtetik gorako biztanleriaren pobrezia tasa, 2008. eta 2014. urteen artean, 1,4 puntutan areagotu den bitartean, igoera 3,9 puntutakoa izan da 14 urtetik beherako biztanleen artean (%7,3 2008an; %9,5 2012an; %11,2 2014an). Gainera, desberdintasun soziala handitu da.
- Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren aurkako Borrokarako Europar Sarearen (EAPNaren) 4. txostenak, *pobrezia egoerari buruzkoak*, nabarmendu du krisi garaian erregistratu den desberdintasunaren igoerak isla argia duela klase ertainaren murrizketan.
- Intermon OXFAMen 2015eko txostenak, hau da, *“Europa gehiengoarentzat, ez eliteentzat, berehala alda dadila desberdintasunaren eta pobrezia norabidea Europan”* txostenak, Europar Batasunean pobrezia arriskuan dauden pertsonen kopurua areagotu egin dela nabarmendu du, 123 milioi pertsona direlarik gaur, hots, Europar Batasuneko biztanleriaren laurdena, 2008an ziren 116 milioien aurrean. Errumaniako, Italiako, Espainiako, Lituaniako eta Letoniako haurren %30 baino gehiago bizi da pobrezia erlatiboaren atalasearen azpitik, Greziako haurren %40tik gora haur bezala.

Europar Batasuneko pobrezia, ordea, ez da eskasia arazo, baliabideen (errenta eta aberastasunaren) banaketa kontua baizik. Credit Suisse-k kalkulatu du europar aberatsenen %1ak (Europar Batasuneko kide ez diren herrialdeak ere kontuan hartuta) daukela kontinenteko aberastasunaren herena ia, eta,aldi berean, biztanleria pobreenaren %40k Europan dagoen aberastasun garbi guztiaren %1 baino gutxiago partekatzen duela. Bestela esanda: Europako zazpi milioi pertsona aberatsenek 662 milioi pobreenek adinako aberastasuna dutela (Europar Batasuneko kide ez diren herrialdeak ere kontuan hartuta).

- Haurren laguntzarako Nazio Batuen Funtsaren (UNICEFen) *“Aukera bat haur bakoitzarentzat: ekiteko agintza”* txosteneko datuen arabera, 2015ekoak horiek ere, munduko pobreen erdia dira haurrak.

Arauzko testuinguruari dagokionez, erreferentzia adierazgarriena da *Haurren inbertitzea: desabantailen zikloa haustea* Gomendioa. Europar Batzordeak 2013an onartu zuen hori, herrialde europar askotan haurren pobrezia eta bazterketaren zifrak hazten ari ziren une batean. Oro har, gai-

nerako biztanleen pobrezia zifren gainetik ari ziren hazten aipatutakoak, gure kasuan bezala.

Gomendioa honako gogoetetatik abiatu da:

- Ikusi dugun bezala, haurrek eta nerabeek pobrezia edo gizarte bazterketarako arrisku handiagoa dute biztanleria orokorrak baino. Gainera, pobrezia eta gizarte bazterketan hazten direnek eskolan ondo ibiltzeko, osasun ona edukitzeko eta, bizitzako geroko faseetan, euren ahalmen guztia baliatzeko aukera gutxiago dute, egoera horretan ez dauden adinkideekin alderatuz gero.
- Esku hartzen ez badugu, ezer egiten ez badugu, pobrezia gurasoengandik seme-alabengana transmititzen da. Hortaz, belaunaldien artean desabantailak transmititu daitezela saihestea ezinbesteko **inbertsioa** da Europaren etorkizunerako, eta epe luzearako onurak ekarriko dizkie bai haurrei, bai ekonomiarik, bai gizarteari, oro har hartuta.
- Esku-hartze goiztiarra eta prebentzioa funtsezkoak dira politika eraginkorragoak egiteko; izan ere, sufrimendu dosi handiak ekiditeaz gain, merkeagoa izango da (gastu publikoari dagokionez) egoerak hain larriak ez direnean esku hartzea, pobrezia eta gizarte bazterketa larriagoaren ondorioei arreta ematea baino.
- Jarduerak honako bi printzipioen arabera gidatuko dira:
 - lehenik eta behin, kontuan hartu behar da haurren interes gorena (gero hitz egingo dugu horri buruz), aldi berean, familiei laguntzeak duen garrantziari balioa emanez, haurrak zaintzeko arduradun nagusiak baitira horiek;
 - haur guztien ongizatea sustatzeko politika unibertsalen eta gutxien dutenei laguntzeko ikuspegi espezifikoaren arteko oreka egokiari eutsi behar zaio.
- **Prebentzio eraginkorra** hiru **mugarri** hauetan oinarritutako **estrategia integratuen** bidez lortuko da: baliabide egokietarako sarbidea; kalitatezko zerbitzuetarako sarbidea, arazoizko prezioekin; haurrek parte hartzeko duten eskubidea.
- Hauen arteko konbinazioa behar du **baliabide egokietarako sarbideak**:
 - gurasoek **lan merkatuan parte har dezaten** laguntzea. Horretarako, hainbat neurri aktibatu behar dira; zailtasun handiagoak dituzten pertsonak (prestakuntza baxua edukitzeagatik edo beste arazoi batzuegatik) lan merkatuan sar daitezten eta bertan gera daitezten laguntzeari zuzendutakoak batzuk, eta familiako bizitza eta lanekoa bateragarri egiten laguntzeari bideratutakoak besteak;
 - **bizi-maila egokia** ematea (bizitza duina ahalbidetuko duena), prestazioen konbinazio ezin hobearen bidez.

2.1.2. *Arartekoaren jardunbidea herritarren eskarien aurrean*

2.1.2.a) Erakunde honetan diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoei buruzko erreklamazioak aurkezten dituzten bizikidetz-unitateetan haur kopuru izugarria dagoela egiaztatu da. Bada, hausnarketaren oinarrian dago egitate hori, izan ere, aipatu gutxieneko sarrerak ukatzen edo kentzen direnean, haurren eskubideei eta interes gorenari eragiten baitzaie. Kontuan hartu behar da 2015ean, funtsean, prestazioen ukapena, etetea edo iraungitzea edo bidegabe jasotako prestazioen erreklamazioa izan direla kexen xedeak (xehetasun gehiagorako, ikus txosten orokorreko II.4. atala).

Hausnarketaren emaitza izan da **Arartekoaren apirilaren 8ko 2/2015 Gomendio Orokorra**, hau da, **Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko bete-beharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman**.

Esan bezala, honakoa da gomendioa ekarri duen egoera eta bertan zehazki jorratu dena: haurrak dauden bizikidetz-unitateetan diru-sarrerak bermatzeko errenta (eta etxebizitzarako prestazio osagarria, lotuta dagoenean) eteten edota iraungitzen denekoa. Lanbide ez du zirkunstantzia hori aintzat hartzen prestazioa eteteko edo iraungitzeko erabakia hartzean, eta, ondorioz, haurrak kargura dituzten familiak beharizan oinarritzkoenei aurre egiteko diru-sarrerarik gabe geratzen dira zenbait hilabetez edo are urtebetez ere, horrek haurren eskubideetan eta euren garapen pertsonalean eduki ditzakeen ondorioekin. Gurasoak edo tutoreak prestazioaren onuraduna den bizikidetz-unitatea osatzeko betekizunak betetzeari uzten dion kasuetan, hala nola, behar besteko baliabideak dauzkanean (147/2010 Dekretuaren 8.3. artikulua), tartean dauden haurren interes gorenari, berez, ez zaio larriki eragiten, baina betekizunak betetzen dituzten bizikidetz-unitateek (baliabide urriak izaten jarraitzen dute) betebeharrak betetzen ez dituzten kasuetan (18/2008 Legearen 19. artikulua eta 147/2010 Dekretuaren 12. artikulua eta 2/2010 Dekretuaren 7. artikulua), haurren interes gorenari eragiten zaiola uste dugu.

Esan dugun bezala, haurren pobrezia igoeraren harira garatu da eskari honen testuingurua (horren gaineko datuak eman ditugu, bai bulegoaren aurreko urteetako txostenetan, bai aurreko puntuan), bai eta familiei laguntzeko politikak ahulak direlako ere, politika unibertsalik eta irismen luzeko-rik ez dago-eta, edota diru-sarrerak bermatzeko sistemaren hein baterainoko eraginkortasunagatik, izan ere, hainbat ikerketaren arabera, benetako pobrezia egoeran dauden eta seme-alabak dituzten familien %73ra baino ez da iristen aipatu sistema (eskatzailea izan daitekeen biztanleria da hori), eta kasuen %30ean bakarrik ari da erabat eraginkorra izaten.

Hortik aurrera, erakunde honek egokitzen jo dituen gogoetak zabaldu ditu gomendio orokorrak, eta, batez ere, bi elementuren gainean oinarritu dira:

1. Esku-hartzea familiei laguntzeko politika publikoetan sartzeko beharra, egungoak baino asmo handiagokoak eta eraginkorragoak horiek, eta epe ertainerako eta luzerako xedeekin. 2014an hausnarketa sakon baten xede izan zi-

renez, eta horren aipamen ugari daude erakunde honen txostenetan, gogorarazi beharra dago familiei laguntzeko euskal politikentzako erronkek hurrengo kontuak hartu behar dituztela gogoan:

- Neurri unibertsalak, seme-alabak dituzten familia guztiei zuzendutakoak, eta honakoekin dutenak zerikusia:
 - Inbertsio publiko handiagoa seme-alabak hazteak dakartzan kostuak konpentsatzeko. Kenkarien bidez, diru-laguntza zuzenen bidez edo “gauzen bidezko” laguntzen bidez (doako eskolako materiala, murriztutako garraioa eta abar).
 - Familiako bizitza eta lanekoa bateragarri egiteko neurrietan sakontzea, hala nola, denborak - baimenak (amatasun-aitatasuna, eszedentziak eta lanaldi murrizketak), diru-laguntzak eta kontziliatorako zerbitzuak.
- Babesgabetasun egoeran dauden edo zailtasun objektibo erantsiak dituzten eta familietan eragin handia duten politika sektorialetatik bideratu daitezkeen zailtasunak dituzten familiei laguntza ematearekin uztartu behar dira neurri horiek, adibidez, diru-sarrerak bermatzeko politikekin, gizarte zerbitzuekin, etxebizitzarekin, hezkuntzarekin edo beste batzuekin.

Europar Batasunaren Haurrengan inbertitzea: desabantailen zikloa haustea gomendioak ezarritako ildo da hori ere, zera gomendatu baitu bizi-maila egokia ahalbidetzen duten prestazio ekonomikoei dagokienez: *“familien diru-sarrerei laguntzea prestazio egoki, koherente eta eraginkorren bidez, esaterako, zerga-pizgarriekin, seme-alabak kargura edukitzeagatiko familia-prestazioekin, etxebizitzarako soro-penekin eta gutxieneko sarreren sistemekin”* eta *“zuhurtzia erakustea familia-prestazioak gurasoen jarreraren edo hurrek eskolan duten asistentziaren mende daudenean, eta aipatu neurrien balizko eragin negatiboa ebaluatzea”*. Hau da, familia-prestazioak gurasoen jarreraren edo hurrek eskolan duten asistentziaren mende daudenean, zuhurak izatearen alde egin du Europar Batzordeak, neurrien balizko eragin negatiboa kasu bakoitzean ebaluatuz.

Zuhurtziaz hitz egiteak, jurisprudentziako doktrinak dioten bezalaxe, arrazoiketaz hitz egitea baitakar, kontzeptu banezin gisa, arrazoiketak bermatzen du-eta arrazionalki eta ez arbitrarioki jokatu izana, zuhurtziazko egintzen gaineko kontrol egokia ahalbidetzearekin batera. Horrela, “behar besteko” arrazoiketara eskatuko litzateke, erabakia- ren funtsezko eta oinarritzko irizpideak zeintzuk izan diren jakin ahal izateko. Funtsezko irizpide horien artean, erabateko garrantzia dauka neurriak eragindako haurrengan eduki dezakeen eraginak.

2. Adin txikikoaren interes gorena balioestea. Haurren Eskubideei buruzko Batzordeak dioten bezala, bi artikulua daude hitzarmenean, elkarrekin irakurrita, 1989ko hitzarmenak ekarri zuen paradigma aldaketa markatu dutenak. Bi artikulua horiek estatutu berria eman diete hurrei: eskubideen subjektuak izatea, babesteko objektu bakarrik izan

beharrean. Ondorioz, harreman berriak sortu dira helduen eta haurren artean: dinamika demokratikoa eratu da. Artikulu horiek 3.a (adin txikikoen interes gorena) eta 12.a dira. Lehenak erabaki guztietan haurren interesa kontuan hartzea behartu ditu erabakitzaileak, eta bigarrenak haurrei entzuteko betebeharrak ezarri die estatuei, haurrentzat garrantzia duten erabaki guztiei dagokienez, eta iritzi hori kontuan har dezatela ezarri die, bai eta iritzi horrek hartuko den erabakian eragin ahal izatea ere.

Ikuspuntu horretatik, “adin txikikoaren interes gorena” kontzeptu juridiko zehaztugabea zehaztu da, eduki hirukoitza emanez: eskubide subjektibotzat, printzipio orokor interpretagarritzat, prozedurazko arautzat hartu da. Horrela, **erabakiak interesdun haurren eragan edo haurren eragan eduki ditzakeen ondorioen (positiboekin zein negatiboekin) balioespina egitea** dakar interes gorena zehazteak. **Kasu guztietan eragin behar da, eta zirkuntantzia zehaztuz oinarrituta.** Alabaina, laguntza emateko eta norberaren erabakimenean ez uzteko, kontuan hartu beharreko eta zenbait elementuren arabera balioztatutako beharreko irizpideak txertatu dira bai Haurren Eskubideei buruzko Batzordearen [14. Ohar Orokorrean](#), bai duela gutxi onartu den eta *haurren babesteko sistema moldatu duen* [uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoan](#).

Gainera, batzordeak eta lege berriek berretsi dutenez, erabakiek argi eta garbi jaso behar dute eskubide hori berariaz hartu dela kontuan, adin txikikoaren interes gorenaz zer jo den azalduz, erabakia zein irizpidetan oinarritu den azalduz eta haurren interesak beste gogoeta batzuen aurrean nola balioetsi diren azalduz. Hori guztia ezin hobeto uztartu daiteke aurreko puntuan eskatutako behar besteko arrazoiketarekin.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta erregulatzen duen araudiak aintzat hartzen du prestazioaren titularren kargura adin txikikoak egotea prestazioaren zenbatekoa zehazteko unean, bai eta bizikidetzaren unitatea balioestean ere, baina ez beste inon. Irizpide neurgailuen artean ez du adin txikikoen interes gorena sartu. Arartekoaren ustez, ordea, adin txikikoen interes gorena kontuan hartzeak diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ez etetea edo ez iraungitzea ekar dezake. Horrek ez du esan nahi, baina, bizikidetzaren unitateak ez-betetzeak eginez gero, ordenamendu juridikoak ez dionik erantzun egokiturik eman behar adin txikikoak dauden kasuetan, izan ere, kontua ez da salbuespen sistema sortzea, aurrez aurre dauden interesak behar bezala neurtzea baizik.

Arartekoaren iritziak, betebeharrak ez betetzeak zigortzeko prozedura ekarri beharko luke (araudiaren arabera). Horrela, kasu horietan, prestazioa eteteak edo iraungitzeak adin txikikoaren interes gorenari eragingo diola uste denean, prestazioaren abonurako eskubideari eutsiko litzaioke; dagozkion izapideak egin ondoren, ordea, izapidea ekarri duen ez-betetzearekiko proporzionala litzatekeen zigorra hitzartuko litzateke. Modu horretara, haurren kargura ditzuten familiek bermatuta edukiko lituzkete oinarritzko beharrei aurre egiteko diru-sarrerak, eta erantzun proporzionala emango litzaioke betebeharraren ez-betetzeari.

Azkenik, gomendioak ezarri duenez, gurasoengan bestelako zailtasun erantsiak atzemango balira seme-alabei behar besteko ongizatea emateko orduan, zailtasun horien berri eman beharko litzaieke udaleko gizarte zerbitzuei, esku-hartze sozio-hezitzailea egitea komeni den ala ez baliozta dezaten. “Bestelako” hitza nabarmendu dugu, inoiz ez delako gaur bezain argi adierazi “*gurasoen, tutoreen edo zaintzaileen pobrezia egoera ezin izango dela kontuan hartu babesgabetasun egoeraren balorazioa egiteko orduan*” eta “*zirkuntantzien pilaketa edo material gabezia egotea arrisku adierazletzat joko dela, baina ez duela inoiz ekarriko familia inguruetik banantzea*” (Adin txikikoen Babes Juridikoari buruzko [urtarrilaren 15eko 1/1996 Legea](#), [uztailaren 28ko 26/2015 Legeak](#) moldatu duena).

Gomendio Orokorra bidali ondoren, horren betetze mailari buruzko informazioa eskatu zaio Lanbideri. Duela gutxi kasu batzuetan, gomendioa balioesten ari direla jakinaraziz erantzun du organismo horrek, eta, beraz, prestaziorako eskubideari eutsi zaio. Arartekoak oso ondo baloratu du erabaki hori.

2.1.2.b) Badago haurrei eragin dien beste kexa bat, erakunde honen ebazpena ekarri duena. Kasu horretan, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzea erabaki zuen Lanbideak, kexagileak **eskubide ekonomikoak baliarazi ez zituela** ulertu baitzuen, izan ere, Lanbideren ustean, kexagileak ez zuen seme-alaben mantenu-pentsioa aitortu zuen epaia betearaztea eskatu. Espedientean jaso zen dokumentazioak egiaztatu zuen kexagilearenak ez ziren arrazoiek galarazi zutelako demanda jartzea. Zehazki, ofiziozko txandak esleitutako abokatuak gaixotasun-nagatiko baja hartu zuen, eta disfuntzioa egon zen abokatuaren baja ordeztzeko orduan.

Kexaren ezaugarriak zirela-eta, Arartekoaren esku-hartzea justizia administrazioaren eremuari (ikus txosten orokorreko [II.5. atalaren 2.2. idatz-zatia](#)) zein Lanbideri zuzendu zitzaizkien. Lanbideri adierazi zitzaion kexagileak eska zitzaiokeen dilligentzia guztia erabili zuela bere eskubidea eta seme-alabena eraginkor egite aldera.

2.1.2.c) Hirugarren kexak erakusten du DBEak zer lotura duen seme-alabak zaintzeko bateragarritasun-neurriekin. Lanbideak prestazioa bertan behera utzi zion emakume bati, lanaldi murrizketa bat hartu zuelako. Interesdunak diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen zuen, lanaren osagarri gisa. 10 urteko alaba zeukan eta ez zeukan norekin utzi lanarekin zegoenean.

2014ko urtarrilean Lanbideren zegoen bulegoan informazioa eskatu zuen, lanaldi murrizketa bat hartzeak zer ondorio izan zitzaizkeen jakiteko, eta haxe erantzun zioten: murrizketa-eskaerarekin batera bera artatzen zuten gizarte-zerbitzuen txosten bat aurkeztekin bazuen, murrizketa horrek ez zuela prestazioa etetea eragingo.

Erakunde honen ustez, txosten horrekin behar bezala egiaztatuta geratu zen interesdunak eskatutako lanaldi murrizketarako premia zeukala. Izan ere, bestela, pertsona bat kontratatu behar izango zukeen, eta murrizketarekin jasoko ez

zuen soldata bera edo handiagoa ordaindu. Horregatik, zegokion [ebazpena](#) eman zen.

2.1.2.d) Bulego honen aurreko urteetako txostenetan ere aipatu dira jada ekonomia urritasun egoeran dauden familien [etxebizitza beharrak](#) betetzeko zailtasunak. Txosten horietan, desjabetzeen aurrean abiarazi diren neurriak eta ekimenak aipatu ditugu. Aurten, ordea, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan baja ematea, kasu batzuetan, etxebizitzarako prestazio osagarriaren kobrantzaren etetean edukitzen ari den eragina nabarmendu nahi dugu, eta, are, diru-sarrerak bermatzeko errentaren hartzaileei bidegabe jasotako kobrantzak itzultzeko prozedurak hastea ere ekarri du.

Txosten orokorreko II.17. atalean (etxebizitzari buruzkoan) azaldu den bezala, Enplegu eta Gizarte Politika Sailari iaz iradoki zitzaion hobekuntzak sar zitzala Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan, eta, zehatzago, erregistroko alden ukape-nak eta bazarako ebazpenak jakinarazteko moduan sar zitzala hobekuntzak, iragarki-tauletan argitaratzen baitira horiek, jakinarazpen pertsonalik egin gabe. Praktika horrek izugarri zailtzen du pertsonak beren interesen aurkako egintzen aurka erantzutea, eta, ondorioz, antzinatasuna galtzen dute, babestutako etxebizitza eskatzaile gisa.

2015eko irailean [etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legea](#) sartu zen indarrean, eta garrantzi berezia eman dio antzinatasuna egiaztatzeke kontuari. Legearren laugarren xedapen iragankorrek aurreikuspen bat ezarri du, herri-administrazioak etxebizitzarako eskubidea pixkaka-pixkaka bermatzen joan daitezen, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, urtean 15.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten bizikidetz-unitateetatik hasita, hiru kide edo gehiago badituzte horiek eta Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatuta badaude, errentamendu erregimenean gutxienez lau urteko antzinatasunarekin. Agerikoa denez, bizikidetz-unitate horiek izaten dute haurrak urritasun ekonomikoko egoeran edukitzeko aukera handiagoa.

Hala, erregistroko antzinatasuna funtsezko betekizun bihurtzen da logelarako eskubidea bermatzeko, eta, horrek, gainera, administrazioaren jardura berme formalekin guztiz adeitsua izatea eskatzen du, babestuko etxebizitza eskatzaile guztien eskaeraren bajarekin amai daitezkeen prozedura horietako guztiei dagokienez. Zentzu horretan, 2015ean hainbat ebazpen bidali dizkiogu eskudun sailari. Horien bidez, hartu dituen aurkako ebazpenak berrikusteko eskatu zaio, bai eta erregistroan pertsonen antzinatasuna mantentzeko eskatu ere. Era berean, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko ebazpenen izapidetzea eta jakinarazpena Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko [30/1992 Legeari](#) egokitzeke eskatu zaio.

2.1.2.e) Eusko Jaurlaritzak, 2014an, *“Haurren pobrezia Euskal Autonomia Erkidegoan duen eskualdeko eraginari”* buruzko txostena ekarri zigun. Txostenean ondorioztatu zenez, benetako pobrezia eta gabezia larrien arteko loturak [elikadura arazo larrietan](#) dauka eragin handiena (EAEko haurren %5,9). Datu kezagarria zen hori, eta, bestalde, une horretara arte genituen usteen guztiz aurkakoa zen; bada,

datu horren eraginez, 2015ean errealitate horri adi egongo gintzaizkiola iragarri amaitu genuen 2014ko txostena.

Xede horretarako, [Euskal Herriko Lehen Mailako Arretako Pediatria Elkarte](#)ko hainbat medikuren iritzia bildu dugu. Iritzi horiekin, euren osasun-zentroetan hautematen ari diren errealitatea arakatu dugu, pobrezia dagokionean oro har, eta elikadurari dagokionean bereziki. Horretaz gain, beharrian horiek hautemateko adierazle objektiborik ba ote dagoen galdetu dugu Osakidetzan (haragi-arraina jaten den jakiteko adierazle eztabaidatuaren ildoan), eta, egotekotan, nolabait erabiltzen ote diren.

Langile horien osasun-zentroaren kokalekuaren arabera ezberdintasunak egon arren, bat egiten dute adieraztean pobrezia ez dela agerian jartzen ari malnutrizio arazoak areagotzeko joera duen biztanlerian. Baieztatu dutenaren arabera, posible da diru gutxirekin elikadura orekatua egitea, eta, agian, **aldagai sozial eta kulturetan aurkitu behar dira nutrizio ezegokirako arazoak** (janaria prestatzeko ohituraren galera eta aurrez prestatutako jakien eta zabor janariaren gehiegizko kontsumoa, ezagutzaren transmisio falta familietan, zenbait jaki nola prestatu ez jakitea, edo erosketak nola egin ez jakitea eta abar). Horrek agerian jarri du heziketa programak azpimarratzeko beharra, izan ere, nahiz eta pediatria zerbitzuek familiak orientatzen dituzten elikadura ohitura egokiak har ditzaten, ez da nahikoa.

Euren ikuspuntutik begiratura, nutrizioan zentratu baino, begirada zabalduta beharko litzatekeela uste dute; hau da, beste adierazle batzuetan jarri beharko litzateke arreta beharrian egoerak hauteman ahal izateko. Honakoak dira **artatzen dituzten haurren familietan hautematen dituzten arazo nagusiak**:

- Pobrezia energetikoa: etxeetan berogailurik eta ur berorik ez egotea, eta, ondorioz, higie-ne okerragoa edukitzea. Hezetan edo ke usaina duen arropa (etxeetan suak piztea...).
- Betaurrekoak behar izatea, batzuetan ezin baita itxaron gizarite behar larrietarako laguntzak ebatzi arte.
- Haurren Hortzak Zaintzeko Programa (HHZP) 7 urtetik gorako haurrentzat eta behin betiko hortz-haginentzat da. Gero eta kasu gehiagotan, haurrek hortzetako arazo larriak (txantxarrak eta abar) dituztenean familiek ezin izaten die-tela horiei aurre egin hautematen ari dira. Kasu batzuetan, akordioak egin dituzte UPV/EHUko Odontologia Fakultatearekin, arreta eman diezaioten biztanleriaren zati horri (eskoletara joaten dira azterketak egitera eta abar).
- Agintzen dizkieten sendagaiak erosteko ezintasuna. Batzuetan, ANESVADen laguntza jasotzen dute.
- Ezin ditzakete Osakidetza-aren estalduratik kanpo geratzen diren tratamendu horiek eskuratu, baliabide gabezia dela-eta: ezturen kontrakoak, dermatitis atopikorako tratamenduak, asmaren aurkako medikazioa emateko kamertarako sarbidea.
- Arreta haur guztiei ematen bazaie ere, OTIa eduki, erroldatuta egon edo beraiek zein beren familiak bestelako irre-

gultaritasun egoeran egon gorabehera (lehen mailako arreta da eta ez dago murrizketarik), zailtasunak edukitzen dituzte espezialistarengana bideratu behar denean edo sendagaiak agintzeko orduan.

Arreta horretan, udaleko gizarte zerbitzuekin (lehen mailako arretarekin) harreman ona dagoela adierazi dute, eta, adierazi dutenez, “ahalegin guztiak egiten dituzte” familien eskasia egoerak arintze aldera.

Adierazleei dagokienez, adierazi dute ez dagoela adierazle espezifikoen sistemarik malnutrizio (edo desnutrizio) egoerak arrazoi ekonomikoengatik gertatu direla argi adieraziko duenik. Gero estatistikoki erabili ahal izango diren osasun egoerei buruzko informazioa erregistratzeko aukerei dagokienez, zera adierazi digute:

- Osakidetzaren estaldura publikotik kanpo geratzen dena ez da kontrolatzen. Adibidez, haur batek ikusmen urritasuna duela eta betaurrekoak behar dituela jasotzen da historialean, baina ez betaurrekoetarako sarbiderik duen ala ez; 20 aldiz erregistratu daiteke txantxarrak dituela, baina ez tratamendurik jasotzen duen ala ez...
- Badira historia klinikoan erregistratu ditzaketen “kategoria” jakin batzuk (desnutrizioa, esaterako), baina langile bakoitzaren erabakimenean geratzen da jaso ala ez jaso, eta ez daukate diagnostikoaren mailaketa zehazteko adierazle objektiborik -argiak eta langile guztiak partekatze-koak-, edo, are, ezta diagnostikoa bera zehazteko adierazlerik ere (adierazle honek, horko hori eta hango hura gehituta, balioztatutako egoeraren maila arina/neurritzkoa/larria den adierazten du).

Elikadura beharren artapenean berariaz jarduten duten elkar-teekin (jantoki sozialekin, elikagaien bankuekin eta abarrekin) informazio hori alderatu eta osatu ahal izatea gustatuko zitzaigukeen, baina ezinezkoa izan da, eta 2016ra lekualdatu dira ekimen horiek.

2.1.3. *Haurren pobrezia aurre egiteko neurrien segimendua*

Bulegoaren 2014ko txostenean, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailak zabalduko asmoetan aurrerapauso batzuk egin zirela adierazi zen. Euskadin haurren pobrezia jorratzeko asmoz eta Eusko Jaurlaritzak *haurren pobrezia aurre egiteko neurriei buruz* egindako legez besteko 146/2013 Proposameneko agindua betetzeko helburuz zabaldu ziren aipatu asmoak. Orduan jakinarazi genuen moduan, Euskadin haurren pobrezia duen errealitate soziala hobeto ezagutzeko jarduerak egin zituen 2014an (Pobrezia eta Desberdintasun Sozialei buruzko 2012ko Inkestaren erabilera estatistikoki zehaztua -pobrezia 14 urtetik beharagoen artean eta eskualdeka-, eta horren eguneraketa 2014an); hau da, diagnostiko osoagoa geneukan, eta bigarren talde batean sartu zirenak zeuden egiteko, honakoei buruzkoak: plan ezberdinek haurren pobrezia dela-eta hartu dituzten neurri guztiak taldekatzea eta koordinatzea, bereziki azpimarratuz gizarteratze aktiboa; espezialisten iritzi aditua biltzea

beste neurri mota batzuk ezartzeko; eta “*ekintzarako plan integrala*” proposatzea, “*egungo arriskuen multzoa murrizteaz gain, belaunaldien artean errepikatzea saihesteko*”.

Horri buruz galdetu genion sailari, eta, berriro ere, egoeraren gaineko diagnostikoko datuak emanaz erantzun zigun, ekin-tzen bigarren taldea aipatu ere egin gabe. Hala ere, familiei laguntzeko politiketan egindako aurrerapausoen inguruan galdetu genuenez, sailak berak emandako erantzunari esker jakin ahal izan genuen Familia Politika eta Komunitate Garpenerako Zuzendaritzak proposamen bat egin duela familietan eta haurrengan inbertitzeko estrategia artikulatu dadin, Europako Batzordeak “*Haurrengan inbertitzea, desabantailen zikloa haustea*” gomendioan iradokitakoaren ildoan. Helburua erakundeen arteko estrategia hitzartzea da, egonkorra eta irismen handikoa, familia babeslerako eskubideari buruzko atalean nabarmenduko ditugun beste kontu batzuen artean (txosten honen 2.4. atala), haurren pobrezia eta desberdintasunaren errepikapenaren prebentzioari erantzuneko dion **Haurren eta Familien aldeko Herri Hitzarmenaren** bidez.

Hasierako proposamena dela adierazi du sailak, sailen eta erakundeen arteko eztabaidari irekita dagoena, eta eragile sozial nagusiekin ere eztabaidatu eta adostu behar dena. Erakunde honek ondo baloratu du proposamenaren norabidea, baita berau egiteko metodologia parte-hartzailea ere, baina ezin diezaiokegu ekintza bultzatzeari utzi, izan ere, diagnostiko guztiak adierazi diguten bezala, desberdintasun sozialak eta eragindako pertsona kopuruak -haurrak gehienbat- ez diote hazteari uzten. Bada, arreta handiz jarraituko ditugu herri hitzarmen itxaropentsu eta asmo handiko horren aurrerapenak.

2.2. Hezkuntzarako eskubidea

28. artikulua

1. Estatu kideek haurrak hezkuntzarako duen eskubidea onartzen dute (...)

29. artikulua

1. Estatu kideek haurraren hezkuntza honetarako bideratu behar delakoan daude:

- a) Haurraren nortasuna, gaitasunak eta ahalmen fisiko eta mentala ahal den guztia garatzeko;
- b) Giza-eskubideei eta oinarritzko askatasunei eta Nazio Batuetako Agirian azaltzen diren printzipioei buruzko errespetua irakasteko haurrari;
- c) Bere gurasoenganako, bere kultura-nortasunarenganako, bere hizkuntza eta baloreenganako, bizi den estatuko baloreenganako, jatorrizkoa duen estatuko baloreenganako eta bere zibilizazioa ez diren zibilizazioarenganako errespetua irakasteko haurrari;
- d) Haurra, gizarte aske batean, elkar ulertzeko izpirituarekin, bakearekin, tolerantziarekin, sexuen berdintasunarekin, eta herri, talde etniko, nazional, erlijioso eta indigena jatorria duten guztiarekin adiskidetasunez eta zentzuz bizitzen prestatzeko;
- e) Haurrari ingurugiro naturalarekiko errespetua irakasteko.

2.2.1. Araudi- eta gizarte-testuingurua

2015ean, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko [abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren](#) (LOMCEren) aurkako testuinguruan murgilduta jarraitu dugu. Une hauetan lege horren jarraitutasuna zalantzarazkoa da, joan den abenduaren 20ko hauteskundearen ondoren sortutako hauteskunde-egoera berriak azkenean izan dezakeen emaitza dela eta.

Edonola ere, EAEn “[Heziberri 2020](#)” egitasmoan aurreikusitako urratsak ematen jarraitu dute hezkuntzako arduradunek. Horrela, abenduaren azken egunetan, haur hezkuntzako eta oinarrizko hezkuntzako curriculumei buruzko dekretuak (oraindik argitaragabeak) onartuz amaitu dute urtea, eta, arduradun horien adierazpenen arabera, hezkuntzako eragile guztien parte-hartzea behar izan dute prozesu horretarako.

Dekretu horien aurkezpenean, alderdi berritzaileenak nabarmendu dituzte, hau da, lehenengo aldiz xedatu dute ikaslearen irteera profila, eta horixe erabili dute heziketa erronkak jorrazteko eta ildo estrategikoak ezartzeko orduan. Era berean nabarmendu da ikaslearen profilak ahalbidetu duela irakasleen profila zehaztea, kalitate handiko irakaskuntzara iristeko xedez.

Aldiz, 2015ean bai argitaratu dira luzaroan espero izan den [eskola garraioa arautzeko dekretua](#) eta [Oinarrizko Lanbide Heziketari buruzko dekretua](#). Horiek ordezkaturako lituzkete iraganeko Hasierako Lanbide Trebakuntzarako Programak eta 2014-2015 ikasturteko Prestakuntza Iragankor Integratuko Programak.

2.2.2. Kexatzeko arrazoiak

Oro har, 2015ean kexatzeko izan diren arrazoiak aurreko urteetako antzekoak izan dira. Ikuspegi zorrozki kuantitatibotik begiratuta, hona hemen kexa gehien sortzen duten gaiak: ikasleen onarpena, eskola garraioa, bekak eta beste laguntza batzuk. Lanbide-heziketari buruzko kexa asko egoiteak itxuraz egiaztatzen du irakaskuntza horiek azken urteotan pixkanaka protagonismoa hartu dutela, baina argitu behar da kexa horien zati handi batek zerikusia zuela Administrazio eta Finantza arloko prestakuntza-ziklo zehatz bat ematearekin; gai hori azkenean behar bezala konpondu da.

2.2.2.a) Ikasleen onarpena

Ikasleak onartzeko prozesuarekin zerikusia duten kexak ikusita, oraindik ere ziur gaude hausnarketa bat egin beharra dagoela, plaza nahikorik ez dagoenean ikasleak onartzeko erabiltzen diren lehentasuneko irizpideen gainean. Hausnarketa hori behin eta berriz atzeratu da.

Irizpide horietako bat (beren seme-alabak onartzea nahi duten gurasoak ikasle ohiak izatea kontuan hartzen duena), zalantzan jarri du Lasarte-Oriako Sasoeta-Zumaburu ikastetxe-ko Buruzpe guraso elkarteak, eta gai horrexegatik agertu zen jarduneko arartekoa maiatzean [Eusko Legebiltzarren Hezkuntza Batzordearen](#) aurrean. Elkarte horrek bere kezka

helarazi nahi izan dio erakunde honi, herri horretan ikasleak haur eta lehen hezkuntzako bi ikastetxeetan eskolatzeko baldintzak desberdinak direlako. Bere ustez, egoera horren ondorioz, berriz hausnartu behar dira erabilitako onarpen-irizpideak, bereziki lehen aipatu duguna: alegia, gurasoetako edozein ikasle ohi izatea. Irizpide hori da, hain zuzen, ikastetxe bakoitzeko Eskola Kontseiluak edo Ordezkaritza Organoko Gorenak libreki erabaki ditzaketenetako bat (gehienez ere 2 puntu), eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak emandako erantzunaren arabera, irizpideren bat zehazten duten ikastetxeetatik %68,31k erabiltzen dute (garrantzi handiagoa edo gutxiago emanez).

Gai horren gainean, laster emango dugu gure iritzia.

Erakunde honek, era berean, ez dio uko egin nahi urtez urte errepikatzen den egoera jakin bati aurkibidea aurkitzeari, hots, eroldako datuak gehiegi edo iruzur eginez erabiltzeari dagokion auzia, familiaren etxearen hurbiltasun irizpidea aplikatuta puntuatzea aitortzen baita. Ondorioz, xede horretarako ofiziozko espediente irekitzeko erabakia hartu dugu 2015ean, gaiaren gaineko proposamen motaren bat egitea ahalbidetuko digulako itxaropenarekin.

Ikasleen onarpenari buruzko kexa batzuen harira egin ditugun kudeaketekin, beste behin ere erreparatu diogu Eskolatzeko Lurralde Batzordeek gai horren gainean egiten duten lanaren garrantziari, batez ere, gure hezkuntza sistemara lehen aldiz sartzen diren ikasleen kasuari dagokionean. Batzorde horien mende egoten da, neurri handi batean, ikasle horiek modu orekuan banatzen direla ziurtatzea, eta horiei dagokie, era berean, ikasle horiek funts publikoekin sostengatutako itunpeko zentroetan eskolatzean, hezkuntza administrazioaren mendeko edozein zentrotako baldintza beretan egitea. Puntu horretan, era berean aipatu behar ditugu EAera etorri berri diren familia batzuen kexak, izan ere, zail izaten dute euren seme-alabek A ereduan ikasten jarraitzeko duten nahia asetzera. Halere, aitortu beharra dugu, azkenean, kasu gehienetan, hezkuntza administrazioak balioetsi egiten duela horien nahia.

Nolanahi ere, ikasleen onarpenarekin zerikusia duten eta 2015ean jaso ditugun kexetatik zerbait nabarmentzekotan, urritasunen bat duten edo eskolatzeko prozesuan laguntza bereziak behar izan dituzten ikasleen izenean sustatu diren ekimenak aipatuko genituzke. Esanguratsuenak diren bi ekimenak txosten orokorraren II.2. kapituluan zehaztuta daude. Horietatik lehenengoan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari [gomendatu](#) diogu areagotu ditzala administrazio prozedura erregulatu duen araudiak eskaintzen dituen aukerak, zegokion instantziaren aurrean urritasun aitortza epe barruan eskatu zuen ikasle baten urritasun egoera balioestea ahalbidetzeko xedez. Bigarrenean, berriz, hezkuntzako arduradunek agertu duten prestasuna egiaztatu ahal izan dugu, goi-mailako diseinu irakaskuntza artistikoetarako sarbidean urritasunen bat duten ikasleei plaza kopuru jakin bat gordetzea ahalbidetzeko beharrezko aldaketak sustatzeari dagokionez, lanbide heziketan eta unibertsitateko graduko irakaskuntza ofizialean gertatzen den bezala.

Hain zuzen ere, aipatu ditugun azken irakaskuntza ofizial horietan onarpenari buruzko erregularizazioa onartu da, eta

hor ikusi ahal izan dugu lekuen erreserba ez dela %33ko edo hortik gorako urritasuna aitortuta duten ikasleentzat bakarrik aurreikusi, izan ere, ezintasunezko zirkunstantzia pertsonalei lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat ere aurreikusi baitira, heziketaren erabateko normalizazioa lortze aldera eskolatze prozesuan baliabideak eta laguntzak behar izan dituztenentzat, alegia. Beste heziketa maila batzuetara ere tratamendu hori bera zabaltzeko aukera planteatzea eragin digu horrek, lanbide heziketaren alorrera, adibidez; erakunde honetan ildo horretako kexak jaso baititugu. Kasu horietan, urritasun maila hori aitortuta ez edukita ere, aurreko etapetan laguntzak jaso dituzten ikasleen izenean aurkeztu dira kexak, ikasketak lanbide heziketan jarraitu nahi dituzte-eta.

2.2.2.b) Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak

Ezgaituek azaldutako arazoekin jarraituz (baina oraingoan beharrezko laguntzei buruzkoak), ez dugu albo batera utzi nahi jaso dugun eta oraindik ere izapidetze fasean dagoen kexa baten gaineko kezka. Kexa horretan, urritasuna duten eta lanbide heziketa egiten ari diren bi gazteren familiek jakinarazi digute euren seme-alabek zailtasun handiak dauzkatala heziketa programa osatzeko, praktikak enpresa batean egin behar baitituzte, laguntzeko langilerik eduki gabe.

Jasotako beste kexa askotan iradoki da zalantzan jartzen dela behar besteko laguntza ematen ote den. Heltze-atzerapena duten ikasleentzat ipinitako laguntzen kasua izan da hori, adibidez. Kasu horretan, izapidetutako kexa askotan bezala, sailak erakunde honen jardunbideari erantzunez eman duen informazioak ahalbidetu du kexagileen nahiak asetzeari.

Hezkuntza-premia berezien atal honetan ez dira kanpo geratu, esaterako, curriculum anitzeko taldea baimentzeari eman zaion ezezkoaren ondorioz azaldutako kexak. Kasu horretan, eragindako familiek uste zuten etxe inguruan prestatzeko aukera ukatzen zitzaiela horrela. Egindako jardunbidean zehar, hezkuntzako arduradunek, aipatu baimena ematea zaildu duten arazoien berri xehetasunez emateaz gain, zentroan jarraitzea erabakitzen duten eragindako ikasleei arreta pertsonalizatua eta indibiduala emateko asmoa erakutsi dute, eta, are, gaurko erantzuna berrikusteko konpromisoa agertu dute, zalantzarik gabe, ikasturte honetan aurkeztu diren kexek mugituta.

Esaten ari ginen bezala, hezkuntza administrazioa oso harbera agertu da erakunde honetan aurkeztu diren kexei irtenbidea emateko unean. Nolanahi ere, eta hainbat aldiz adierazi dugun bezala, hezkuntza-premia bereziei buruzko atal honetan, eta gure ikuspuntuaren arabera, garrantzitsua da albo batera ez uztea eskola inklusiboaren markoan 2012-2016 urteetarako onartu zen Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoaren ebaluazioa eta segimendua lana. Gure aldetik eta lan horren adibide gisara, gaixotasun arraroak dituzten ikasleak hezkuntzan txertatzeko gomendioen segimendua egitea proposatu diogu geure buruari.

2.2.2.c) Lanbide heziketa

2.2.2. puntu honen hasieran aipatu dugunez, 2015ean area-gotu egin da 2012. urtetik nabarmentzen ari garen joera: ugaritu egin dira lanbide-heziketako irakaskuntzei buruzko kexak, nahiz eta aurreko jasotako erdiak baino gehiago arazo berari zegozkion. Azkenean, arazo hori konpondu zen.

Kexatzeko beste arrazoi bat hauxe izan da: Urrutiko Lanbide Heziketako Institutuko euskarazko heziketa eskaintzak.

Egindako kudeaketetan zehar, lanbide heziketako zuzendariak berretsi egin du, une honetan, sailaren konpromisoa egungo eskaintza progresiboki zabaltzea dela, dauden aurrekontu baliabideen arabera, [Urrutiko Lanbide Heziketako Institutuko eskaintza euskaraz bermatzeko Legez Besteko 2015eko apirilaren 15eko Proposamenari](#) egindako erdibideko zuzenketa islatu den bezala. Edonola ere, eta institutuaren ibilbidea laburra izan arren, ikasleen hizkuntza premiak eta lehentasunak asetzeko prestasuna erakutsi du, eta, sailarekin zein institutuarekin harremanetan jartzeko dauden komunikazio-bide ezberdinak erabiliz, beraien eskariak helaraztera animatzen ditu ikasleak.

Egiazki, lanbide heziketaren irakaskuntzak dauzkan ezauzgarrien ondorioz, zenbait espezifikotasun dauzka ikasleek ikasketak hizkuntza ofizialetako edozeinetan egiteko aukera edukitzea bermatzeko beharrezko plangintzak. Horregatik da zaila, berez, hezkuntzako arduradunek aipatu duten ezarpen progresiboa zalantzan jartzea.

Nolanahi ere, eta aintzat hartuta arestian aipatu dugun parlamentu ekimenaren ildoan egin ahal zaizkien gomendioak jarraitzeko prestasuna agertu dutela arduradun horiek, Urrutiko Lanbide Heziketako Institutuan euskararen presentzia areagotze bidean aurrera egiteari dagokionez, ahal den neurrian laguntzeko asmoa dugula erakutsi diegu, etorkizunera begirako plangintzan kontuan har daitezen ikasketak euskaraz egin nahi dituzten ikasleen lehentasun edo eskariak, kexa modura aurkeztu bazaizkigu horiek.

Bada beste gai bat txosten honen idazketa bukatzeko orduan oraindik konpontzeke dagoena: neska-mutil batzuen prestakuntza-beharrei ez zaie erantzun, Hasierako Lanbide Prestakuntza Programak eta 2014-2015 ikasturteko Barneratutako Prestakuntza Iragankorreko Programak desagertu ondoren.

Bai foru aldundietako bakarrik dauden adingabe atzerritarren harrera zentroetara egindako bisitetan, bai gazte atzerritarak artatzen dituzten gizarteratzeko erakundeekin egindako bileretan ere, kezka agertu digute gazte horiek prestatzeko eta gaitzeko gero eta aukera gutxiago daudelako. Egia da 16 urtetik beherakoei, derrigortutako eskolatze adinean daudena, euskal hezkuntza sistemak kualifikazio profesionaletarara errez heltzeko igarobidea ematen diela, baina ez da gauza bera gertatzen 16 urte baino gehiago dituztenekin.

Duela gutxira arte, Hasierako Lanbide Prestakuntza Programak (edo 2014-2015 ikasturteko Barneratutako Formazio Iragankorreko Programak) gazte hauen formazio beharrei eta

egoerei erantzun egokia ematen ari zien, baina abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak ezarritako eta [otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretuak](#) erregulatutako Oinarrizko Lanbide Heziketaren sarrerak, sartzeko oztopo berriak ezarri ditu. Batez ere, DBHko lehendabiziko zikloa egin behar izanaren irizpideari buruz ari gara, edo, salbuespen gisa, DBHko bigarren maila egin izanari (irakasle taldearen txosten proposamena aurrekoari lotuta baitago), gazte hauek normalean betetzen ez duten irizpidea. Lege horrek, hala ere, hezkuntza administrazioei derrigorrezko eskaintzaz gain 17 urte baino gehiago dituzten pertsonentzako Oinarrizko Lanbide Teknikari titulua lortzeari zuzendutako formazio programak ezartzeko aukera ematen die.

Eusko Jaurlaritzaren dekretu batek jaso du aukera hori, Euskadiko Oinarrizko Lanbide Heziketa arautu duen horrexek, alegia. Aurreko ataletan ere aipatu dugu, Oinarrizko Lanbide Heziketako prestakuntza zikloen eskaintza deialdi espezifiko baten bidez eratzeko aukera ezarri baitu 16.2. artikuluan, 17 urtetik gorakoak diren eta bigarren hezkuntzan ikasketa egiaztaturik ez duten pertsonentzat.

Ildo berean mintzatu da bigarren xedapen gehigarrian, berriazko beharrezkoak dituzten taldeen beharrei egokitutako lanbide heziketako prestakuntza eskaintzak ezartzeko eta eratzeko aukera ireki baitu, heziketa behar bereziak dituzten ikasleei jarraitutasuna emateko.

Nolanahi ere, aipatu prestakuntzaren xedea (emantzipazio eta gizarteratze prozesuak gauzatzea ahalbidetuko duen) enplegurako sarbiderako gaikuntza ematea denez, erantzunak bilatu ditugu lanbide prestakuntza formalaren azpisteman zein enplegurako prestakuntzaren azpisteman, hau da, Lanbiden. Beraz, horietara jo genuen behar horri, bai modu indibidualean, bai modu bateratuan zein koordinatuan, erantzuten ari ote ziren jakiteko asmoz.

Dena dela, honakoa da errealitatea: ikasturtea hasita, tradizionalki gazte horientzako programa egokiak garatu izan dituzten entitateek (Peñascal Fundazioa Bizkaian eta Gipuzkoan, ADSIS Fundazioa Bizkaian eta Araban...) jakinarazi digute gazte kopuru handi batentzat (60 baino gehiago Bizkaian, 80 inguru Araban eta 30 bat Gipuzkoan) ez dutela zer eskaini, eta, kasurik onenean eta ehuneko txikian, prestakuntza taldeetan, tailerretan eta ekintzetan sartzan dituztela, horien kostuak baliabide propioekin ordaintzen dituztelarik.

Lanbide Heziketako Zuzendaritzak aitortu egin du, Oinarrizko Lanbide Heziketarekin, euskal hezkuntza sistemak arazo duela orain lehen arazorik ez zuen tokian, Hastapeneko Lanbide Gaitasuneko Programei oso erantzun eta balorazio ona ematen baitzieten zentroek beraien eta prestakuntza jasotzen zuten neska-mutilek, bai eta bigarren hezkuntzako gainerako zentroek ere, erantzun egokirik ez zuten pertsona batzuentzako irteera aurkitzen baitzuten programa horietan. Are gehiago, Oinarrizko Lanbide Heziketa da Euskadik LOMCEri planteatu dizkion aurkako puntuetako bat. Edonola ere, 2015-2016 ikasturterako berau ezartzera behartuta egon direnez, jakitun dira aldaketa gauzatzeko izan duten presak galarazi egin diela “sistematik kanpo geratzen” zaizkien pertsona batzuen beharrei erantzutea.

Are gehiago, adierazi dute pertsona horien heziketa beharrei erantzutea ez litzatekeela lanbide heziketatik berriaz jorratu beharko, hezkuntza sistema osotik egin beharko litzatekeela baizik. Adibidez, beharbada Helduentzako Hezkuntza izan liteke erantzun horren zati, eta, horretarako, sarbiderako adina jaitsi beharko litzateke, eta (garrantzitsuena izaki) eskaintza eta lan egiteko modua berriz pentsatu eta eratu beharko liriteke. Azken batean, hezkuntza sistema “galduz”, kanpoan utziz eta baztertuz doan neska-mutil horiek bertakotzeko formulen inguruko hausnarketa orokorra egin beharko litzateke. Izan ere, hizpidean ditugun neska-mutil horiek daude horien artean, baina ez horiek bakarrik.

Enplegurako gaitzeko azpistematik, *a priori*, malgutasun handiagoa dauka sarbiderako betekizunak, egutegia, curriculum eta abar zehazteko unean, eta, are, lan merkatuan baliozkotasuna eduki dezakeen profesionaltasun ziurtagiriaren bat itxuratu dezaketen heziketa moduluak eratzeko aukera ere eduki dezake. Bada, horri dagokionez, Lanbidek adierazi du ez dagoela inolako oztoporik urtero finantzatzan duen lanbide prestaketarako heziketa eskaintzan parte hartzeko, enplegu eskatzaile gisa izena emanda egoteko betekizuna salbu. Gizarte erakundeek azaldutako errealitateak islatu du, ordea, eskola horiek ematen dituzten entitateek oso gutxitan hautatzen dituztela, euren xedean artean neska-mutil horien beharrezkoak diren arreta daukatenean izan ezik.

Urteko azken urteetan jakinarazi digute, kontu horri irtenbideak bilatzen jarraitzeko hartu den konpromisoari jarraiki, 2016ko lehen hilabeteetan 17 urtetik gorakoentzako ikastaro/moduluak ezartzea aurreikusi dela, I. mailako profesionaltasun ziurtagiria eskuratzera bideratutakoak horiek. IVAP ari da curriculuma prestatzen, beraz, ikastaroak erregulatuko dituen eta azkenik eskola horiek emango dituzten entitateak (Hezkuntza Konpentsatoriorako Partzuergoak egokitzen jo dira, une honetan eskatzen den arintasuna ahalbidetzen baitute) aukeratuko dituen ebazpen baten bidez onartu beharko da. Finantzaketa Lanbidek egingo du.

Egiaz, albiste ona da hori, aipatutakoa abiarazi arte itxaron beharko badugu ere, balorazio osoa egiteko. Bereziki adi egongo gatzazkio Araban eman ahalko den erantzunari, izan ere, 2012an bulego honen txostenean esan genuenez, “Pedro Anitua” Hezkuntza Konpentsatoriorako Partzuergo desegin baitzen, eta, hortaz, modulu horiek eratzea zailduko litzateke, azkenik horiexek badira aipatu eskolak emateko baimenduko diren entitateak. Beste alde batetik, epe laburrerako irtenbidea da hori, eta arazoak egonkortasun handiagoko irtenbidea behar du. Badakigu hezkuntza administrazioa bilaketa horretan ari dela lanean.

2.2.2.d) Eskola-garraioa

2.2.1. puntuan esan dugunez, aurtan azkenean onartu dute eskola-garraioa arautzen duen dekretua. Erregulazio berriaren lehen irakurraldiak pentsarazi diezaguke ez dela aurreko arauditik bereziki aldentzen, eta horregatik egiten dugu zalantza; hau da, jakin nahi dugu ea erregulazio berri horrekin erantzun hobeak eman ahal izango zaizkien garraioaren gaineko eskaerei, hala nola, baserri inguruetan pizten diren bezalakoei.

Une honetan, kezkatuta gaude hezkuntza administrazioa erregulazio berri horretaz baliatuko ote den eguerditarako edo bi urtetik beherakoentzako garraio-eskaerei erantzutea saihesteko. Izan ere, familia askok seme-alabak etxetik hurbil eskolatzea erabaki badute ere, behin-behineko instalazioetara eraman behar izaten dituzte, eskolako eraikin berrietan aurreikuspen gabezia egoteagatik.

Azkenik, deigarria egin zaigu dekretu horrek garraio zerbitzuetatik erabat bereizitako kudeaketa planteatu izana hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat. Gure ustean, ezintasun fisikoari, psikikoari edo zentzumenezkoari lotutako premia bereziak dituzten ikasleak gizarteratzeko oztopo izan daiteke hori, eta, horregatik, erakunde honek lehen emandako ebazpenen kontrakoa da.

2.2.2.e) Eskola-jantokiak

Atal honi dagokionez, Hezkuntza Sailak oso arrazoizko jarrera erakutsi du proposamen berrien aurrean; besteak beste, gaitasun metaboliko batek eragindako adin txikikoaren familiak egindako proposamena aipa dezakegu, jantoki zerbitzua erabiltzeko aukera aitortzeko eskatu baitzuen, baina etxean bertan prestatutako bazkaria jango zuen adin txikikoak.

Kasu horretan, hezkuntza administrazioak komenigarri ikusi du kudeaketa zuzeneko jantokietan auditoria, kalitate-kudeaketa eta aholkularitza teknikoak egiteko kontratatu den laguntza teknikoarekin kontsultatzea, eta, horren arabera, askoz ere gomendagarriagoa da, elikadura segurtasunari erreparatuta, premia berezietarako dieten hornikuntza catering enpresa batek egitea, bitarteko teknologiko egokiekin eta eskoletako menuak egiteko prestakuntza espezifikokoekin.

2.2.2.f) Bekak eta bestelako ikasteko diru-laguntzak

Bekei eta bestelako laguntzei dagokienez, aurreko urteetako arrazoi berberak agertu dira kexetan: administrazioaren atzerapena eskaerak ebaztean, atzerapenak aitortutako zenbatekoen abonuetan, laguntzen oinarri arautzaileen edukiarekin berarekin desadostasunak eta abar. Halere, kontu horien gaineko kexek jarraitzen duten arren, hobekuntza hauteman da aurreko urteetako egoerarekin alderatuta. Horrenbestez, azken hilabeteotan ikusi ditugun ahalegina eta prestasun ona ez alboratzera bultzatu nahi ditugu hezkuntzako arduradunak.

2.2.2.g) Eskolako bizikidetzak

Aurten ere, kexa dezente egin dituzte eskola-bizikidetzari buruz ikasleen familiek. Horiek direla eta, Hezkuntza Administrazioaren berehala erantzun edo esku hartu behar izan du.

Arlo horretan, Bizikidetzarako Euskal Behatokiko kide garenaz, horrekin dugun loturari eusten diogu, nahiz eta 2012. urteaz geroztik ez den deialdirik egin. Nolanahi ere, lankidetzak estua eta hurbilekoa izaten jarraitzen dugu hezkuntza-komunitateetako bizikidetzak hobetzeaz arduratzen diren

eragileekin. Izan ere, parte hartzen dugu *Talde Egonkorra: Eskola Segurua* delako programan, alegia, sexu-joeragatiko diskriminazioaren kontra borrokatzearekin eta jazarpen homofoboia saihestearekin zerikusia duen, eta azken batean, eskolak aniztasunean elkarrekin bizitzeko toki seguru bezala sortzea helburu duen ekimenean.

Eskola-bizikidetzarekin lotutako kexak eta beste kexa batzuk bideratzean (horietan, gurasoek nahigabea eta kezka azaldu dizkigute, irakasle batzuen jokaeragatik), ondorio hau ateratu dugu berriro: guztiz garrantzizkoa dela familiekin komunikatzea. Irakasleen nahiz Hezkuntza Ikuskaritzaren eginkizuna funtsezkoa da familiak behar bezala artatuta senti daitezen eta hezkuntza administrazioan uste ona izan dezaten, are gehiago horrelako kontuzko kasuetan, non kaltetuak gerta baitaitezke beren seme-alabek ikasle gisa aitortuta dituzten eskubideak.

2.3. Abandonu, tratu txar edo indarkeriatik babestua izateko eskubidea

19. artikulua

1. *Haurra gurasoen, legezko ordezkarien edo bestelako norbaiten kustodiapean dagoen bitartean, estatu kideek beharrezkoak diren legezko, administrazioako, gizarterako eta hezkuntzako neurri guztiak hartuko dituzte haurrak honakoak jasan ez ditzen: edozein modutako kalte edo gehiegikeria fisiko nahiz mentalak, arduragabekeria edo tratu zaborra, tratu txarrak edo esplotazioa, sexu gehiegikeriak barne.*

20. artikulua

1. *Aldi baterako edo betirako bere familietatik ateratu diren haurrak edo beren interesen arabera ingurune horretan egon behar ez dutenek estatuaren babes eta laguntza bereziaren eskubidea izango dute.*

2.3.1. Araudi- eta gizarte-testuingurua

Txosten honetako 1.2. atalean (haurrei eragiten dieten politika publikoen arazuko testuinguruari buruzkoan) adierazi dugun bezala, 2015eko udan bi lege garrantzitsu onartu dira eta indarrean sartu. Horiekin amaitu da **estatuko markoan** haurren legedia eguneratzeko prozesu luze eta nekeza. Bi testu horiek txertatu dituzten aldaketa sakonen zati bat aipatu atalean azaldu dugu jada, baina haurren eta nerabeen babeserako eskubideak bermatzen dituzten sistemen hobekuntzari buruzko guztia hemen azalduko dugula agindu dugu. Horrela, honakoak dira **uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak** eta **uztailaren 28ko 26/2015 Legeak** babesaren eremuan sartu dituzten aldaketa nagusiak:

- Haurrak babesteko sistemako erakundearen aldaketa sakona:
 - Printzipio gidariak: lehentasuna neurri egonkorrekin aldi baterako neurrien aurrean, lehentasuna familia-neurriekin instituzionalen aurrean, lehentasuna adostutakoekin ezarritakoekin aurrean, lehentasuna nazionalen nazioartekoekin aurrean.

- Neurri guztiak berrikusteko eta horretarako epe zehatzak ezartzeko betebeharra.
- Arrisku egoeraren erregulazioa; berau zehazteko garapena eta prozedura; administrazioaren ebazpena, arrisku egoera adieraziz gurasoek uko egiten badiote esku-hartzeko proiektua sinatzeari edo gurasoek aipatu proiektuan aurreikusitako lankidetzan jarduten ez badute.
- Babesgabetasun egoeraren erregulazio hobea; horiek zehazten dituzten zirkunstantziak; borondatezko zaintza egoerarekiko mugaketa hobea; borondatezko zaintzaren mugak eta baldintzak.
- Familia-harreraren erregulazioa: harreraren formalizazioa, modalitateen sinplifikazioa, harrera berezitua eta profesionalizatua sartzea, hartzaileen egokitasunerako irizpideak, harreraren hartutako haurren familia hartzaileen eskubideak eta betebeharrak.
- Jarrera nahasmendua duten adin txikikoentzako egoitza baliabideen erregulazioa.
- Adopzio irekiaren (eraketa-ebazpenean epaileak hitzartutakoaren) aitortza; adopzioarako xedea duen zaintzaren erregulazioa; argitasun handiagoa eskumenean mugaketan.
- Genero indarkeriaren eraginpean dauden haurrak biktima gisa aitortzea, euren ikusgarritasunari lagunduz horrela, eta euren beharrian partikularrak jorratzea erraztuz. Era berean, guraso-ahalaren erabilerari buruzko eta erruztatuaren mende dauden adin txikikoak harekin egoteko, harremanak edukitzeko eta komunikatzeko erregimenari buruzko erabakia hartzeko betebeharra jaso da, epaiak guraso-ahala ez etetea erabakitzen duen kasuetarako.
- Administrazioaren jardueraren printzipioak eta eskubide jakin batzuen erregulazioa behar berrietara egokitzea, hala nola, lagunduta ez dauden adin txikiko etorkinek dituzten beharretarako egokitzapena.

Autonomia erkidegoaren eremuan ere, arauzko berrikuntzak aurkitu ditugu. 2015eko urriaren 7an, hiru foru aldundiekin eta EUDELekin egindako akordioaren ostean, [urriaren 6ko 185/2015 Dekretua](#) onartu du Gobernu Kontseiluak, *Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zerrendari buruzkoa*. Dekretu hori ezinbestekoa da [Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 8ko 12/2008 Legea](#) eraginkor gara dadin, bai eta bertan adierazitako eskubide subjektiboari edukia emateko zein berau mugatzeko ere. Horrekin, arreta maila homogenea bermatu ahal izango da (estaldurari eta intentsitateari dagokionean) autonomia erkidegoaren lurralde osoan, prestazioa ematen duen erakundea dena delakoa izanda ere.

Dekretua 2016ko abenduaren 25etik aurrera abiaraziko da "eraginkorki". Bada, 12/2008 Legeak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren mendekotzat jo dituen zerbitzuen banaketa zehaztu du dekretu horrek, irizpide geografikoen eta biztanleria irizpideen arabera, eta prestazioen benetako kostuari buruzko memoria ekonomikoa erantsi du.

Zera ezarri du zerrendak aipatu memorian dauden zerbitzu eta prestazio ekonomikoz guztientzat:

- a. Definizioa, eta, modalitateak egongo balira, baita horietako bakoitzaren definizioa ere.
- b. Biztanleria hartzailea, sarbiderako betekizunak, eta, egongo balitz, prezioa edo tasa publikoa.
- c. Prozedurazko xedapenak.

Babesgabe dauden haurren beharrei erantzuten dieten zerbitzuei dagokienez, kontu horiei buruzkoak dira honakoak fitxak:

- Informazio, balorazio, diagnostiko eta orientazio zerbitzua.
- Esku-hartze sozio-hezitzaile eta psikosozialerako zerbitzua.
- Mendekotasunaren, urritasunaren, bazterketaren eta babesgabetasunaren balorazioarako eta diagnostikorako zerbitzua.
- Egoitza zentroak babesgabetasun egoeran dauden adin txikikoentzat.
- Familian esku hartzeko eta bitartekaritza lanak egiteko zerbitzuak.
- Familiekin esku-hartze sozio-hezitzailea edota psikosoziala egiteko zerbitzuak.
- Tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumei, adin txikikoei, adinekoei eta urritasunen bat dutenei arreta soziojuridikoa eta psikosoziala emateko zerbitzuak.
- Familia-harrera sustatzeko eta horri laguntza teknikoa emateko zerbitzuak.
- Adopzioa sustatzeko eta horri laguntza teknikoa emateko zerbitzuak.

Zerrendak egungo arkitektura instituzionala errespetatzen du; aldi berean, ordea, Gizarte Zerbitzuen plangintzan lurraldeak, mankomunitateak eta herriak elkarren urratsei egokitzun joan daitezela nahi du, behar berei erantzun berberak eman ahal izateko horrela, betiere erakunde bakoitzaren kudeaketa autonomia errespetatuz. Helburua lan egiteko marko bakarra ezartzea da, arretarako eredu unibertsala eratu ahal izan dadin, gaur daudenak desagerraraziz. Bana lurralde historikoko.

Handik bi hilera, 2015eko abenduaren 1ean, ezinbesteko beste [plangintza tresna](#) bat onartu zen euskal herri-administrazioentzat: [Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2016-2019](#).

Gizartearen premien diagnostikoaz, ildo eta xede estrategikoaz eta horiei lotutako ekintzez gain, honakoak bildu ditu egitasmoak:

- EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa. Besteren artean, estaldurak eta, beharko balitz, eskaini beharreko arreta orduak

zehaztu ditu, bai eta beharrezko plaza kopurua edo erabiltzaileen kopurua edo 2017ko urtarrilaren 1erako artatu beharreko prestazio ekonomikoen hartzaileen kopurua zehaztu ere, eta, era berean, zerbitzuak ezartzeko egokien irizitako biztanleria irizpideak ere zehaztu ditu.

- Memoria ekonomikoa. Beste alderdi batzuen artean, euskal herri-administrazioek egin beharreko gastu publikoaren balioespina jaso du, legeak ezarri duen eskumenen araubidearen arabera, aipatu estaldurak eta arreta orduak bermatu ahal izateko. Bestalde, sarreraren balioztapena ere jaso du.

Tresna horiekin, sistema bakarrerantz jo nahi da, lurraldetako bakoitzaren errealitatek abiatuta eta administrazio arduradun bakoitzaren kudeaketa aukerak errespetatuta, eta gizarte zerbitzuen sistemari indarrean dauden arazuko eta plangintzako tresnen multzoak ezarritako mugek baldintzatuko dute sistema hori.

Babesik gabeko haurren bigarren mailako arretarako gizarte-zerbitzuek **zer errealitatean jarduten duten** kontuan hartuta, erakunde honek beti aipatu izan ditu artaturiko adingabeen gaineko datu kuantitatiboak. Aurten, ordea, ez dugu hori egiterik izango, txostena ixteko unean oraindik ez baitugu jaso foru aldundiei eskatutako informazioa.

2.3.2. Pozik ez egoteko arrazoiak

Arlo honekin lotutako **kexak** egin dituzten pertsonak azaldutako gaiak dagokienez, aurten ere, kasurik gehienetan, gurasoak **ez daude ados haurren zerbitzuek egindako balioespenekin** (horietan ondorioztatu baita beraien **seme-alabak babesik gabe daudela**), guraso-agintea etetearekin eta foru-erakundeak haur horien tutoretza bere gain hartzearekin. Guraso horien ehuneko handi batek Arartekora jotzen du, haurra edo nerabea babesik gabe dagoela eta babesteko neurria hartu behar dela ezartzen duen foru-aginduaren kontrako errekurtsioa epaitegietan jarri ondoren. Horrek eragotzi egiten digu kexagileen eskaera nagusiaren gainean esku hartzea. Beste batzuetan, familiek administrazioaren erabakia jakin bezain laster jotzen dute gugana eta aholkuak eta informazioa eskatzen dizkigute, neurri hori azkenean bete ez dadin. Egia esan, gurasoen desadostasun-arrazoi nagusia dela eta –azken batean, beraien seme-alaben beharrei modu egokian erantzuteko dituzten arazoak balioestea– esku-hartzeko aukera mugatuak ditugu. Alde batetik, erakunde honek ez duelako balorazio-irizirik ematen gai teknikoaren gainean, adibidez, gurasoen gaitasunaz edo babesgabetasun egoeraz; eta, bestetik, kasu dezentetan administrazioaren erabakia bera epailearen balorazioaren zain egoten delako. Hala ere, eskaera horrekin batera, gai batzuk ere heltzen zaizkigu (balioztatze-prozesua, balioztatzeaz arduratzen diren pertsonen emandako arreta eta tratua, komunikazioa eta informazioa), eta horietan esku hartu dugu, eragindako administrazioari informazioa eskatuz eta beren jokamolde egokiaren arabera aztertuz.

Aurten beste kexa multzo bat osatzen dute prozesuaren zenbait unetan bigarren mailako arretarako gizarte-zerbitzuek

egindako jarduerarekin ados ez daudela dioten familien kexak: desadostasunak proposatutako familiako esku-hartzearekin edo horren bizitasunarekin; desadostasunak proposatutako komunikazio-araubidearekin (seme-alabekin elkartzeko maiztasuna edo elkartze horiek ikuskatuak izatea), desadostasuna tutoretzapeko seme-alaben zaintza gauzatzerekin (egoitza-harreratik familia harrerarako aldaketak) eta abar. Jaso dugun beste kexa batean, herritar batek adierazi zigun ez zegoela konforme bere familiarekin egiten ari ziren familiako esku-hartzearekin, eta salatu zuen haurren zerbitzuak ez zituela kontrolatzen zerbitzu hori egiten duen enpresa esleipendunari emandako eskumenak.

Egia esan, gure jarduera amaitu ahal izan dugun kasu guztietan (bigarren kexa-multzo honetan nahiz aurrekoan), administrazioaren jardura ez da okerra izan.

Ez da horrela izan Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen ama baten kasuan. Bere bi seme-alaba adin txikikoei komunikazioa edukitzeko izaten ari zen zailtasunak zirela-eta eskatu zuen erakunde honen laguntza, Arabako Foru Aldundiaren zaintzapean baitzeuden horiek, espetxeratu zutenetik. Txosten orokorreko III. atalean irakur daitekeen bezala, norabide bikoitzean egin zen Arartekoaren esku-hartzea. Aurretik, Adin txikikoen Kontseiluaren laguntza eskatu genuen, haurren tutoreak ziren heinean, haurrek amarekin harremana izatea haien intereserako egokitzat jotzen zuten jakiteko. Kaltegarritzat ez jotzeaz gain, guztiz komenigarria zela adierazi zigun, espetxeetako agintaritzari ere adierazi zioten bezala. Era berean jakinarazi zigun ama ezin ikusi izateak ezinezkoa eragiten ziela haien tutoretzapekoei. Horatik aurrera, zenbait kudeaketa egin ziren Espetxe Zaintzako Epaitegian, gure eskumenek mugak eduki arren, adin txikikoen eskubideak jokoan baitzeuden. Beste alde batetik, uste dugu Adin txikikoen Kontseiluak, tutoretza eginkizunak betetz, Espetxe Zaintzako Epaitegiaren aurrean zentzu berean jokatu beharko zukeela, eta horregatik igorri genuen *Arartekoaren 2015eko abenduaren 15eko Ebazpena*. Ebazpen horren bidez, *Arabako Foru Aldundiari gomendatu zaio gurasoak espetxean dituzten eta euren tutoretzapean dauden adin txikikoen eskubideak babestu ditzala Espetxe Zaintzako Epaitegiaren aurrean*.

Familia-harrera neurriaren bidez zaintzen diren tutoretzapeko adin txikikoei eragiten dieten kexa batzuk ere jaso ditugu. **Familia-harrera** familia zabalean zein beste familia batzuetan egiten da. Jada aipatutako asegabetasunerako arrazoiak gaindi (desadostasuna bisitekin, ikuskapen motarekin eta abarrekin), harrera neurriaren segimendua egiteaz arduratzen den taldeak egindako balorazioekiko eta horien edukierakiko adostasunik eza adierazi dute kexetako batzuek. Harrerako ama baten kexa ere jaso dugu, eta, bertan, familia-harrera etetearekiko eta etete hori egiteko moduarekiko desadostasuna adierazi du. Xehetasun gehiagoz hitz egingo dugu kontu horri buruz familia-harreraren gaineko atalean.

2015ean, **euren seme-alabekin bizikidetzat berreskuratu nahi duten gurasoen** kexak eta kontsultak ere jaso ditugu, haurren babesgabetasun egoera adierazi zenetik bi urtetik gora igaro ostean. Administrazioak guraso-ahala eta zaintzaren ardura eten zuenetik denbora igaro bada ere, familia guz-

तिक adierazi dute oso gogoan dutela banantzeak ekarritako mina, eta seme-alabak etxera itzuliko direlako itxaropena bizirik dutela. Hala ere, esku hartu ahal izan dugun kasuetan, ez dugu balioetsi zegokion haurren zerbitzuak ezegoki jokatzen duenik. Kasu guztietan, familian gutxi gorabehera egoten jarraitzen duten zailtasunen aurrean, edo aurrerapenak egon badira ere, haurren foru zerbitzuak ezegokitzat jo dute adin txikikoa etxera itzultzea, edo itzulera hori inoiz gertatuko ez dela balioztatuta dute.

Jasotako beste kexa batzuk **administrazio prozedura** izenburupean sailkatu litezke. Txosten psikosozialak begiratu ahal izateko zailtasunei, interesdunek egindako eskaerei erantzuteko orduan atzeratzeari edo erantzun gabeziari edo seme-alabekin komunikatzeko ezarritako erregimenaren aldatzea ez jakinarazi izanari buruzko kexen inguruan ari gara. Kasu batzuetan, administrazioak berak zuzendu du bere jarduerak; kasu gehienetan, ordea, ez dugu jarduerak ezegokirik ikusi.

Puntu honetan, familia-harrerari buruzko kexa bat nabarmendu nahiko genuke. Bertan, herritar batek informazio falta salatu zuen, izan ere, ez zekien zeintzuk ziren esku-hartzeko familiar bereziturako programa batean parte hartzearekin Gipuzkoako haurren zerbitzuak bilatzen zituen xede zehatzak. Gure jardunbidearen ondoren, **iradokizun** bat bidali genuen. Horren bidez, programa zehatzari buruz egiten den ahozko aurkezpenarekin batera, familiek sinatu beharreko parte-hartzeko akordioa sartzeko adierazi genuen, parte-hartzearekin bilatzen diren helburua eta xede nagusiak ezagut ditzaten. Gipuzkoako Foru Aldundiak gure iradokizuna onartu du, eta, hemendik aurrera, jardunbide egitasmoaren kopia emango die familia guztiei, kasuaren planarekin koherentzian bilatzen diren xede zehatzak jasoz, esku-hartzeko programan parte hartzeko akordioa sinatzeko unean.

Familia batek babes-neurri batekiko desadostasuna adierazi zuen kexa-espeditante batean. Bada, bertan ageri zen dokumentazioaren azterketaren harira, ofiziozko jardunbide bat hasi genuela jakinarazi genuen iaz. Haurren zerbitzuan artatzen diren haurrek eta nerabeek entzun ditzaten duten eskubidea nola ari den bermatzen jakitea zen aipatu jardunbidearen helburua, bai eta euren iritzia emateko duten eskubidea bermatzen ari den eta iritzi hori nola balioesten duten jakitea ere. 2015. urte hasieran, **iradokizun** bat bidali genion Gipuzkoari. Lazko txostenean ondorio nagusiak aurreratu genituen.

Gerora, Arabako eta Bizkaiko egoera ezagutzeko jardunbideak abiarazi genituen. Arabako Foru Aldundiari dagokionez, gure esku-hartzea amaitzeko zain gaude. Ez da horrela Bizkaia dagokionez. Administrazio horrek egindako jardueraren gaineko gure balorazioa positiboa da. Esku-hartzeko eskuliburuan berriaz jaso da langile guztiek dutela entzuteko betebeharra, elementu garrantzitsuenei dagokienez. Gainera, esku-hartzeko fase eta modalitate guztietako elementu eragileetan ere halaxe jardun behar dutela jaso da (balorazioan, premiazko banantzean, egoitza- eta familia-harreretan...). Beste alde batetik, kasuko koordinatzaileentzako jarraibideak, haurrekin komunikatzeko espazioak eta kexarako zein salaketarako sistema daude. Horrekin guztiarekin pentsatu dugu esku hartzen duten langile guztiek gogoan eta

barneratuta dutela, une oro, prozesu horietan dauden haurrei eta nerabeei entzuteko betebeharra, eta prozeduretan, protokoloetan eta laneko jarraibideetan ere behar bezala dagoe-lan sistematizatuta eta jasota.

Garrantzitsua da adieraztea ez dela inolako adin mugarik ezarri haurren eta nerabeen iritzia entzuteko eta kontuan hartzeko unean, ematen den informazioa nahikoa izaten dela eta modu argi eta ulergarrian ematen dela, komunikatzeko ingurunea zaintzen dela eta jakinarazi egiten zaiela nola balioetsi duten euren iritzia.

Azkenik, **haur etorkinen aldi baterako lekualdatze**ei buruzko kexa bakarraz informatu nahi genuke xehetasun handiagoz. Zuzentzat jo da tartean egon den administrazioaren jarduerak; alabaina, kasuaren azalpena eta horri buruzko gogoetak interes orokorrekoak izan daitezkeela uste dugu.

Aipatu kexa Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurkakoa zen, izan ere, ezekoa eman zion haur etorkin bat lekualdatzeko aldeko txostena egiteari, eskolatzeko helburua zuen aldi baterako lekualdatze programan parte har zezan. Gobernuak Gipuzkoan duen Ordezkariordeztzak eman behar du lekualdatzeko baimena, baina beharrezkoa da haurren zerbitzuak aldeko txostena idaztea. Honakoak dira txosten horren xedeak: haurrak egonaldiaren bitartean babesgabekotasun arrisurik izango ez duela bermatzeko betekizunak betetzen direla egiaztatzea, edo, adibidez, adin txikikoaren lekualdatzeak adopzioa helburutzat ez duela egiaztatzea, eta hartzaileak haurra jatorrizko herrialdera itzultzea errazteko konpromisoa duela ziurtatzea.

Jarrailu beharreko jardunbide prozedura onartu eta argitaratu du foru aldundiak 2015ean, programa mota horietan parte hartzeko baimena eskuratzeari begirakoa. Gobernuaren Ordezkariordeztzarekin eta hainbat urtez programa horien garapenean parte hartu duten gizarte entitateekin adostu da prozedura hori, eta parte hartzeko adin mugak ezarri ditu, lekualdaketarako arrazioen arabera (eskolatzeko, aisia eta aisialdia edo mediku tratamendua). Horrela, eskolatzeko lekualdaketen programan parte hartzeko ezarri den adin muga 12 urtekoa da. Lekualdatzeko baimena eskatu duen adin txikikoak 10 urte dauzka, hortaz, haurren foru zerbitzuak ez zuen lekualdaketarako aldeko txostena eman.

Kexagileak urteak daramatza lekualdaketen programetan parte hartzen, eta Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen bere kasuko zirkunstantzia bereziak zirela-eta –aurretiko harremana neskatoarekin eta horren jatorrizko familiarekin-, bai eta 2015-2016 ikasturteak zekarren aukeragatik ere, izan ere, ikasturte hori da, seguru asko, adin txikikoaren izaba ikasketak amaitzera Gipuzkoara joango den azkena (izeba eta kexagilea aspalditik bizi dira elkarrekin). Kexagilearen ustez, izaba eta iloba etxean elkarrekin bizitzeak haurra gizartratzen lagun dezake. Beste alde batetik, haurra aurrerago lekualdatzeko aukera balioztatuta, hau da, 12 urte betetzearan, aukera baztertu zuen, izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak programan parte hartu ahal izateko ezarri duen beste irizpideetako bat da ez direla 60 urte bete dituzten familien eskaerak onartuko. Berak ez luke betekizun hori beteko, eskaera aurkezteko bi urte itxaronez gero.

Atzerritarren Araudia da, lekualdaketa horiei dagokionez, legezko erreferentzia markoa, eta horrek ez du inolako adin mugarik ezarri lekualdatu nahi duten haur atzerritarrentzat. Horregatik galdetu genuen zeintzuk ziren foru aldundiak onartutako prozeduran aipatu muga ezartzeko argudioak.

Haurren foru zerbitzuak balioetsi du 12 urteko adinak gehiago bermatzen duela adin txikikoaren interes gorena, lekualdatzen den adin txikikoak lekualdaketa onartzeko eta familiarekiko distantzia hobeto eramateko heldutasun nahikoa duela uste baita. Lekualdatutako haurren eskubideen ikuspuntutik begiratuta balioetsi da ikasturte osoan familiarengandik eta bere kulturatik eta ingurunetik banantzea ez dela heziketa jasotzeko justifikatu behar, eta ez diola adin txikikoaren interes gorenari erantzuten. Foru aldundiak uste du adin txikikoa zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta garrantzitsuagoa dela, bere garapenari dagokionez, familia ingurune egokian haztea, eta jatorrizko familian egotea lehenesten da. Azken batean, adin mugaketa hori egokia dela uste du, eta hobeto errespetatzen duela adin txikikoaren interes gorena. Gainera, haurren beste foru zerbitzuek eta beste autonomia erkidego batzuetakoek partekatzen duten irizpide teknikoak da hori.

Familia parte-hartzaileentzat ezarritako adin mugari dagokionez, foru aldundiari helarazi genion, haurrak eskolatzeko xedez lekualdatzen direnean aldi baterako (ikasturterako) izaten dela kontuan hartuta, eta haurrak 12 urterekin iristen direla, familia hartzaileek harreran hartutako haurren zaintzarekin bateragarria den osasun egoera eduki behar dutela, eta, funtsean, adin txikikoen zaintza epe ertainera edo epe luzera egitea eskatzen duen zaintza egonkorreko neurria (adopzioa, familia-harrera) ez dela aintzat hartuta, ez gurela ulertzen zergatik ezin daitezkeen onartu 60 urteak beteta dituzten familien eskaerak. Beraz, irizpide hori malgutasunez balora zedila proposatu genuen, eta ez lukeela galarazi behar eskaerak eta kasu bakoitzeko zirkunstantzia partikularrik aztertzea.

Adin irizpide hori moldatzeko edo malgutzeko prestutasuna erakutsi du foru aldundiak, 60 urte baino pixka bat gehiago dauzkaten pertsonak ere programa horiek sustatu ahal izan ditzaten, eta adin txikikoarekin aurretiko harremana egotea bezalako zirkunstantziak kontuan har daitezkeen, nahiz eta harreman hori ez izan aldi baterako beste egonaldi baten fruitu. Horrela, haurrak 12 urteko adina betetzean, kexagileak aldi baterako lekualdaketa susta lezake, haurra eskolatzeko xedez.

Erakunde honek balioetsi duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak, hau da, ezagutzen ez dituen eta zuzenean entzun ezin dituen haur etorkinak lekualdatzeko aldeko txostena igorri behar duenak, egoki jardun du adin muga ezartzean, adin txikikoaren interes nagusiari eta bizitzako lehen urteetan jatorrizko familiaren ondoan egotearen garrantziari erreparatuta, lekualdaketak haurren ongizaterako baldintza onenetan egin daitezkeen.

2.3.3. Egoitzetako harrera

2.3.3.a) Egoitzetako harrera-sarearen egoera

Babes gabeko eta aterperik gabeko egoera larriari aurre egiteko, foru-zerbitzuek hainbat neurri antolatzen dituzte, besteak beste, etxebizitzan intentsiboki esku hartzeko planak, familia-nukleotik bereizteko neurriak eta harrera egiteko neurriak, bai senideren baten etxean bai egoitza batean. Haurrak modalitate horretan zaintzeko aukera ematen duen egoitzabaliabideen sarea etengabe eguneratzen ari da, gizarte-behar aldakorrei, eskaerei eta araudi-xedapenei erantzunez.

Arabako udako hilabeteetan, ugaritu egin dira portaera-arazoak dituzten adingabeen kasuak; horren ondorioz, guztiz bete da Sansoheta zentroa, eta plaza berriak jarri behar dira behar horiek dituzten nerabeak artatzeko. Horretarako, Estibalizko Behin-behineko Unitatea ezarri da, eta modulu bidez diseinatu da; horrela, pixkanaka gehitu daitezke libre dauden plazak, gehienez ere 15era iritsi arte. Beharren arabera erabakiko da baliabide horrek jarraituko duen ala ez.

Gipuzkoan 2015ean ez da aldaketarik egon egoitza-harrera sarean.

Txosten hau idazteko unean ez daukagu Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzunik.

2.3.3.b) Egoitza-baliabideetara egindako ikuskapen-bisitak

Bulego honek Euskadiko egoitza baliabideen sareko hainbat programa bisitatzen ditu urtero, haur eta nerabeei ematen zaaien arretaren kalitatea ezagutu, ulertu eta egiaztatzeko eta, azken finean, haien eskubideak bermatzen direla egiaztatzeko.

2015erako aurreikusitako bisita planak premiazko harrera programa du aztergai; zehazki, programa hori nerabeekin garatzen duten egoitza zentroak. Hala, ez da aurreikusitako premiazko harrera emateko plazak eskaintzen dituzten harrera pisuetara bisitak egitea (baliabide horiek arautzen dituen [dekretuan](#) aurreikusitako formula, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako lurraldeetan ebatzia), ez eta 12 urtetik beherako haurrentzako Arabako premiazko harrera zentroa bisitatzea. Planeari sartutako zentroak hauek dira:

Bideberria, bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako lehenengo harrera zentroa (Arabako lurraldean).

- Ibaia, familia erreferentzia duten 12 eta 18 urte bitarteko nerabeentzako premiazko harrera zentroa (Arabako lurraldean baita ere).
- Zornotza, bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako lehenengo harrera zentroa (Bizkaiko lurraldean).
- Uba, bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako premiazko harrera zentroa (Gipuzkoako lurraldean).

Bisitak jarduerak osatzeko, kasu guztietan, foru-sail eskudunetako haurren zerbitzuei eskatutako agiriak aztertu ziren,

eta banan-banako bilerak egin ziren zerbitzu horietako arduradunekin. Bilera horietan, ondorio-ebazpenak eman baino lehen, zenbait gai jorratu ziren: ekipamendua, erabiltzaileak, familiekin egindako lana, profesionalen lantaldeak, e.a.

Bideberria zentrorra egindako bisita (apirilaren 22an eta maiatzaren 13an), honako ebazpen honekin amaitu zen, oinarritzat hartuta ikusitakoa, aztertutako agiriak eta [Arabako Gizarte Ongizate Saileko Foru Erakundeak](#) emandako informazioa: [2015eko irailaren 29ko Ebazpena](#).

Arabako Foru Aldundiari hauxe gomendatu zitaion:

- Arreta egokia eman diezaiela hartutako adin txikikoen beharrezane, eta emantzipaziorako prestakuntzara eta bizitza autonomora zuzenduta egon dadila arreta hori. Xede horretarako, komenigarria da:
 - Zentroan garatutako programen eta horietako bakoitzaren xedeen identifikazio argia.
 - Zehaztutako metodologia ezartzea, heziketa ildoan batez ere.
 - Eguneroko jardueren programa zehaztea eta garatzea. Bertan, espazio nagusia izan behar du enplegura bideratutako prestakuntza jarduerak (zentrotik kanpo zein barruan).
- Gizarte babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako eta nerabeentzako harrera egoitza baliabideak arautu dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuan behatutako langileen betekizunak betetzen direla berma dadila. Prestakuntzari dagokionez:
 - Proposatutako lan-profiletara igarotzea erraztu dadila (hezitzaile laguntzaileak), horiek betetzeko eskatzen den prestakuntzarako sarbidea ahalbidetuko duten neurriak hartuta.
 - Hezitzaile-taldeari proposatu diezaiola gatazka egoerak joratzeko gaitasun berri eta hobeak emango dizkien heziketa jarduerak sartzeko etengabeko prestakuntza planetan.
- Adi egon dadila eta baliabideetako langileen lan gatazketatik babestu ditzala hartutako neska-mutilak (eta harrera sarea bera), ahal bezainbeste.

Foru aldundiak erantzun digu oso kontuan hartzen ari direla gure gomendioak, bai zentroa egiten ari den berrantolaketa prozesuan, bai zentroaren etorkizuneko norabidean.

Arabako premiazko beste harrera zentrorra egindako bisitan (maiatzaren 14an), hau da, **Ibaia Premiazko Harrera Zentrorra** egindakoan, familiako erreferenteak dituzten 12tik 18ra bitarteko nerabeentzako aurrekoaren kontrara, ez zen aurkitu foru zerbitzuari gomendioa bidaltzea eskatzen zuen konturik. Hala ere, egoitza-harreraren sareak duen okupazio maila altu-altuaren gaineko arretari eustea eskatu zen azken ebazpenean (argitaragabea), oinarritzko arazoari dagokionean bereziki, egoera hori denboran horrela manten-

teak neska-mutilen beharrei behar bezalako arreta ematea baldintzatu dezake-eta. Datu batzuen harira egin zen aipatu gonbidapena, izan ere, datu horien arabera, **Ibaia Premiazko Harrera Zentroan** askotan luzatzen da egonaldia, babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako eta nerabeentzako harrera egoitzak erregulatu dituen dekretuan komenigarritzat jo denari dagokionez (60 egun), ikusi ahal izan genuen muturreko kasuren batean, urtebete egitera ere iritsi baitira. Horretarako arrazoiak bilatu behar dira, eta ez premiazko harrera programan egin beharreko balorazioan eta erabakian egon daitekeen atzerapenean (neska-mutilen beharrentzako babes-neurri edota baliabide egokiena bilatzeari dagokionean), egokitutako jotako baliabide horietako batzuetara bideratzeko zailtasunean baizik. Oinarritzko programako egoitza-harrera baliabide batera bideratutako neska-mutilen kasua litzateke hori, okupazio maila oso altua baitauka.

Era berean, **Uba Harrera Zentrorra** (Gipuzkoa) maiatzaren 11n egindako bisitaren harira ere ez zen gomendiorik egin; kasu horretan ere, ordea, arreta eskatu genuen. Horrela, eroldari buruzko elementu batzuen gaineko arreta mantentzera bultzatu genuen foru aldundiko Gizarte Politika Saila, eta, horretarako, **Arartekoaren urriaren 17ko 5/2011 Gomendio Orokorra** gogorarazi genion. *Udalek beren udalerrietako egoitzetan bizi diren etxerik gabekoak eta foru aldundiek tutoretzapean dauzkaten adingabeak udal erroldetan jasotzeko jarduerak egiteko betebeharra.*

Bisitatuak azken zentroak, **Zornotzako lehen harrerarako zentroak** (ekainaren 3an), erakunde honen adierazpena merezi izan zuen, nahiz eta neska-mutilei ematen dieten arreta sozio-hezitzailearen balorazio orokorra ona izan. Instalazioak eta emantzipaziorako programetarako sarbidea hobetzeko xedez formulatu da **Arartekoaren 2015eko urriaren 15eko Ebazpenean** jasotako gomendioa. Lehenengo kontuari dagokionez, premiazkoa deritzogu dutxak hobetzeari, eta, bigarrenari dagokionez, aplikagarria da **Arartekoaren ekainaren 17ko 5/2013 Gomendio Orokorrean** azaldutakoa. *Bakarrik dauden adingabe/gazte etorkinen arretarako bermeak.* Egund, eta Bizkaian familia erreferenterik ez duten adin txikiko etorkinei buruz, honakoa da indarrean dagoen irizpidea: 1) ez direla babesgabetasun egoeran dauden adin txikikoentzako harrera-egoitzen sarean egongo 18 urtetik aurrera (131/2008 Dekretuak aukera hori eman du 3.2. artikuluan), oso kasuistika zehaztetan izan ezik; 2) *Mundutik Mundura* gizarteratzeko zerbitzuaren programara sartzeko, haurrak babesteko zerbitzuetan gutxienez urtebetez egon izana eskatzen dela. Horrek esan nahi du zentrorra sartzeko 17 urtetik gorakoek (egoiliarren ehuneko handia izaki horiena) erakunde honen irizpide ezinbestekoak diren euskarririk, beharren estaldurarik eta laguntzarik gabe amaitzen dutela zentroko egonaldia.

Amaitzeko, adierazi beharra daukagu, lagunduta ez dauden adin txikiko etorkinei arreta ematen dieten hiru zentroetara egindako bisitetan (hau da, **Ibaian** izan ezik, beste guztietan), zentrotik kanpo egiten diren heziketa programeetan neska-mutil horiek matrikulatzeko orduan egoten diren zailtasunak helarazi dizkigutela. Bulegoaren txosten honen 2.2.2.c) atalean xehetasun handiagoz jorratu digu egoera hori. **Zornotzako** kasuan, bitartean, enpleguari oso bideratutako tailerrak eta prestakuntza ekintzak egiten dituzte, eta

neska-mutilek parte hartu behar dute horietan, zentrorra iritsi eta hurrengo egunetik aurrera. Bulego honek bat egiten du horretarako baliaututako irizpidearekin, hau da, garrantzitsua dela atzerapen handirik gabe ematea arreta neska-mutilek ekartzen dituzten bi asmo handiei: administrazio egoera erregularizatzeari eta lan egiteari, edo, behintzat, etorkizuneari lan egin ahal izateko prestatzeari.

2.3.3.c) Baimendu gabeko absentsietarako protokoloa

Baimendu gabeko absentsia kasuetan jarduteko protokoloa 131/2008 Dekretua indarrean sartu eta urtebetera onartu beharko zatekeen; bada, adierazi beharra dago ez dugula aurten aurrerapenik egin delako berrikeria izan. 2015. urtearen hasieran, **gomendio** batekin amaitu genuen Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailaren aurreko jarduerak; batetik, ahalik eta lasterren onar zezan baimendu gabeko absentsien protokoloa eta, bestetik, babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako harrera-egoitzetan gorputz miaketak egiteko jokoera komuna zehaztu zezan.

Gomendioari eman zion erantzunean, protokoloari buruzko behin betiko testua eta eranskinak eginda zeudela jakinarazi zigun sailak otsailean, eta behin betiko onartzeko eta erakunde bakoitzeko eskudun pertsonak sinatzeko zain zeudela horiek. Urteko lehen hiruhilekoan gerta zitekeela aurreikusitako zen. Alabaina, txosten hau idazteko unean, eta guk dakigula, protokoloa ez da ez onartu, ez sinatu.

2.3.4. Familia-harrera

2015eko lehen egunetan, *Euskadin harrera egin zaien haurren eta nerabeen arretari buruzko Arartekoaren 1/2015 Gomendio Orokorra* argitaratu zen. Bulego honen 2014ko txostenean xehetasunez eman genuen horren edukiaren berri. Han jorraitutako kontuetako batzuek, hala nola, harrera-familien eskarrek edo entzuna izateko eskubideak, beren isla eduki dute, eta bultzada izango dute hurrengo urteetan, udan haurrek babes-teko estatuko legediaren aldaketak onartu eta indarrean sartu ostean, lehen aipatu dugun bezala.

Erreformen berrikuntza nagusietako bat, familia-harrerari dagokionez, honakoa da: hartzaileen eskubideak eta betebeharrak zehaztu dira, eta hartzaileen estatutua deitu zaio horri. Era berean, familia-harreraren modalitateak berriro zehaztu eta sinplifikatu dira, eta, iraupenaren eta xedearen arabera, premiazko harrerak, aldi baterako harrerak edo harrera iraunkorrak izatera igaro dira. Hortaz, desagertu egin da adopzioaren aurreko familia-harrera kontzeptua, izan ere, adopzio neurriaren faseetako bat dela ulertu baita. Estatuko araudiak, bestalde, harrera berezituak eta harrera profesionalizatuak egiteko aukera sartu du haurrenak ez diren familiekin egiten diren harreretan.

Datozen urte eta hilabeteetan, beharrezkoa izango da autonomia erkidegoko araudia estatu mailan egindako legegintzako aldaketa handiei egokitzea.

Epigrafe hau amaitzeko, aurten jaso dugun herritar baten kexa aipatu nahiko genuke. Gehienetan, jasotzen ditugun

kexek arestian aipatutako asegabetasun arrazoiak partekatzen dituzte: seme-alabekin elkartzeko maiztasunarekiko desadostasuna, bisita horiek gainbegiratzearekiko desadostasuna, familia hartzailea izateko egokitasun balorazioarekiko desadostasuna eta abar. Aurten, gainera, zaintzapean bi adin txikiko zituen familia-harrera eten izanarekiko desadostasuna agertu duen familia hartzaile baten kexa jaso dugu.

Errealitate bat agerian jarri duelako nabarmendu dugu kexa hori, nolabait berritzailea ere baden errealitatea baita; hots, babesik gabe dauden haurrek harreraren hartzen dituzten familietan gertatzen diren banantze liskartiak, izan ere, Gipuzkoan behintzat, egoera horietan esku-hartzea bideratzeko prozedura idaztea pentsatu du haurren zerbitzuak.

Esku hartu dugun kasuan, bikote baten alde eratu zen bi anai-arreba gaztetxoren familia-harrera, eta normaltasunez garatu zen hainbat urtez. Bilakaera egokia ahalbidetu zuen horrek haurrangan. Bikotea banandu egin zen, ordea. Hala ere, hartzaileek haurrekin bizi izandako urte horietan guztietan erakutsitako jarduerak onari eta euren artean sortu zen loturari erreparatuta, banantzea gertatu zen unean harrera ez etetea erabaki zuen haurren zerbitzuak, hau da, harrera horietako batekin mantentzea erabaki zuen, eta komunikazio erregimena ezartzea besterekin.

Dena dela, egoeraren segimendu hurbila egitea balioetsi zen, erabakiaren zati gisa, bai eta harrera-familiaren egoera berriaren aurrean haurren ongizatea bermatzeko beharrezko laguntzak ematea ere. Alabaina, ahalegin horiek ez ziren eraginkorrak izan haurrek bikote hartzailearen gatazkatik babesteko.

Haurrek jasaten ari ziren min larria egiaztatuta, eta hartutako neurriak haurrek babesteko xedean huts egiten ari zirela ikusita, haurren foru zerbitzuak balioetsi zuen kexagilearekiko familia-harrera etetea beharrezko neurria zela bi haurren ongizatea bermatzeko.

Foru aldundiak prozedura bat idaztea aurreikusitako du. Horren bidez, familia hartzaileen edo jardunbide horiekin zerikusia duten familien banantze edo dibortzio egoeretan kontuan hartu beharrezko elementu garrantzitsuenak jaso nahi dira. Beraz, **iradokizuna** bidali diogu, familia-harrerarako programan parte hartzen duten bikoteen bizikidetzak hausten den kasuetan zehaztasunez ezar ditzen bisiten erregimena, egonaldia, harreraren hartutako adin txikikoekiko harremana edo komunikazioa, eta, beharrezkoa balitz, ordutegiak, espazio fisikoak edo bestelako edozein zirkunstantzia argigarri adieraziz.

Gure iradokizuna bere lan prozedurei txertatuko diela baieztatuz erantzun du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

2.3.5. Lagunduta ez dauden adin txikiko etorkinentzako berariazko arreta

Txosten honetako 2.3.1. atalean esan bezala, aurten ez ditugu bildu gizarte zerbitzuek artatu dituzten eta babesik gabe dauden haurrei eta nerabeei buruzko **datuak**, hiru foru aldundiei eskatu dizkiegun arren. Ondorioz, ezingo dugu la-

gunduta ez dauden adin txikiko etorkinei buruzko daturik eman (zenbat iritsi diren, zenbat hartu dituzten eta abar), aurreko urteetan ohikoa izan den bezala.

Gure arretaren xede izaten jarraitzen du lagunduta ez dauden adin txikiko etorkinak **harreraren premiaz hartzeko jarduerarako protokolo komunaren** egoerak. *Gizarte babesik gabe dauden haurrentzako eta nerabeentzako egoitza baliabideak erregulatu dituen [uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuaren](#) sei-garren xedapen gehigarrian dago aurreikusita protokoloa.*

2014ko urrian, estatuko protokolo markoa onartu zen behin betiko, eta, protokoloa egiteko orduan tartean egon ziren eragileek adierazitakoari jarraiki, protokolo autonomikoaren gainean erabakiak hartzeko hausnarketa aldia irekitzeko unea zen.

Enplegu eta Gizarte Politika Sailaren hitzetan, protokoloa egitean eskuduna izaki, 2015. urtearen hasieran jada aurreikusita zegoen idazketa berrartzea, eta, horretarako, kontuan hartuko zituzten bai estatuko protokolo markoan ezarritako ildoak, bai [Auzitegi Gorenaren 453/2014 Epaia](#). Erakunde honek, bestalde, [Arartekoaren ekainaren 17ko 5/2013 Gomendio Orokorraren](#) lehenengo puntuan jasotako kontuak ere aintzat hartzeko eskatu zion. *Bakarrik dauden adingabe/gazte etorkinen arretarako bermeak*. Gomendio orokor horren segimendu xeheagorik egin ezean (2016an egitea aurreikusita da), egun daukagun informazioak adierazi du 2007ko protokoloa ordeztu duen protokolo berri batekin ari direla lanean Gipuzkoan, eta, antza, ez duela arazorik ematen. Bizkaian ikertutako bi kexetan adierazi da, bestalde, *“Bizkaiko Probintzia Fiskaltzaren eta Haurren Zerbitzu honen egungo irizpideek baliozkotasuna eman diotela Fiskaltzaren dekretuan dokumentazioari buruz adierazi den datari”*, nahiz eta kexagileek aurkeztutako errekurtsuak ebatzi dituzten epaie-tan etete-ebazpenak aurkaratu diren, aipatu Auzitegi Goreneko Lehen Salaren epaian jasotako jurisprudentziarekin bat eginez.

Bestalde, **kexa** pare bat jaso dira, baina erakunde honek badaki egoerak bost gazteri eragin diela. Kexa horietan, Polizia Nazionalak tutoretzapean zeuden eta Gipuzkoako harre-ra-egoitzen sareko hainbat zentrotan bizi ziren adin txikikoak atxilotu zituela salatu da, eta dokumentazioa faltsutzeagatiko delitua egin izana leporatu ziela, kanporatzeko agindua irekiz. Akusazio horrek zerikusia dauka Gipuzkoako Sos Arrazakeria elkarteak aurkeztutako beste kexa batekin. Kexa horren edukiak zera dio, polizia nazionalak dokumentazioa faltsutzeagatiko salaketak jartzen dizkiela jatorriz Ghanakoak direnei, azken horiek baieztatzen dutenaren arabera, Ghanak Madrilen duen enbaxadan eskuratu badute ere pasaporteak. Era berean, jatorrizko herrialdeko jaiotza-ziurtagiria eta horren benetakotasuna egiaztatzen duen enbaxadaren ziurtagiria erantsi dituzte. Aipatu salaketak kalte ugari eragin dizkie eragindakoei, izan ere, salaketa formulatu izanak eta zigor eraginbidea ireki izanak pasaporteak erabiltzea eragozten die eragindakoei, prozedura judicialari lotuta geratzen baita hori. Paradoxikoki, berriro ere enbaxadara jotzen badute pasaporte berria eskatzera, faltsutzat jotako pasaporteen berdinderdinak jasotzen dituzte, eta, beraz, balio gabetze zirkulu berria hasten da.

Erakunde honetan kexa-espeditzea egon den bi kasuetan, antzeko ebazpenak jaso ditu Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduerak, eta egoitza-harrera neurrien etetea jakinarazteko orduan hobekuntzak egin ditzala eskatu zaio (legezko forman). Paraleloki, erakunde hau hainbat eragilerekin ibiltzen da elkarlanean (Fiskaltzarekin, UPV-EHUko Nazioarteko Zuzenbide Sailarekin eta abarrekin); bada, kontsultak egin zaizkie, elkarrekin baloratu edo hausnartu dezagun administrazio dokumentazioa kentzearen eta zalantzan jarriko ez den beste bat eskuratzeko ezintasunaren ondorioz pertsona horiek pairatzen duten zaurgarritasun egoeraren gainean.

Atal honetan, Herriaren Defendatzaileari igorritako jardue-ra ere aipatu behar dugu, goian aipatutako tutoretzapeko bost adingabeen atxilotetaren harira Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak egindako informazio tratamenduari dagokiona, zehazki, horrek Gipuzkoan argitaratutako prentsa-oharrari buruzkoa. Aipatu prentsa-oharra ekainaren 10ean argitaratu zen, eta oihartzun mediatikoa eduki zuen. Bertan, immigrazioaren gaineko irudi sozialari eragin zioten baieztapenak egin ziren, eta, zehazki, lagunduta ez dauden adin txikiko etorkinen talde zaurgarriaren irudiari eragin zioten. Arartekoaren iritziz, prentsa-oharrean ez ziren poliziaren jardueraren gaineko datuak jasotzera mugatu, izan ere, errugabetasun-presuntziarako eskubidea urratu lezaketen balorazioak egin ziren. Egiaztatu ez ziren delituak egin izana aipatu zen oharrean, dei efektua egon zelako balorazioak jaso ziren, edota pertsona helduek burututako *modus operandi* izan zela adierazi zen. Erakunde honen aburuz, informazioaren tratamendua arretatsua goa izan beharko litzateke, eta kontuan hartu beharko litzateke adingabeei buruzkoa izan daitekeela kontua eta adin txikikoaren interes gorena-ren printzipioak agintzen duela hor. Era berean, Arartekoaren **gomendio orokorra** aipatu genuen, immigrazioari buruzko informazioaren tratamenduen gainekoa: *“Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen mendeko polizi kidegoek jokaera-kodeak erabili behar dituzte immigrazioari buruz ematen duten informazioaren tratamendurako”*.

Arartekoaren iritzia helarazi diogu Herriaren Defendatzaileari, zera esanez: auzitegiei dagokiela jokaeren prozedura egitea eta komenigarria dela irizpide arduratsu eta neurtua edukitzea etorkinen jarduerari buruzko poliziaren informazioari dagokionez, informazioa bereizkeriaren sorkuntzarako, erreproduktzioarako eta berau sendotzeko tresna bihurtzea saiheste aldera.

2.3.6. Genero indarkeriaren eraginpean dauden haur eta nerabeak

Adierazi dugun bezala, 2015eko uztaileko lege aldaketak genero indarkeriaren eraginpean dauden haurrak indarkeria horren biktima zuzentzat aitortzea ekarri du, hainbeste desio zen bezala. Biktima estatusa esleitura, alde batetik, neurri zibilak eta penalak prozeduraren subjektu bat gehiagotzat hartzea bermatuko da, eta, bestetik, etxean indarkeriaren eraginpean egoteak bere izaeran eta garapenean duen eraginari buruzko balorazioa egitea ekarriko du, ondorioz, haur horien sufrimendurako erantzun espezifiko egokiagoak eratuz, amerikako esku-hartzeak zeharka ekarriko dietetik harago.

2014an, **Emakunde** eremu horretan egindako lanaren berri eman genuen, *etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasotzen dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen Arteko II. Akordioaren* Segimendurako Batzordeko erakundeen arteko talde teknikoaren markoan egindakoaren berri, hain zuzen ere. Erakunde honek modu egonkorreran hartzen du parte aipatu taldean. Urte hartan amaitutako diagnostiko partekatuari dagokionez, nabarmen aurreratu da lan egitasmoa eratzeko orduan. Lan egitasmo horrek aintzat hartuko ditu seme-alaben ikuspuntua eta eurekin egin daitezkeen balizko esku-hartzeak, bai aipatu II. akordioeko protokoloetan, bai beharrezkoak izan litezkeen espazio guztietan. Lan hori 2016ko lehen hilabeteetan bukatzea aurreikusi da.

Haur eta nerabe horiek genero indarkeriaren biktima gisa dituzten beharren arreta ere **FIOko Emakumeen Sarearen** topaketan xede izan da. Vitoria-Gasteizen egin zen aipatu topaketa, ekainean, eta anfitrioi lanetan jardun zuen Ararteko erakundeak. **Jardunaldi horien ondorioetan** jaso dira jorratutako kontuen gaineko xehetasunak.

2.3.7. "Lapurtutako haurtxoak"

2015ean, aurreko hamarkadetan itxuraz lapurtutako edo irregularki banandutako haurtxoei buruzko kexak eta kontsultak jasotzen jarraitu dugu; hala ere, aurreko urteetan baino kopuru txikiagoan. Gogoratuko den bezala, kontu hori 2011ko gomendio orokor baten xede izan zen (*uztailaren 13ko 1/2011 Gomendio Orokorra*, 1960. eta 1970. hamarkadetan ama biologikoei haurtxoak lapurtu edo irregularki horiengandik banandu izanari eragiten dioten egitateak argitzeko neurriei buruzkoa), eta, urtez urte, horren segimendua egin dugu.

Gure herri-administrazioek gai horren inguruan emandako erantzunari buruzko berrikuntzarik ezagutu ez dugunez, dauden baliabideen gainean informatzea eta nahi zehatzetan orientatzea izan da demanda jarri dutenekiko jarduerak. Zehaztasunez azaltzen dira **auzi bidera jo gabe** euskal epaitegietako Biktimen Arretarako Zerbitzura jotzeko aukerak, Eusko Jaurlaritzak bere egunean artikulatu zituen mekanismoetara sartzeko xedez; bai eta, jatorri biologikoa eta identitatea jakin nahi den kasuetan, Justizia Ministerioak ikerketarako prestatu zituen dispositiboaren funtzionamenduaren ezaugarriak azaldu ere (eragindakoek laborategi pribatuaren eskuratu dituzten eta gero aurkeztu dituzten ADNaren profilak Toxikologia eta Auzitegi Zientzien Institutu Nazionalaren datu-basean txertatzeko aukera ematen dute, kointzidentzia genetikoak zehazte aldera).

Edonola ere, aipatu dugun gomendioaren xedea berreskuratuz

"...abian diren prozedura judizialak alde batera utzita, jarduerak zehatzak jarri behar dira martxan egintzak zehatz-mehatz ezagutzeko, kaltetuei ordaintzeko neurriak proposatzeko, aplikatu ziren araudiak aztertzeko, orduz geroztik gauzatu diren araudi-aldaketak nahikoa izan ote diren baloratzeko eta, hala behar izanez gero, lege-aldaketak proposatzeko. Beraz, egintzak argitzea, kaltetuei ordaintzea eta, etorkizunean halako gertakiririk errepikatzea ekidite aldera, sistema juridikoa

aztertzea ahalbidetuko duten ekintza ezberdinak gauzatzeko premia planteatzen du ebazpen honek".

erakunde honek interesgarritzat jo du 2012ko martxoan Eusko Legebiltzarraren IX. legealdia amaitu zenean argitu gabe geratu ziren egitateak argitzeko asmoz eratu zen Legebiltzarreko Batzordearen lana berritzea.

2.4. Familia babeslea izateko eskubidea

18. artikulua

1. *Bi gurasoek dituzte betebeharrak haurra hazi eta hezteko garaian, eta estatu kideek indar guztiak jarriko dituzte printzipio horren onespina bermatzeko. Gurasoei edo, hala dagokionean, legezko ordezkariari dagokie haurra hazi eta garatzearen erantzukizuna. Estatuaren ardura garrantzitsuen haurraren interesa izango da.*
2. *Hitzarmen honetan jasotako eskubideak bermatu eta sustatzeko, estatu kideek laguntza egokia emango die gurasoei eta legezko ordezkariari, haurra hazteko betebeharraren behar bezala joka dezaten; halaber, haurrak zaintzeko erakunde, instalazio eta zerbitzuen sorrera bultzatuko dute.*

Arartekoak, arlo honetan, familiak babesteko politika publikoak bultzatu eta indartu daitezkeen sustatzen du, familia-eredu askotarikoaren garrantzia kontuan hartuta. Zuzenbideak aintzatsiak ditu familia-ereduok, eta zenbait kasutan arreta berezia behar izango dute, beren funtzioak betetzeko behar dituzten prestazio guztiak erabateko berdintasunez eskuratzeko.

2.4.1. Araudi-eta gizarte-testuingurua

Espainiar **Estatuko eremuan** familiei zuzenean eragiten dieten bi berritasun nabarmendu behar ditugu 2015ean: alde batetik, 2015eko maiatzaren 14ko Ministroen Kontseiluaren Akordioak onartutako **Familiei Laguntzeko Plan Osoa 2015-2017**, eta, bestetik, haurrak eta nerabeak babesteko sistema moldatu duen **uztailaren 28ko 26/2015 Legeak** familia ugariari buruzko gaietan burutu dituen aldaketak.

Familiei Laguntzeko Plan Osoari dagokionez, honakoak jaso ditu bere xedeen artean, bereziki aipagarriak izaki: familien babes sozial, juridiko eta ekonomikoan aurrera egitea, zahartzearekin eta jaiotza-tasa baxuarekin lotutako erronka soziodemografikoei aurre egitea amatasunari lagunduz, belaunaldi arteko eta familia barruko elkartasunari laguntzea, zaugarritasun bereziko egoeran dauden familiei laguntzea, familiaren egoeran jatorria duten desberdintasunak eraztea.

Haurrak babesteko sistema moldatu duen **uztailaren 28ko 26/2015 Lege** berria dela eta, bosgarren azken xedapenean aldatu egin du familia ugariak babesteko **azaroaren 18ko 40/2003 Legearen** 6. artikulua. Horrela, familia ugariaren tituluaren indarraldia hedatu egin da, familia ugariak partaide izateko legez ezarri diren adin irizpideak betetzen jarraitzen badu seme-alabetako batek gutxienez, oro har ezartzen den titulua baino azpirago dagoen tituluko partaide izateko baldintzak betetzen dituzten seme-alaba guztien kopurua izan

arren. Familia ugarietako adin txikiko seme-alabek familia ugariko kide izaera ez galtzea da kontua, anai-arreba nagusiek familia ugariko partaide izateko ezarri den gehieneko adina gainditzen dutenean.

Gainera, familiei dagokienez, 26/2015 Legeak laneko baimenen hedapena jaso du, etorkizuneko guraso biologikoak erditzerako presta daitezten eta etorkizuneko guraso adoptatzaileek eta hartzailerek adopzioaren eta harreraren prestakuntza administratiboa eta burokratikoa egin dezaten.

Autonomia erkidegoan, 2015ean, funtsean aldatu dira, Eusko Jaurlaritzaren bi dekretuen aldarrikapenaren bidez, familiei laguntzeko bi ildo nagusiak, hau da, seme-alabengatik laguntza eta familiako bizitza eta lanekoa bateragarri egiteko laguntza deiturikoak. Horrela bukatu da familiei laguntzeko euskal laguntza guztiak errenta estandarizatuaren irizpidera egokitzea. Familiei laguntzeko [abenduaren 12ko 13/2008 Legearen](#) 6. artikuluan dago jasota errenta estandarizatuaren irizpidea, eta 2012an garatu zen, familiako errentaren estandarizazio sistemari buruzko [uztailaren 24ko 154/2012 Dekretuaren](#) bidez.

Horrela, alde batetik, familiako bizitza eta lanekoa bateragarri egiteko dekretua moldatu duen [martxoaren 17ko 31/2015 Dekretuak](#) aldaketa nagusi gisa sartu du familiako errenta estandarizatuaren irizpidea aplikatzea seme-alabak zaintzeko xedez eszedentzian edo lanaldi murrizketan dauden langileentzako laguntzen ildoetan, bai eta mendekotasun egoeran dauden edo osasun egoera larrian dauden senideak zaintzeko xedez eszedentzian edo lanaldi murrizketan dauden langileentzako laguntzetan ere, eta, bestalde, aipatu irizpidea aplikatu daitezkeen laguntza ildo guztietara sartzeko atalase berberak egon daitezela ezarri du, hala nola, laguntzen onuradunei dagokien laguntzaren zenbateko zehatza zehaztuko duten alderdiak berberak izan daitezela.

Beste alde batetik, iaz ere adierazi genuen kontratazio egonkorrari laguntzeko eta langileen enplegarritasuna hobetzeko neurri buruzko [abenduaren 20ko 16/2013 Lege Dekretuak](#), 1. artikulua bidez, hainbat aldaketa sartu zituela Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginean, eta, era berean, aipatu legearen 37. artikulua ere aldatu zuela. Horrela, norberaren zaintzapean dauden seme-alabek 12 urte bete arte heldu ahalko diete langile guztiak familiako bizitza eta lanekoa bateragarri egiteko neurriak. Horrekin, parekatu egin dira besteren kontura lan egiten duten langileen eta enplegatu publikoen eskubideak, lana eta familia bateragarri egiteko eskubideei dagokienez.

Bada, moldaketaren horren harira, seme-alabak zaintzeko lanaldi murrizketetan edo eszedentzietan diruz lagundu daitezkeen egoeren edukia ere legeko marko berriari egokitu nahi izan dio Eusko Jaurlaritzak. Horren ondorioz, legeko zaintzagatik lanaldi murrizketari heltzen dioten langileentzat benetan eragingarria izan dadin egindako aldaketa, diru-laguntzen gehieneko mugak ere aldatu dira, aipatu dekretuaren 9. artikuluan aurreikusitakoak.

Bestalde, *seme-alabak zaintzapean dituzten familiak babesteko laguntza ekonomikoak* buruzko [martxoaren 17ko](#)

[30/2015 Dekretuaren](#) helburua da seme-alabak dituzten familiak babesteko laguntza ekonomikoaren erregulazio berria egitea. Familiako errenta estandarizatuaren irizpidea laguntzen ildo guztietara (eta laguntza horien babespean diruz lagundu daitezkeen egoera guztietara, seme-alabak zaintzapean edukitzeagatik laguntzen kasurako) hedatzeak gidaduko du, nagusiki, aipatu erregulazioa. 2015eko apiriletik aurrera jaiotako seme-alabei aplikatuko zaie aipatu dekretua. Seme-alabak kargura edukitzeagatik laguntzei, erditzeagatik edo adopzio nazional anizkoitzagatik laguntzei eta nazioarteko adopzioagatik laguntzei eragiten die horrek, eta ondorioak dauzka horien onuradunei dagokien laguntzaren zenbatekoan. Erregulazio berriak, laguntzak justizia materialeko irizpide egokiago baten arabera banatzen dituen arren, familia bakoitzaren benetako errentaren egoera hartzen baitu kontuan, oro har -aurreko [255/2006 Dekretuan](#) jasotako erregulazioarekin alderatuta- laguntzen zenbatekoak murriztea ekarri du, eta errenta ertain baxuei (urteko 20.000 eta 30.000 euroko errentei) egiten die kalte bereziki.

Bestetik, era berean aipatu beharra dugu -euskal familia askotan itxuraz edukiko duen eragina dela-eta- Eusko Jaurlaritzak 2015ean aldarrikatu duen legea, hots, *gurasoak banantzen diren kasuetan familiako harremani buruzko [ekainaren 30eko 7/2015 Legea](#)*. Xede bikoitza dauka legeak; batetik, adin txikiko seme-alaben interes gorena babestea, eta, bestetik, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea. Bada, legea gurasoen baterako erantzukizunaren printzipioaren bidez gauzatu nahi da, seme-alabak dituzten bikoteak banantzen diren kasuetan. Legez ezarritako aipatu printzipioak -besteren artean- zera dakar, organo judizialak zaintza partekatua hitzartzea seme-alaben zaintzaren erregimenari buruzko hitzarmenik ez dagoen banantze kasuetan, alde batek eskatzen badu eta adin txikikoaren interesaren aurkakoa ez bada, betiere legeko betekizunei jarraiki. Erakunde honek hainbat aldiz adierazi du horrelako erregulazio baten egokitasuna, bai haurren intereserako, bai emakumeen eta gizonen berdintasun erreal eta eraginkorra ziurtatzeko. Itxaropena dugu lege horrek agerian utziko duela tradizionalki emakumeek burutu duten zaintzaren balioa, gizonen ere berdintasun baldintzetan euren gain hartzen duten neurrian. Erronka handia da hori gizarte osoarentzat, lehentasunezko xede sozial, ekonomiko eta kultural gisa txertatu behar baitu familiako bizitza eta lanekoa bateragarri egitea.

2.4.2. Kexetan pozik ez egoteko azaldu diren arrazoiak

Seme-alabengatik laguntzei buruzko euskal legeriaren babespean eskatu diren laguntzen ukapena dela-eta, kexak jasotzen jarraitu dugu 2015ean ere, baina ez aurreko urteetan bezainbeste. Horietan guztietan, arazo formalak planteatu dira, funtsean, aipatu laguntzak eskatu ahal izateko eskatzen den dokumentazioari buruzkoak. Aurreko txostenetan jada, kasuistikaren eta erakunde honek gai horren gainean egindako balorazioaren gaineko azalpena eman dugu, interesdunei eman beharreko informazioan hobekuntzak proposatuz, Eusko Jaurlaritzako Zuzenean zerbitzuaren aurrean prozedura irekitzetik hasita.

Puntu horretan, aurreko urteetan egin dugun moduan, seme-alabak jaiotzeagatiko laguntzen emakida automatizatzeko egokitasuna berretsi behar dugu, eskaera-izapide baten mende egon beharrik gabe, gero eta konplexuagoa baita izapide hori interesdunentzat, eta, zalantzarik gabe, laguntza horiek jasotzetik baztertzen baititu, praktikan, laguntza horien onuradun izan daitezkeen pertsona asko.

Aurten protagonismo berezia hartu dute **lana eta familia bateragarri egiteko** Eusko Jaurlaritzaren laguntzekin zerikusia duten kexak. Horien artean, garrantzi berezikoak iruditzen zaizkigun bi gai nabarmenduko ditugu:

Alde batetik, kexa-espeditate bat izapidetu dugu. Bertan, agerian jarri da familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak arautzen dituen [dekretuaren](#) 4.2. artikulua aplikatzeak sortutako balizko disfunzioa, bigarren atalean berariaz **salbue-tsi** baitu amatasunagatiko baimenaren aldiari laguntzak emateko aukera, zera ezarri duenean: *“ezingo dira diruz lagundu amatasunagatiko edo aitatasunagatiko baimenarekin bat egiten duten aldiak”*. Gure azterketaren pean dagoen kasuan, interesdunak lanaldi murrizketa zuen, eta adin txikiko semea zaintzeko jasotzen zuen laguntza jasotzeari uztea ekarri du xedapen horrek, bigarren semeaz erditu baita; izan ere, aipatu laguntza ez da bateragarria gozatu nahi duen amatasunagatiko baimenarekin, nahiz eta amatasunagatiko baimena lanaldi murrizketaren erregimenetik abiatuta gozatuko duen (lehenengo semea zaintzeagatik), eta Gizarte Segurantzaren prestazioa jasoz, murriztua hori ere, lanaldi osoarekin jarraituz gero jasoko zuenarekin alderatuta. Kontua Eusko Jaurlaritzaren balorazioaren mende utzi ostean, iruditu zaigu, kasu horretan araua hitzez hitz aplikatu bada ere, aipatu xedapena aurreikusitako gabeko efektuak edukitzean ari dela kasu zehatzean. Efektu horiek direla-eta, zalantzarik gabe, arauko xedapena amatasunagatiko bereizkeriazko efektuak eragiten ari ote den sakon aztertu beharrean gaude.

Bereziki aipatu beharreko beste kontu bat dakarkigu orain, haur baten amak erakunde honen aurrean azaldu zuena. Haurrak %33ko ezintasuna dauka, II. mailako mendekotasun egoeran dago eta gaixotasun larria dauka. Bada, lanaldi murrizketa zela-eta Eusko Jaurlaritzatik jasotzen ari zen laguntzak (orduan, %33koak) mantendu nahi zituen amak, adin txikiko semea zaintzeko xedez lanaldiaren %99 murriztu ondoren, haurra, gainera, minbiziak jo zuen-eta. Kasua zehazki aztertu ondoren (bereziki konplexua eta xehetasun ugariakoa zen), Arartekoak gomendioa bidali zion Eusko Jaurlaritzari ([Arartekoaren 2015eko uztailaren 29ko Ebazpena](#)), interesdunak adin txikiko semea zaintzeko xedez eskatu zituen laguntzen ukapena atzera botatzeko eskatuz, familiako bizitza eta lanekoa bateragarri egiteko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren II. atalaren babespean.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailaren erantzuna positiboa izan da. Sailak bere adostasuna agertu du, diruz laguntzeari dagokionean, laguntzak erregulatze-ko dekretuak lanaldiaren gehieneko murrizketa zehaztu ez duela esatean. Ondorioz, aurrerantzean, 12 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko lanaldi murrizketen barruan sartuko dira, Langileen Estatutuaren arabera, bai helburutzat legezko zaintza dutenak, bai minbizi edo bestelako gaixotasun larri-

ren bat duten eta zaintzapean diren adin txikikoak zaintzeko direnak.

Era berean, **laneko baimenak** gozatzeari buruzko hainbat kexa eta kontsulta jaso ditugu, honako gaiekin zerikusia dutenak: ezkontideen eskubideak izateko bikoteen eskubi-deekin parekatzea, seme-alaben zaintza, edo familiako beste betebeharrak batzuk, hala nola, eta gizonen kasuan batez ere, bikotekidearen erditzeko prestakuntza laguntzea. Kasu askotan, eremu pribatuko kontuak izaten dira, eta erakunde honek ez du horien gaineko eskumenik, baina enplegu publikoaren arlorako ere azaldu dira. Erditzeko prestatzeko teknikak egiteko baimenen kontua dela eta, adierazi behar dugu ez [Langileen Estatutuko 37.3. artikuluan](#), ezta ere haur eta nerabeen babes-sistema aldatzeko [uztailaren 28ko 26/2015 Legearen](#) azken xedapenetatik 3.ean horretaz egin den aldaketan, ez da berariaz aipatzen eskubide hori onartzen zaien langileen sexua. Horrelaxe helarazi diogu eragindako erakundeari. Alabaina, erakunde publiko guztiek oraindik ere laneko baimen hori aitortzen ez dutela egiaztatu ahal izan dugu, seme-alaba edukitzekotan diren gizonei dagokienez.

Laugarren kexa-multzoak zerikusia du foru aldundiek familia ugarien gaineko legedia aplikatzeko moduarekin. Legedia horrek ezarri ditu familia ugariak jartzeko betekizunak, familia horietako kideei onura ekonomiko zenbaitzuz gozatzea ahalbidetzeko xedez. Testuinguru honetan aipamen berezia merezi du, gure aburuz, herritar batek azaldutako kontua. Hiru seme-alabaren aita dibortziatua da bera, eta zaintza partekatuko erregimenean daude horiek. Bizkaiko Foru Aldundiak, dibortzioaren ostean eta familia ugariak babesteko [azaroaren 18ko 40/2003 Legea](#) aplikatuta, gurasoetako bat hautatzeko beharra jakinarazi dio kexagileari, familia ugari kide izaten jarraitzeari begira, eta, ondorioz, beste gurasoa aipatu titulartasunik gabe geratuko dela adierazi dio, familia ugari kano geratuko litzateke-eta. Herritar horrek uste du gurasoetako bat familia ugari kano geratuko uste du gurasoetako bat familia ugari kano geratuko kasuko baldintzak, hiru seme-alabekin bizikidetzara eraginkorra gertatzen baita. Familia ugari buruzko aipatu estatuko legedia aztertuta, eta egia izan arren aipatu xedapenak seme-alaben eta gurasoetako baten arteko bizikidetzara eraginkorra eteten den dibortzioen kasuan gurasoetako bat hautatu behar dela eskatzen duela, familia ugari kano geratuko delako izateari begira, erakunde honen iritzi ez da kontuan hartzen zaintza partekatua, bi gurasoekin jarraitzen baitute seme-alabek bizikidetzara eraginkorra edukitzean. Horregatik, eta eremu horretan dagoen legezko hutsunearen aurrean, zaintza partekatua instituzio berri samarrari dagokionean, kasu horietan aipatu xedapena ez aplikatzeko aukera aztertu beharko litzatekeela uste dugu, eta bi gurasoen titulartasunari eutsi beharko litzaikeela, familia ugari kide izaten jarrai dezaten, familia ugari buruzko aipatu legearen 2.1. artikuluan jasotako arau orokorra aplikatuz. Horrelaxe helarazi diogu Eusko Jaurlaritzari, familia ugarien tituluen kudeaketan eskumena duten foru erakundeek xedapen hori aplikatzeko irizpide homogeneoa formulatu dezan –kontuan hartuta, era berean, gurasoak bariantzen diren kasuetan familiako harremanei buruzko [ekainaren 30eko 7/2015 Legearen](#) duela gutxiko aldarrikapenaren bidez Eusko Jaurlaritzak adierazitakoa-.

Azken kexa multzoak ezaugarri komun bat dute: familiei laguntzeko politika publikoek 2014an aurkeztu genuen txosten berezian “era askotako familiak” deitu genituenekin lotura izatea. Horien artean, aipagarriak dira gai honekin zerikusia duten hainbat kexa: lesbianen bikoteek, biologikoa ez den amaren seme edo alabaren semetasuna edo alabatasuna inskribatzeko orduan, oraindik ere dituzten arazoak. Hainbat arazo juridiko sortzen dira arrazoi horregatik, eta guztiak [Erregistro Zibilaren](#) jarduerarekin lotuta daude. [Uztailaren 13ko 19/2015 Legeak](#), [Justizia Administrazioaren eta Erregistro Zibilaren arloan administrazio-berrikuntza egiteko neurriei buruzkoak](#), aldaketa garrantzitsuak egin ditu erregistroaren gaineko araudian. Aldaketa horietako bat hau da: beste emakume batekin ezkontuta dagoen emakumeak baimena eman behar du (lege horren 44.5 artikulua) bere alde erabaki dadin bere ezkontidearengandik jaiotako seme edo alabaren semetasuna edo alabatasuna. Kexak eta kontsultak bi gairekin lotuta egon dira: lehena, ondorio horietarako, ospitaleek nola interpretatzen dituzten -2015eko urriaren 15etik aurrera, ospitaleetako langileek ume jaio berriak Erregistro Zibilean inskribatzeko aukera dago- [maiatzaren 26ko 14/2006 Legeak](#), [lagundutako giza ugalketarako teknikei buruzkoak](#) ezarri dituen baldintzak; bigarrena, adierazpen hori eskatzea diskriminatzailea izan daitekeela senar-emazte heterosexualekin alderatuta, bada, horien kasuan, senarra aita dela uste izaten da.

Hala eta guztiz ere, ezin dugu alboratu egun indarrean dagoen araudiak –ama bien aldeko seme-alabatasuna legeak onartzekoa– ezartzen duena: hain zuzen, emakume horiek ezkontuta egon behar dute eta seme-alabek laguntza bidezko ugalketako teknikak erabiltzearen ondorioz jaiotako izan behar dute. Bi baldintza horiek biltzen ez badira, ama biologikoaren bikotekidearen aldeko seme-alabatasuna ezartzea adopzio prozesuaren bidez baino ezin da egin, ezkontza zibilaren esparruan edo izatezko bikoteei buruzko erdiko mailako legerian jarraiki. Ildo honetan, aipatu behar dugu, Estatuko legegilearen aukera denez, Arartekoaren erakundeak ez du eskumenik estatutu juridiko hura zalan-tzan jartzeko. Hala ere, jakin badakigu araudi horrek pertsonen arteko berdintasunaren printzipioa kaltetzen duten disfunczioak sor ditzakeela, nekez justifika daitezkeen desberdintasuna eragiten baitu bikote heterosexualak eta sexu bereko bikoteak tratatzeko moduan. Kontu horrekin zerikusia duten kexa eta kontsulten kopurua igotzeak konpondu gabeko eta etorkizunean berriro aztertu beharreko arazoa dela erakusten du.

2.4.3. Banantze- eta dibortzio-prozesuetan haur eta nerabeei eman behar zaïen arreta berezia

Banantze- eta dibortzio-prozesuei dagokienez, oraindik ere kexa asko jasotzen ditugu seme-alabak dituzten eta banandu diren pertsonengandik, gurasoak direla eta legeak esleitzen dizkien eskubideak eta betebeharrak betetzeko zailtasunak izaten dituztelako, adibidez, seme-alabaren osasun-kontuei edo hezkuntza-bilakaerari buruzko informazioa lortzeko oztopoak jartzea; gurasoen baimenik gabe administrazio-egintzak burutzea, hala nola, errolda-aldaketa edo ikastetxez aldatzea; seme-alabekin lotutako ziurtagiriak ez

ematea. Arrazoi horientzat, erakundeak jada eman zuen bere iritzia azaroaren 15eko [8/2011 Gomendioan](#), baina, urtea joan eta urtea etorri, berriz gogorarazi beharra daukagu.

Horren erakusgarri da aurten hezkuntza arloan gertatutako kasu bat: banandutako guraso batek adierazi du bere alaben zaintza eman ez badiote ere, horien gaineko guraso-ahala aitortuta daukala, eta hainbat aldiz saiatu dela jakiten ea bere alabek ikasteko bekarik edo bestelako laguntzarik jasotzen duten, baina ez duela informazio hori eskuratzerik lortu.

Bere kexan eman zigun bertsioaren arabera, heziketa zentroaren beraren ezezkoaz gain, hezkuntza ikuskaritzak berak erantzun eskasa eman ziola zirudien, izan ere, azalpen gehiagorik eman gabe, “*ohiko informaziorako eskubidea baino ez duela*” adierazi baitzion horrek.

Kexa izapidetzen hasita zegoela egiaztatu ahal izan genuen, hain zuzen ere, [Eskola Zentroen Zuzendaritzak 2011ko azaroan egindako jarraibideen](#) edukari heldu ziola hezkuntza ikuskaritzak lehenengo erantzunean, eta, jarraibide horien arabera, zentroak ezin zezakeela bekei buruzko inolako informaziorik eman argudiatu zuen, kexagileak azaldutakoari men egiteak datu pertsonalak tratatzeko beharrezko konfidentzialtasunari eragin ziezaiokeelako. Aipatu jarraibideak informazio-eskaerari eta eskola zentroa aldatzeari buruzkoak ziren, guraso bananduen edo dibortziatuen edo jada elkarrekin bizi ez diren izatezko bikoteen kasuetan aplikatzekoak.

Ondorioz, jarraibide horien edukia gorabehera, erakunde honek ohartarazpena egin behar izan zuen, adieraziz hezkuntza administrazioak orokorrean, eta, kasu horretan, hezkuntza ikuskaritzak zehazki, ezin zezaketela baztertu kexagileak egindako informazio-eskaera Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen [azaroaren 26ko 30/1992 Legearen](#) 35. artikuluan herritarrei aitortzen zaïen sarbiderako eskubidean babestuz, ezta ere lehen aipaturiko gomendioaren gogoetetan azaldutako arazoibide juridikoak.

Hezkuntzako arduradunek, azkenean, kontuan hartu zituzten erakunde honen oharrak, eta hainbat aldiz eskatu zuen informazioa eman zioten interesdunari. Hala ere, komenigarria izango litzateke [Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak](#) jarraibide horiek berraztertzea, horiek interpretatzerakoan sor daitezkeen zalantzak deuseztatzea.

Kezka handiz ikusten ditugu gurasoen banantze- eta dibortzio-prozesuetan haurrek jasan behar duten egoerari buruzko kexak, haien izaera desberdina izan arren. Gai eta arlo askoren gainean formulatzen dira eta islatzen dute bikote-harremana hausteko dakartzan komunikatzeko zailtasunek eta gatazka askoko egoerek seme-alabengan izaten duten eragin larria. Hortaz, hainbat kexa aztertu ditugu, honako hauekin zerikusia dituztenak: administrazio-kudeaketak egiteko zailtasunak; familia-elkarguneen funtzionamenduari eta bertako profesionalen erabakiei buruzko salaketak; profesional horiek eta epaitegietako lantalde psikosozialek egindako txostenak, e.a. Ondorioz, alde biei eskatu nahi diegu, beste

behin, arduraz joka dezatela eta, adingabeen interesa zaintzearen, komunikazioa lortzeko ahaleginak egin ditzaten, desadostasunik egonez gero epaiaren erabakia alde batera utzi gabe.

Azkenik, adierazi behar da zaintza partekatua erakunde honetara iristen diren gaietako bat dela oraindik ere, aurten kontsulta moduan bereziki, *ekainaren 30eko 7/2015 Legea, gurasoak banantzen diren edo harremana hausten den kasuetako familia-harremanei buruzkoa* onartua izan ondoren (txosten honen 2.4.1. atalean aipatu dugu hori).

2.4.4. Familiei laguntzeko politikak Euskadin: azterketa eta proposamenak Arartekoaren txosten bereziaren jarraipena

2015eko azaroan Arartekoaren aipatu *Familiei laguntzeko politikak Euskadin: azterketa eta proposamenak* txosten berezia Eusko Legebiltzarraren aurrean aurkeztu ondoren, bertan jasotako gomendioetako batzuen (xehetasun handiagoz aipatu genituen horiek iaz Eusko Legebiltzarrari aurkeztutako txostenean) eragina ezagutu nahi izan dugu, eta horren gainean duen jarrerari buruzko informazioa eskatu diogu Eusko Jaurlaritzari horretarako. Zehazki, eta, alde batetik, zaugarritasun egoeran dauden familiei buruzko euskal marko juridikoa garatzeko gomendioak abiarazteko neurriak hartu diren jakin nahi izan dugu, bai eta erakundeen antolakuntza hobetzeari zuzendutako gomendioak abiarazteko neurriak hartu diren ere, familientzako informazio gailu integralak sortzeko asmoz foru aldundiekin elkarlanean aritzeari dagokionez, eta familientzako laguntza ekonomikoari buruzko hausnarketa estrategikoa zein egoeratan dagoen ere jakin nahi izan dugu. Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzak gurasotasun positiboa erabiltzea errazteko jarri dituen neurriak buruzko informazioa eskatu dugu.

Familietan eta haurtzaroan erakunde arteko inbertsiozko estrategia (udalen eta foru aldundien inplikazioarekin) egiteko proposamenari buruzkoa izan da Familia Politika eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak igorritako erantzunaren alderdi aipagarriena. Horrekin, familiei buruzko euskal politikak gizarte inbertsioaren paradigmari egokitzea bilatu nahi da, bai eta pertsonak nahi duten seme-alaba kopurua eduki dezaten oztopoak ezabatzeari egokitzea eta haurren pobrezia eta desberdintasunaren prebentzioari egokitzea ere. Hau da, **Haurren eta Familien aldeko Herri Hitzarmena** deiturikoa lortu nahi da. Garrantzitsua da, gure ustez, estrategia eta hitzarmen horien bidez biztanleria zahartzetik eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak dituzten familietatik eratorritako beharrei ere adierazpena eta lekua egitea. Era berean aipatu da familiaren ongizateari zuzendutako baliabide eta prestazio guztiei buruz informatuko duen erakunde arteko atari publikoa sortzea estrategia horren markoan. Familientzako informazio gailu integralen eskariari erantzun-go lioke horrek. Ondo baloratzen dugu erakunde arteko estrategiaren ekimena, baina garatu egin behar da oraindik. Halere, gure arreta bereganatuko du etorkizun hurbilean.

Gainerakoan, Eusko Jaurlaritzak gurasotasun positiboa sustatzeko eremuan hartutako neurrien inguruan informatu

gaitu. Erakunde honek oso ondo baloratu du Eusko Jaurlaritzaren eremu horretan edukitzen ari den lidergo gaituaren zeregin nabarmena, albo batera utzi gabe Eusko Jaurlaritzak hautematen dituen erronkak, gaur arte artikulatutako programak gizarteko beste sektore batzuetara (herrietara, hirugarren sektore eta hezkuntza eremura) hedatzeari dagokionean, edota erditu aurreko fasera hedatzeari dagokionean, eta, gizonak zaintza-lanetan modu aktiboan inplikatu, familia barruko eta generoko indarkeriaren prebentziara hedatzeari dagokionean.

2.5. Osasunerako eskubidea

24. artikulua

1. Haurren eskubidea da osasun-mailarik altuena izatea eta gaixotasunak zaintzeko eta osasuna errehabilitatzeko zerbitzuak erabiltzea. Estatu kideek eskubide hori onartzen dute eta haur guztiek eskubide hori izateko eta zerbitzu horiek gozatzeko aukera izan dezaten lan egingo dute.

2.5.1. Euskal osasun sistemari egindako kexak

Araudi- eta gizarte-testuinguruari dagokionez, adierazi behar dugu *uztailaren 21eko 147/2015 Dekretua* onartu dela; horren bidez onetsi egin da pertsonak Euskadiko osasun sisteman dituzten eskubideen eta betebeharren adierazpena. Baina Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak errekurtsioa jarri dio arau horri.

Aurreko txostenetan, eta *Arartekoaren irailaren 24ko 8/2013 Gomendio Orokorrean* jaso genituen oharrak oinarritzat hartuta, eskatu genuen ekainaren 26ko 114/2012 Dekretuan ezarri zen eroldako urtebeteko muga berrikusteko; hau da, Estatuko Osasun Sisteman aseguratuta ez dauden edo haren onuradunak ez diren pertsonak osasun laguntza jaso ahal izateko.

Osasun Sailak argudiatu dituen egokitzeko araua aurkarazteko kautelazko neurriak ez dira apetaren arabekoak, baina gure zereginen ikuspegitik, urtebeteko errola-muga handitzearen alde gaude, hori eskatzeko inguruabarrak indarrean baitaude oraindik. Gaur egun gertatzen den bezala, instrukzio batek ez du ematen xedapen orokor batek adina segurtasun juridiko hartzaileentzat; horregatik pentsatzen dugu ez dela baztertu behar aipatu dekretua egokitzeko aukera. Modalitate tekniko bereziak ager daitezkeela onartzen dugu, baina osasun laguntza jasotzeko eskubidea kolektibo horrek ere jaso beharko luke benetan lurraldean bizi direla egiaztatzen bada.

Egiaz, **haur eta nerabeei dagozkien kexak** askotarikoak izateagatik bereizten den arlo honetan, 2015. urtean kezarik gehienak atzeritarrek osasun-laguntza jasotzeko dituzten zailtasunekin lotuta daude. Laguntza eske osasun-zentro batera joan direnean gertatu dira ezagutu ditugun arazoak, legeak zehazki laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen duen egoeretan. Bereziki, osasun-laguntzarik ez izateagatik haurdunaldietan laguntzeko dauden eragozpenak mintzo gara.

Kexa horiek erradiografia orokorra ez direla onartzen dugun arren, kexek bai erakusten dute aplikatu beharreko arauak interpretazio okerrak eragin ditzaketela batzuetan; hau da, [Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila](#), bide desberdinetatik, bezeroei arreta emateko zerbitzuetara, onarpen zerbitzuetara eta fakturazio zerbitzuetara helarazten ari den irizpideak betetzen ez dituzten interpretazioak sortzen dira zenbaitetan.

Ildo horretan, laguntza jasotzeko eskubidea aitortzeko eskabide guztiak formalki onartu behar dira, jatorria aurreikusitako gabe, aplikatu behar den araudi konplexuaren eta askotarikoaren arabera xehetasunez aztertu daitezten. Ohar hori ezinbestean egin behar zela uste dugu, kexa batzuetan ahoz jakinarazi baita eskabidea ez zela onartzen; eta, ondorioz, kasu horietan ezin izan dira kexak aztertu.

Kexa hauek ez dira antzuak, gaur egungo arau esparruaren arabera pertsona horien osasun laguntzako beharriak eman behar zaien arretari lotutako prestakuntza eta informazio alderdiak azpimarratzeko kontuan hartzen baitira. Kexetan arazoak dituzten osasun zentroak zehazten badira, horrek aukera ematen du osasun laguntza jasotzeko irizpideen gaineko prestakuntza handiagoa behar duten lekuak zeintzuk diren jakiteko.

Gainontzeko kexek gai hauekin dute zerikusia: lagundutako giza ugalketarako zerbitzuak, atzerapenak eta desadostasuna osasun-profesional batzuek emandako tratuekin. Multzo horretan aipatzekoa da ume transexual bati Gurutzetako Ospitaleko Genero Unitatean eman zioten tratuekin lotutako kexa bat (zehatz-mehatz azaldu dugu txosten orokorraren III.9 kapituluan, eta txosten honen dagokion atalean ere aipatu dugu).

Haur eta gazteen buru-osasunari dagokionez (berezi aztertzen ari gara gai hori txosten honen hasieratik) aurten bakar-bakarrik adieraz dezakegu ez dagoela berrikuntza handirik horiek artatzeko abiarazi diren baliabideetan, eta horixe dela herritarren kexen arrazoi nagusia. Alabaina, oraindik ere dramatismo handiko egoerei buruzko deiak eta kontsultak jasotzen ditugu; horietan, buru-osasuneko arazoak dituzten haur eta nerabeen familiak aholku, orientazio eta, azken batean, laguntza bila dabilta.

Aurten ere, buruko gaixotasuna duten pertsonen senideen elkarrekin berriro diote beharrezkoa dela hezkuntza arloan buru-osasuneko arazoak dituzten haurrak antzematea eta artatzea (sarritan eskola-komunitatearen jazarpena eta onarpenik eza nozitzen dute), baita irakasleei prestakuntza eta laguntza ematea ere.

Gaixotasun kronikoa duten adingabeak direla eta, Euskadiko Zeliakoen Elkartearekin izandako bilera aipatu behar da. Bilera horretan, haurrei dagokienez, hobekuntzak eskatu zituzten gaixotasuna goiz antzemateko orduan. Bestalde, 2014ko abenduan, Hiru Hamabi 3/12 elkartearekin bildu ginen; elkarte hori helburu honekin sortu zen: hartutako kalte zerebrala duten haurren familiak elkartzen eta adingabe horiek nahiz beren familiek bizi dituzten gehitutako arazoak arintzen ahalegintzea. Bilera horren ondorioz, Osakidetza-ri informazioa eskatu zaio nahasdura neurologikoen arloan

gaixo horiei ematen zaien arretaz. Haren erantzunean azaldutakoaren arabera (txosten orokorraren gaixotasun kronikoei buruzko III.4 kapituluan irakur daiteke), osasun arloan diziplina anitzen bitartez erantzuten zaie, pediatriako azpiespezialitate batzuek parte hartzen dutela eta haurren birgaitzen direla. Hala ere, ez da aurrera egin hezkuntza arloko artatze-lanean, baina Espainiako Herriaren Defendatzaileak gai honetaz iragarri duen azterlan monografikotik hausnarketa interesgarriak ondorioztatzea espero da.

2.6. Adingabe arau-hausleen eskubideak

40. artikulua

1. Lege penalak haustea leporatzen zaion haurrari edo hauste horren errudun izatea salatzen edo deklaratzeko zaionari bere duintasun eta adorea zentzua suspertu behar zaizkio, giza-eskubideak eta besteen oinarrizko askatasunak errespetatu ditzan, eta haurraren adina eta birgizarteratzearen garrantzia gogoan izanik, haurrak gizartean funtzio konstruktiboa har dezan.

Nahiz eta [Arartekoa sortu eta arautzeko legeak](#) 13.1. artikuluan argi eta garbi azaldu ez dela sendetsitako epaiaren gai izan edo epailaritzaren erabakiaren zain egon daitezkeen arrenkurak banaka aztertzen hasiko, alde batetik, adingabeen fiskaltzari eta, bestetik, adingabeen defentsan jarduten duten erakundeak, besteak beste, Arartekoari esleitutako haurren eta nerabeen eskubideak babesteko funtzioek bat egiteak berekin dakar, praktikan, bi instantzien artean sarritan informazioa eta kudeaketak trukatzeko komunikazio-kanal bat izatea.

Bestalde, 2015ean Herri Administrazio eta Justizia Sailarekin zerikusia izan duten jardueretako batzuk jada azaldu ditugu txosten honen beste puntu batzuetan (adibidez, familia babeslea izateko eskubideari buruzkoa). Horrela, gure ustez herritarrei ardura zaizkien arloetara hobeto egokitzen den aurkezpena egin nahi izan dugu, eta ez hainbeste eragindako administrazioaren arabera antolatutakoa.

Araudi esparruari dagokionez, aipatu behar dugu 2015eko irailean [2014-2018rako Gazte Justiziaren IV. Plana](#) aurkeztu dela. Aurreko planetan ezarritako eremuan sakontzen du eta ontzat jotzen dugu. Euskadi Estatuaren abangoardian dago arau-hausle adingabeak birgizarteratzean. Honako datu hauek adierazgarriak dira:

- Delitu bat egiteagatik Justiziarekin harremanetan jartzen diren adingabeen %80,4k ez du berriro legea hausten.
- Adingabeak tartean egonda, bitartekaritza judizialeko prozesuen %88,1 arrakastaz amaitu da. Delitua egin duten gazteen ia %90ek aitortu egin du, eragindako kaltearen kontzientzia hartu du eta aldean artean adostutako jardueren bidez –neurri judizialen orde– osatu du kaltea.

Hala ere, jasotako kexak aztertuta, Justizia administrazioan egoera hobetu daitekeela uste dugu, honako bi alderdi hauek:

- Bitartekaritza judizialeko prozesuetan adingabeen biktimak diren gazteek behar duten arretoa eta jabekuntza.
- Gurasoei informazioa ematea eta arau-hausleei entzutea, 14 urte baino gutxiago izateagatik, ez baitzaie aplikatzen [urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa](#), adingabeen erantzukizun penala arautu duena. Txostena amaitzeko egunean, arloari buruzko ikerketa bat irekita dugu, eta horren inguruan gomendio orokorra emango dugu 2016an.

Poliziaren arloari dagokionez, herritarren eskubideen gaineko **kexaren bat** egin da: hain zuzen, poliziak lapurreta bat egin zen lekura eraman zuen adingabe bat, susmagarria baitzen, lekuko bezala identifikatu ahal izateko, adingabearen gurasoei eta Adingabeen Fiskaltzari ekintza haren berri eman gabe eta lekualdaketa hura zertzat hartuta egin zen eta zer arautan oinarritu zen argitu gabe.

Polizia bulegoetara urtero egiten diren ikustaldietan, oraingo honetan Muskizeko Ertzaintzaren eta Erandioko Udaltzaingoaren atxiloketa-zentroetara, berriro egiaztatu da ez dagoela adingabeak zaintzeko berriazko gelarik, goian aipatutako 5/2000 Lege Organikoa eskatzen duen moduan.

2.7. Jolaserako, atsedenerako eta arte eta kirol jardueretarako eskubidea

31. artikulua

1. *Haurrak atsedean eta denbora-pasako, jolas eta bere adineko aisialdi ekintzetarako eskubidea du, eta honekin batera, bizitza kulturean eta artetan parte hartzekoa ere bai. Estatu kideek eskubide hori onartzen dute.*
2. *Estatu kideek errespetatu eta bultzatu egingo dute, haurrak bizitza kulturean eta artistikoan parte hartzeko duen eskubidea, eta horretarako aukera egokiak eskainiko dizkiote berdintasunaren baldintzapean.*

2.7.1. Eskola kirola

Jolaserako, atsedenerako eta arte eta kirol jardueretarako eskubideari buruzko kapitulu honetan, haur eta nerabeek kirola egitearekin lotuta daude, aurrean ere, kexarik esanguratsuenak.

Alde batetik, gai honen gaineko kexak jasotzen jarraitu dugu: Espainiako Futboleko Errege Federazioak atzerrian jaiotako nerabeei **federazioaren lizentzia** emateko egiten dizkien agiri-eskakizun bereziak (ez bakarrik legez kanpoko egoeran daudenei, baizik eta atzerrian jaiotako nerabe guztiei) (ikusitxoaren orokorraren II.1 kapituluko 2.2. puntua). Eusko Jaurilaritzaren Kirol Zuzendaritzari adierazi genion kexa eragin zuten baldintza-eskakizunak zentzuzkoak izan daitezkeela beste testuinguru batzuetan, futbol klub handiek gehiegikeriaz jokatzeko eragozteko balio dutelako, izan ere, jokaera horiek adingabearen interesaren kontrakoak direnez gero, berriazko prebentzio-tresnak erabiltzea justifikatzen dute. Baina jokaera horiekin zerkusirik ez duten kasuetan

eskakizun horiek bereizketarik egin gabe ezartzeak –kasu honetan egin den bezala– ondorio argiro disfuntzionala sortzen du, adingabearen interesari dagokionez.

Eusko Jaurilaritzaren [Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila](#) Arartekoarekin bat etorri zen, eta beharrezko gestioak egin zituen adingabe horiek federatuta egon zitezten.

Beste alde batetik, gure herri administrazioek konpromisoa hartu dute kirolaren bidez lehiatzeko gainetik hezteko eta parte hartzeko konpromisoa sustatzeko haurren, erakunde honek gomendatu izan duen legez. Alabaina, urtean zehar foro desberdinetan eta bide desberdinak erabiliz adierazi ditugunenez (kexa partikularrak, gizarte eta hezkuntza arloko erakundeekin bilerak, adituekin kontrasteak...), elkarre edo entrenatzaile batzuek dituzten jarrerak eta jokaerak kezkarriak dira, eskola kirola egin baino lehenagoko adinetan (benjamin aurreko kirola) praktikatzeko den kirolean. Entrenamendu eta partidu batzuetan adingabe batzuei protagonismoa emateaz ari gara, beste adingabe batzuen kaltean izaten da hori eta lehiarako gaitasun handiagoaren edo txikiagoaren irizpidea erabiltzen da. Erakunde honek badaki elkarre edo entrenatzaile gehienek beren lana zuzen betetzen dutela, haur eta nerabeen kirola praktika zuzentzeko. Hori dela eta, jarduera bat hasi dugu eta informazioa jaso dugu gai honen egoerari buruz Euskadi osoko 12 udalerritan egindako erakusketa baten bidez, eta, horretan oinarrituta, 2016an gomendio orokor bat egiteko asmoa dago.

2.7.2. Gazteen lonjak

Gutxituz joan dira gazteen lonjek sortutako zaratei buruzko kexak, 2013an iritsi baitziren puntu gorenera. Hala ere, horietakoren batek gomendioa ere eginarazi digu ([2015eko otsailaren 25ko Ebazpena](#)). Horren bidez, [Ordiziako Udalerri gomendatu](#) zaio beharrezko neurriak har ditzala gazteen aisialdirako lokal batek sortutako eragozpenak ekiditeko.)

laz adierazi genuenez, horrelako kasu askotan ikusi dugu jardueren ingurumen-kontrola (ikuspegi horretatik mintzo gara orain) kaltetuek salaketak egin ondoren bakarrik egiten dela. Ez dago administrazio-plangintzarik kontrolatu beharrekiko jardueren gainean, ezta ere ingurumena zaintzeko eta ikuskatzeko programarik. Administrazioaren kontrol-lana eta esku hartzea kasurik garrantzitsuenetan soilik erabiltzen da, edo hirugarren interesdun batek presioa egiten edo esku hartzen duenean. Halako kasuetan, ingurumen-kontrola legezketasuna berrezartzeko azken neurria izaten da, obeditzen ez duten edo beste bide batzuk erabiliz lardieratzerik ez dagoen jardueretan. Gai horri buruz, erakunde honek jarrera askoz prebentiboago eta proaktiboagoa izan du, edonola ere, eta 2014ko apirilean aurkeztutako agiri honetan jasota geratu zen: [Oinarrizko dokumentua gazteen aisialdirako lokalei buruzko gogoetarako: Arartekoaren proposamenak administrazioaren esku-hartze egokirako](#).

2.8. Diskriminaziorik ez jasateko eskubidea

2. artikulua

1. Estatu kideek Hitzarmen honetan aipatutako eskubideak errespetatuko dituzte eta bermatuko dute beren jurisdikziopean dauden haurrei aplikatuko zaizkiela, alde batera utzita haurren, gurasoen edo legezko ordezkarien arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo beste-lakoa, nazio-, etnia- edo gizarte-jatorria, ezintasun fisikoak, jaiotza edo bestelako edozein ezaugarri.

2.8.1. Atzerritarren seme-alabak

Bakarrik dauden adingabe edo gazte atzerritarrekin berariaz zerikusia duten jarduerak (txosten honen 2.3. atalean aipatu ditugu) eta hezkuntza-sistema formalaren arloan egindakoak ez ezik (2.2. atalean jasoak), atzerritarren seme-alabak izan dira kexetako protagonistak beste arlo batzuetan. Laburki azalduko ditugu jarraian.

Udal errolda kudeatzeari buruzko kexak jasotzen jarraitu dugu. Kexa horiek haurrei eragiten zieten. Batik bat gai hauek aipatzen dira: atzerapenak erroldatzeko orduan, Udaltzaingoak eskaeran idatzitako datuak egiaztatu behar dituelako. Horren haritik, 2015eko urtarrilean berrikuntza garrantzitsu bat gertatu da: Idazkariordetzaren [2015eko martxoaren 16ko ebazpena](#) onetsi da. Horren bidez, Estatistikako Institutu Nazionalaren Lehendakartzaren eta Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundearen Eskumenen Koordinazioaren Zuzendaritza Orokorraren 2015eko urtarrilaren 30eko ebazpena argitaratu zen. Azken ebazpen horren bidez, udal errolda kudeatzeko jarraibide teknikoak ematen zaizkie udalei. Jarraibide berri horiek kontuan hartu dituzte 1997ko jarraibideak onetsi zirenetik legerian izandako aldaketak, eta baita Erroldatze Kontseiluari egindako kontsulterei buruzko txostenik garrantzitsuenak ere. Beste gauza batzuen artean, erakunde honen planteamenduaren ildo beretik, ondorengoa dio ebazpenak. 1.13 atalean:

“Si el Ayuntamiento no notifica dentro de los tres meses la resolución estimando o desestimando la solicitud, operará el silencio positivo y el ciudadano quedará a todos los efectos empadronado en ese municipio (artículo 43 de la Ley 30/1992), desde la fecha de su solicitud.”

Nolanahi ere, arau orokor gisa, pertsona batek erroldan alta emateko eskatzen duenean, udalek izen-ematea bestelako izapiderik gabe gauzatu behar dutela azpimarratu beharra dago (ebazpeneko 1.9 atala). Ondorioz, eskaeran ageri diren datuak benetakoak direla egiaztatzeke izapideak pertsona horrek egoitza udalerrian ezarriko duelako zalantza eragiten duten arrazoizko zantzuak daudenean bakarrik egingo dira. Sarritan datuak egiaztatu egiten direla ikusenez, egoitza udalerrian izatearen inguruko arrazoizko zalantzarik ez badago ere. Izapidetzearen luzapena zalantzan jar dezaketen arrazoiengatik egiaztatzen da askotan.

Txosten honen **osasun** arloko 2.5 atalean aipatu dugunez, haurdun dauden emakume atzerritarrek zailtasunak aurkitu dituzte euskal osasun-sistemaren aldetik haurdunaldian

arreta eta laguntza jasotzeko. Jakinaenez, erditu aurreko aldietan, oso garrantzitsua da haurdun dagoen emakumearen eta haurraren osasun-egoera modu egokian aztertzea, etorkizunean osasun-egoera ona bermatzeko. Nolanahi ere, kasu horiek behar bezala konpondu dira.

Futbol federatua egiteko lizentziak lortzeko arazoak ere behar bezala konpondu dira. Lizentzia horiek lortzeko arazoak zeuzkaten familia atzerritarren seme-alabek (txosten honen 2.6 atalean eman dugu horren berri).

Bukatzeo, ezin dugu atal hau itxi haur eta nerabe asko **po-breziari** daudela berriro nabarmendu gabe. Haur eta nerabe horien familietan, familiaburua atzerritarra da eta, azterlan guztiek erakusten dutenez, gehienetan halaxe gertatzen da haur pobreen artean.

2.8.2. LGTBI Haurrak eta nerabeak

Auzi horri lotutako gure jarduketaren guztien xedea hiru helburu hauen bitartez laburbiltzen da:

- Euskal herri-administrazioek euren jardueraren guztietan berdintasuna erabat errespetatu dezaten eta sexu-orientazio eta genero-identitatearen ondoriozko bereizkeriarik egin ez dezaten lortzea, eskubide horien gauzatea benetakoa eta eraginkorra izateko beharrezkoak diren neurriak abian jarri.
- Euskal gizarte osoan, bazterkeriarik ezan eta aniztasun afektibo-sexualari eta genero-aniztasunari lotutako eskubideen errespetuan oinarritutako kultura zabaltzea.
- Homofobia edo transfobiaren aurka borrokatzea (edozein formatan agertzen bada ere), Euskadin LGTBI haur eta nerabeen egoeraren gaineko ezagutza eta sentsibilizazioa zabalduz.

2015. urtean hauxe gertatu da: lesbiana, gay, bisexual, transexual eta intersexualen arloan egin den lanaren zati garrantzitsu batek haur eta nerabeen egoerarekin izan du zerikusia, batez ere transexualekin.

Adingabe transexualen edo arauz kanpoko genero-portaera dutenen familiek egindako eskaerak gai hauekin lotuta daude: haur horiei eta beren familiei arreta publikoa emateko esparrua hobeto egokitu dadila, batik bat osasun eta psikologia arloetako arretari eta hezkuntza arloari dagokienez. Eskaera horiek kexa moduan iritsi dira erakunde honetara; horien artean, adierazgarriena iruditzen zaiguna azpimarratu dugu txosten orokorreko III.9 kapituluan, “nabarmendutako kexak” deritzan atalean, baina baita laneko bileren eremuan ere, hala nola *Escuela Segura* delakoaren esparruan (hurrengo paragrafoetan hitz egingo dugu horretaz) eta gizarte-erakundeekin egindako bileretan. Horrela, gure lurraldean berriki sortu den [Chrysalis Euskal Herria](#) adingabe transexualen familien elkarteak adierazi digunez, ezinbestekoa da neska-mutil horiek ikusgarri egitea, onartzea eta behar bezala artatzea, bizimodu normalizatua eta erabateko garapena izango dituztela bermatzeko. Jarrera kritikoa dute (eta horretan bat

datoz beste erakunde eta elkartu gabeko familia batzuekin) *Berdindu Familiak*–en jarduerarekin (*Berdindu* LGBTI pertsonak artatzeko zerbitzuaren ataletako bat da hori), izan ere, itxuraz ez da betetzen ari familiek zerbitzu horretara jotzean dituzten itxaropenak.

Osasun arloan, familia batzuek adierazi digute ez daudela pozik Osakidetza Genero Unitatean jaso duten arretarekin (2016ko lehen hilabeteetan mintzatuko gara horretaz), eta kezkatuta daudela *ekainaren 28ko 14/2012 Legean, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoan* aurreikusi zen medikuntza-gida atzeratzen ari delako.

Bestalde, jarraitu dugu [Eusko Jaurlaritzako Familia eta Komunitate Politikaren Zuzendaritzak](#) eta Berdinu zerbitzuak babesten duten **“Eskola seguruen aldeko talde egonkorra” izeneko** programan (2013an hasi zen), hau da, osaera mistoa (soziala-instituzionala) duen lan egiteko foroan, eskolan haurren eta nerabeen aniztasun afektibo-sexualerako eskubideen errespetua eta sustapena bultzatzeko. Izan ere, Ararteko erakundeak –Haurren eta Nerabeen Bulegoaren bitartez eta LGBTI pertsonen eskubideen arloaren bitartez– erregulari parte hartzen du programa horretan, beste erakunde batzuekin batera (besteak beste, azpimarratu behar da [Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila](#)). Foro horren eginkizuna, funtsean, honako hau da: adingabeei, familiei eta irakasleei laguntzeko jarduerak eta protokoloak koordinatzea ikastetxeetan eta adingabeak tartean daudenean identitateari eta genero-rolari lotutako egoera eta jokabideen eremuan. Taldearen lanari dagokionez, ikastetxeentzako gidalerro eta gomendioen proposamena eztabaidatzen eta aztertzen ari da orain, euskal hezkuntza-sisteman aniztasun sexualari eskaini behar zaion arretarekin eta ikastetxean homofobia eta transfobia saihestearrekin lotutakoa.

Jarduera horietatik guztietatik ondorio hau atera dugu: nahiz eta berdintasun formala gure sistema publiko osoan bermatuta egon, oraindik hobetzeko tarte handia dagoela zerbitzu publikoek haur eta nerabe horiei ematen dien arretan; era berean, egiteko bidea dagoela, eremu guztietan erabateko integrazioa lortzeko, baita ere aniztasun afektibo-sexuala eta genero-aniztasuna errespetatu eta ospatzeko.

Araudi esparruari dagokionez, abenduan onartu da Euskadin *abenduaren 22ko 234/2015 Dekretua*, non arautzen baita transexualak Euskadin zer dokumentazio administratibo erabili ahal izango duten, harik eta Erregistro Zibilean beraien sexuaren zuzenketa egin arte. Dekretu horrek garatzen ditu *Ekainaren 28ko 14/2012 Legeak*. 7. artikuluan bildutako xedapenak. Dekretu horren bidez araututako dokumentazioa daukaten pertsonak (adingabeek ere bai) honako eskubide hauek izango dituzte osasun eta hezkuntza arloan:

- Libreki aukeratutako genero-nortasunaren arabera tratatuak izateko eskubidea.
- Libreki aukeratutako genero-nortasunari dagokion izenarekin identifikatuak izateko eskubidea.

- Osasun arloan dokumentazio administratiboak egokitzeko eskubidea; salbuespen gisa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren ardurapean dagoen osasun-historial konfidentzian, dagokion pertsonaren inguruko beharrezko erreferentziak egingo dira;

- Ikastetxeko dokumentu administratiboak egokitzeko eskubidea, adibidez: ikasgelako zerrendak, kalifikazioen informazio-buletina, ikasle-txartela, eta bestelakoak. Helburua hau da: aintzat hartzea ikaslea zer generorekin sentitzen den identifikatua, dekretu honetan xedatutakoaren arabera jaulkitako dokumentazio administratiboan adierazitakoari jarraikiz. Hala eta guztiz ere, ikaslearen espediente ofizialean, ondorio ofizialearako erregistratuta dauden identitate-datuak mantenduko dira.

Euskal dekretu berri horrek hemendik aurrera ezarri duen agiria (identifikazio txartela) egiteko prozedura has dadin, interesdunak eskatu beharko du. Adingabea baldin bada, bere legezko ordezkariak eskatuko dute. Edonola ere, adingabeak entzuna izateko eta bere iritzia azaltzeko eskubidea izango du, haurren gaineko legerian ezarritakoaren arabera.

Bukatzeko, hemen aipatuko dugu Europako Kontseiluak 2015eko apirilean ateratako txostena [Giza eskubideez eta pertsona intersexualez \(Human rights and intersex people\)](#). Txosten horretan, gizon-emakume binarismoan sar daitekeen definizio biologikorik gabe jaitzen pertsona horien egoeraz ohartarazten da. Pertsona horiek jaitzen diren unetik beretik eta, beraz, haurtzaro eta nerabezaro osoan gertatzen dira gizakiaren duintasunaren kontrako trabak eta erasoak; horiek larriki mugatzen dute beraien genero-identitatea eta, azken batean, beren nortasuna aske eta erabat gartztea. Horregatik, Ararteko erakundeari eta, bereziki, bulego honi ezinbestekoa iruditzen zaie Euskadin pertsona horien eskubideekiko sentikor bihurtzeko eta eskubide horiek defendatzeko lanean hastea.

2.8.3. Haur eta nerabe ezgaituak

Haur eta nerabe ezgaituei dagozkien aurtengo kexetan, bi gai aipatzen dira:

1. Donostiako autobus geltoki berrian ikusi diren **irisgarritasun** akatsak (zehazki azaldu dugu ezgaituei buruzko III.3 kapituluaren). Garraio publikoaren balizko erabiltzaile gisa, beraiengan eragiten dute azpiegitura berri horren gabeziak.
2. **Hezkuntza** arloan: ikasle ezgaituek ikasketa jakin batzuk egin ahal izatea; ikasketa maila eta modalitate guztietan erabateko hezkuntza normalizazioa lortzeko laguntzak eta baliabideak; eta eskola garraioa (gai horiek guztiak txosten honen 2.2 atalean aipatu ditugu).


2.8.4. Genero berdintasuna

Atal honetan laburki aipatzea merezi dute Nazio Batuen Emakumeen kontrako Bereizkeria Desagerrarazteko Batzordeak (**CEDAW**) argitaratu dituen **azken oharrak**, 2015eko

uztailean Espainia aztertu ondoren. Garrantzi bereziko beste gai batzuen artean, haur eta nerabeengan bereziki eragina duten bi gai aipatuko ditugu hemen:

- Lehen kasuan, Batzordeak gomendatu zuen ez zedila **onartu 16 eta 18 urte bitarteko neska eta emakumeentzako abortatzeko eskubideari buruzko legearen** proiektua, traba gehiegi jartzen baitzituen gazteek haurdunaldia eten ahal izateko. Irailean, ordea, [irailaren 21eko](#)
- Bigarren gaitzat, asiloa eskatzen duten neskek babesteko sistema hobetu zedila eskatu zuen, mugetako kontroletan indarkeriarik ez dela erabiliko bermatuz, eta asiloa emateko prozedura eragingarria eta alderdikierarik gabea ezar zedila.

[11/2015 Lege Organikoa](#) onartu zen, *haurdunaldia beren borondatez eteteko ahalmena judizialki aldatua duen adingabe eta emakumeen babesa indartzeko.*



III

ATAIA

Entzuna izateko eta
bere iritzia kontuan
hartua izateko
eskubidea:
Arartekoaren
Haur eta Nerabeen Kontseilua

III. Atala

ENTZUNA IZATEKO ETA BERE IRITZIA KONTUAN HARTUA IZATEKO ESKUBIDEA: ARARTEKOAREN HAUR ETA NERABEEN KONTSEILUA

12. artikulua

1. Iritzi propioa izateko gai den haurari Estatu kideek iritzia askatasun osoz azaltzeko aukera bermatuko diote, haurari berari dagozkion gai guztietan, eta beti bere adin eta hel-dutasunaren arabera.

13. artikulua

1. Haurrak adierazpen askatasuna izango du, muga politikoak kontuan izan gabe; eskubide horren barruan sartuko dira edozein ideia edo informazio bilatu, jaso eta zabaltzea, bai ahoz, idatziz edo inprimakiz, modu artistikoan edo haurrak aukeratzen duen edozein modutan.

Haurren Eskubideen Hitzarmenak, Nazio Batuek 1989an onaturikoak, 18 urtetik beherako adingabeei informaziorako eta parte-hartzeko eskubidea aitortzen die, bai eta eragiten dieten arlo guztietan beren iritzia emateko eta beren iritzia kontuan hartua izateko eskubidea ere. Geure eginez haurrentzat eta nerabeentzat lan egitea garrantzitsua bada hein berean edo gehiago izango dela haiekin lan egitea, haien ahotsa, iritzia eta ikuspegia entzutea, parte hartzeko, kontsultak egiteko eta aholkuak emateko bideak eskaintzea, 2010ean, Arartekoko Haur eta Nerabeen Kontseilua eratu zen, funtzio nagusi Arartekoari bereziki adingabeei zuzenean eragiten dieten kontu edo ekimenen inguruan aholku ematea zuela.

Haur eta Nerabeen Kontseiluak neska-mutilen begirada gaineratu nahi du Arartekoaren proposamenetan, haiekin ekimenak, material didaktikoak, proiektuak eta bestelakoak kontrastatu, eta haurrentzat edo nerabeentzat interesgarri diren edo haien eskubideen defentsari eragiten dieten alderdiei buruzko iradokizunak bildu. Erakundea gure haurren eta nerabeen ahotsa entzuteko eta parte hartzeko esperientzia eskaintzeko —behintzat horietako talde bati— apustu argia da.

Adingabeek erakundean modu egonkorrean parte hartzeko eta egoteko bide hori lehenago erabili diren (eta aurrerantzean erabiliko diren) beste bide batzuen osagarri da; hala-koak dira, esate baterako, azterlanak, txostenak, foroak eta bestelakoak, bai eta bizitegi-baliabideetan harrera egin zaien

neska-mutilei egindako elkarriketen esparruan sortutako eztabaida-taldeak ere.

Kontseilua hiru lurralde historikoetako DBHko 24 neska-mutilek osatzen dute. Neska-mutil horiek parte hartzeko barne-dinamiketan esperientzia duten hainbat ikastetxek proposatuta izendatu dira. Parte-hartzaileak hautatzeko eskakizunak hauek dira: gaitasun kritikoa izatea eta hausnartzeko, sortzeko eta berdinen artean eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko prest egotea, eta, batez ere, kontseiluan parte hartzeko eta inplikatzeko gogoia izatea. Nork bere iritzia adierazteko askatasun osoa izatea eta Arartekoak konfidentzialtasuna bermatzea dira kontseiluaren funtzionamenduaren oinarritzko arauak.

2014an, kontseiluak ikasturte osoan zehar egin beharreko lanaren haria izateko gaiak jorratzea erabaki genuen. Horrela, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 25. urteurrenaren eraginda, kontseiluaren lanak hitzarmenean aintzat hartutako haurren eskubideak zabaltzen eta sustatzen lagundu ahal izatea jarri genion geure buruari helburutzat, egunerokotasunetik aztertuta eskubide horiek, bizi dugun eta egun normaletan gertatzen zaigun horretatik abiatuta. Dinamikaren arrakasta ikusita, formula berberari eutsi diogu kontseiluak 2014/2015 ikasturtean egin beharreko lanerako.

Gure xedea bikoitza da: alde batetik, gure kontseiluan parte hartzen duten neska-mutilek giza eskubideak eta eskubide zehatzen bat ezagutzea bilatzen dugu, eta horien gainean sakondu eta hausnartu dezatela; eta, bestetik, euren hausnarketak ikus-entzunezko produktu batean isla ditzatela nahi dugu, beren ideiak eta mintzaira erabilia, berdinen artean eta parte-hartzaileak baino gazteagoak diren neska-mutilen artean eskubideen kultura zabaltzeko balio dezan.

Hurrengo paragrafoetan, 2015eko saioetako lana laburbilduko dugu.

Lehenengo saioa Bilbon egin zen, apirilaren 18an, Kastrexanako gazteentzako aterpetxean. Hamaika kontseilari berrientzako hasierako bilera izan zen, kontseilua zati batean berri baino.

Saio horretan, ikasturterako proposatutako gaia lantzeaz ekin genion: hezkuntzarako eskubideari, hain zuzen. Horretarako, hezkuntzarako eskubideari buruzko sukaldaritza-errezeta prestatzeko erronka jaurti genien kontseilariari, hezkuntzan beharrezkoak diren osagaiak pentsa eta nahas zituzten (tolerantzia, aniztasuna, aukera berdintasuna...).

Beraz, sukaldari jantzita, hezkuntzaren azken xedearen gainean hausnartu zuten neska-mutilek egun osoan zehar -"aurrekeratu ahal izateko", "zeure kabuz pentsatu eta erabaki ahal izateko", "zoriontsua izateko", "hezkuntzarik gabe ez duzulako ezer"... -, nortzuk diren eragileak hezkuntzan (familiak, irakasleak, gizartea, lagunak, komunikabideak), non hezten garen (eskolan, etxean, kalean) eta noiz hezten garen - "bitzita osoan zehar". Hezkuntzarako eskubideak dakartzan erantzukizunei buruz ere hausnartu zuten (lana, ahalegina, parte-hartzea, ikastea eta besteak errespetatzea).

Saioa amaitzean, "gure sukaldaritza-errezeta" eduki genuen: zertarako den hezkuntza, ezinbesteko osagaiak eta horretarako beharrezko materiala.

Horrela, 2013/2014 ikasturteko **bigarren saioan**, aurreko saioan hausnartutako guztia irudietan txertatzea izan zen kontua. Donostian egin zen, ekainaren 16an, Donostiako Aiete Jauregian dagoen Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean.

Bada, proposatutako lanaren fase kitzikagarriena eta luzeena lantzen aritu zen kontseilua egunaren zati handi batean: gidoia egiten, grabatzen eta ikus-entzunezko materiala muntatzen, haurren eskubideak (kasu horretan, hezkuntzarako eskubidea) txikiaren artean zabaltzeko xedez. Ideiek, ateraldiek, hartual-

diek eta hartualdiek, entseguek eta errepikapenek, "baliabideen" grabaketak, gure teknikariak azaldu zigun bezala...
¡Cocínate! - Eskubideak saltsan! bideoa izan zuten emaitza.

Ikasturteko azken saio horretan, agur esan genien bi urtez gurekin egon ondoren ibilbidea amaitu zuten kontseilari batzuei, beste neska-mutil batzuei lekua eginez.

2015eko **azken bilera**, 2015/2016 ikasturteko lehena izan zena, Vitoria-Gasteizko Arartekoaren egoitzan egin zen, eta lehen ezaupidea izan zen hamaika kontseilari berrientzat.

Saioa hasteko, bisita egin genuen Eusko Legebiltzarrerara. Bertan, besteren artean, eraikinaren historia entzun ahal izan zuten parte-hartzaileek, nolakoa den legebiltzarreko lana, zer den botereen banaketa eta zeintzuk diren administrazioaren maila ezberdinak, zein den Eusko Legebiltzarreko sinboloa eta abar. Azalpen gehienak osoko bilkuren aretoan entzun ziren, eta interes handia piztu zuen horrek. Beste instalazio batzuk ere ezagutu ahal izan zituzten, hala nola, batzarrak egiteko aretoak, harrera aretoak edo prentsarako aretoa.

Legebiltzarreko bisita amaitutakoan, Arartekoaren bulegora joan zen kontseilua. Bertan, arartekoak ongi etorria eman zien neska-mutilei, euren parte-hartzea eskertu zien eta erakunde egoteko arazoia eta funtzionatzeko modua azaldu zituen.

Ondoren, neska-mutilek elkar pixka bat ezagutzeko denbora egon zen, eta 2015/2016 ikasturteko hurrengo saioetan sakonduko den gaia aurkeztu zen. 2016an egingo dira saio horiek.

IV

ATAIA

Haurren
eskubideak
errespetatzeko
kultura sortzen
laguntzeko jarduerak

IV. Atala

HAURREN ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK

42. artikulua

Estatu kideek hitz ematen dute Hitzarmenaren printzipio eta arauak jakinaraziko dizkietela modu eraginkor eta egokietan bai helduei bai eta haurrei ere.

1. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena onartzea ospatzea



Azaroaren 19an, honako jardunaldi hau egin zen Bilbon: “Haurrak eta nerabeak babesteko lege berriak: aldaketa nagusiak”. Horrela oroitu da 2015ean Nazio Batuen Batzar Nagusiak [Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena onartu zuela orain 26 urte](#). Gure ustez, efemeride hori testuinguru ezin hobea da [8/2015 Lege Organikoak](#) eta [26/2015 Legeak](#) egin dituzten lege-aldaketa nagusiak aurkezteko (uztailean onartu ziren biak). Ezin dugu ahaztu, txosten honetan hainbat bider adierazi dugunez, hitzarmen hartan aldarrikatu ziren eskubide batzuek zeharkatzen eta blaitzen dituztela aipaturiko testu horiek: hain zuzen, adingabeen interes gorenak, adituak izateko eta beraien iritzia aintzat hartzeko eskubideak eta, oro har, berme handiagoa beraien eskubideak baliatzeko orduan.

Ararteko erakundeak, jardunaldiaren edukiaren bitartez, Euskadiko haur eta nerabeei ematen zaien arretan zerikusia edota interesa duten pertsona guztiei helarazi nahi izan zizkien

arau-aldaketa horiek. Eta horien osagarri, babesik gabeko haur eta nerabeak artatzen dituzten gizarte-zerbitzuak hobetu nahi badira (bai euskal arau-esparruan, bai zerbitzuak eta programak kudeatzean), orain zeri heldu behar zaion hausnartu zen.

Jardunaldia Manuel Lezertua arartekoaren eskutik hasi zen. Ondoren, legean egin diren aldaketarik garrantzitsuenak azaldu zituen Elena Ayarzak, Arartekoko Haur eta Nerabeentzako Bulegoko zuzendaria baita.

Jarraian, mahai-inguruan, araudi berria baloratu zen, baita Euskadin babesik gabe dauden haur eta nerabeak artatzeko sisteman duen eragina ere. Honako hauek parte hartu zuten: Miguel Hurtadok [Eusko Jaurlaritzaren Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzako](#) aholkulari juridikoa, Consuelo Alonsok Bizkaiko Foru Aldundiaren [Haurren Zerbitzuko](#) burua eta Carmen Cotelok Arabako Adingabeen fiskala.

Topaketa horretara zenbait profesional joan ziren, administrazio batzuetako haurren zerbitzuetakoak, haurren eremuko gizarte-erakundeetakoak, familia adoptatzaile eta hartzaileetakoak, lantalde psikosozialetakoak eta, oro har, haur-nerabeak babesteko sistemarekin lotutako arlo ezberdinetan diharduten hainbat pertsona. Gogobetetze maila oso handia izan zen, eta bildutako iritziek horrelako topaketak antolatzeko jarraitzeko adorea ematen digute.

2. Gizarte-eragileekiko lankidetzatza

Arartekoak eta, dagozkion kontuetan, Haur eta Nerabeen Bulegoak, bere jarduera-ildoan artean argi eusten dio haurren eta nerabeen esparruan lanean diharduten gizarte-eragileekin elkarlanean aritzeko aukerari, bai haien eskubideak jendarteratuz edo defendatuz, eta bai, askotan, batez ere egoera ahulean dauden neska-mutilentzako baliabide jakin batzuk kudeatuz.

Lankidetzaren harreman horri dagokionez, urtero zehazten da, eta hainbat formatutan egiten da: bilerak, bisitak, kolaborazioak dokumentu edo proposamenetan, eta abar.

Harreman ohikoa eta jarraitua daukagu haur eta nerabeen eskubideak babesteko erakundeekin, hala nola [Save the Children](#) eta [UNICEFekin](#), Euskal Herriko Batzordearekin.

Ezintasunen bat duten pertsonen arloan, ezintasun, mende-kotasun, buru-osasun eta gaixotasun kronikoen arloetako aholkulari koordinatzaileek, aldizka, harremanak izaten dituzte sektore-erakundeekin. Horrela, aurten hainbat bilera egin dira [FEDEAFESekin](#), [Elkartean](#) ezgaituen Konfederazio Koordinatzailean elkartutako federazioekin, eta [Euskadiko Zeliako Elkartearekin](#). Aztertutako egoera edo arazoren bat haur eta nerabeengan bereziki agertzen bada edo haien eragin berezia badu, elkarlanean aritzen gara, arazoaren konponbideari haurren ikuspegia gehituz.

Babesik gabeko haurrei dagokienez, haur babesgabeentzako egoitza-baliabideak ikustera joan garenean, harremanetan egon gara elkarte hauekin: [AVAIM](#), [Educo](#) eta SIMI plataforma (STOP Impunidad Maltrato Infantil), Landalan, [Urgatzi](#) eta Zabalduz. 2014an hasitako jarduerari jarraipena emanez, Euskadiko gizarte langintzaren elkargoekin egindako bilereetan, baita ere [SIISek](#) -erakunde honen eskariz- *Euskadiko udalen gizarte-zerbitzuen egoerari buruzko azterlana* egiteko asmoz antolatutako eztabaida-taldeen, gai hau jorratu da: babesgabetasun arineko eta moderatuko egoeretan, lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuen jarduerak.

Udako ikastaroa antolatzeko –gazteek emantzipazio prozesuetan dituzten arazoekin lotua- harremanetan egon gara [Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin](#) eta ADSIS fundazioarekin. Erakunde hori, baita [Peñasca fundazioa](#), Gipuzkoako Osabidezko Hezkuntzarako Partzuergoa eta Mendibil Elkarte Pedagogikoa ere, informatzaile garrantzitsuak izan dira erakunde honek sustaturiko ofiziozko jardueraren batean.

Azkenik, [Bizkaiko Gurutze Gorriarekin](#), [Chrysalis Euskal Herriarekin](#), [Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoarekin](#) edo [Euskal Herriko Lehen Mailako Pediatria Elkartearekin](#) izan dugun harremanari esker, haur eta nerabe jakin batzuk tartean egon litezkeen egoerak ezagutu ahal izan ditugu.

3. Erakunde eta baliabide instituzionalekiko lankidetzaren

Modu berean, askotarikoak dira erakunde instituzional edo baliabide publikoetako ordezkari politiko eta teknikoekin lankidetzaren aritzeko espazioak eta uneak. Solaskideetako batzuk honako hauek izan dira:

- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua.

- Lanbide Heziketako sailburuordea, Lanbide Heziketako zuzendaria eta Ikastetxeen zuzendaria.
- Hezkuntza Ikuskaritza.
- Euskadiko Eskola Kontseilua
- Eusko Jaurlaritzaren Familia Politikarako eta Gizarte Garapenerako zuzendaria.
- Berdinu zerbitzua.
- Biltzen zerbitzua.
- Hiru foru aldundien Gizartekintza / Gizarte Politika / Gizarte Zerbitzuak sailerako haurren zerbitzuetako arduradunak (+ zenbait zerbitzu, programa eta baliabideetako arduradunak).
- Emakunde. Erakundearteko Talde Teknikoa.
- Euskal Herriko fiskal nagusia eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako fiskalburuak.
- EHUko Nazioarteko Zuzenbideko Saila.

Bilera horietako batzuetan edo, hain zuzen ere, horien ondorioz, Arartekoak zuzen-zuzenean ezagutu ditu politika publikoak eraginkor bihurtzeko plan, protokolo, estrategia eta bestelako proposamenak; horrez gainera, erakunde eskudunei iritzia eskatu ahal izan die egoera kezkarri jakin batzuen inguruan —arretaren premia duten behar gisa azaldu zaizkie—, eta esku hartzean ezinbesteko eskubideak bermatu behar direla zehaztu.

Politika publikoetan herritarren eskubideak hobeto babestu eta zaintzeko lankidetzaren ildo horretan, Eskolako Bizikidetasunerako Behatokiaren batzarreko kide da Haur eta Nerabeentzako Bulegoa, nahiz eta 2015ean ere ez dioten deitu. Hori bai, *Escuela Segura* talde egonkorak lan interesgarria egin du aurten. Talde horretan, bulego honek gure ikastetxeetako aniztasun afektibo-sexualaren gaineko kezka partekatzen ditu beste gizarte- eta hezkuntza-eragile batzuekin. Era berean, lan interesgarri bat hasi da genero-indarkeria jasateko arriskuan dauden haurrei behar bezalako arreta emateaz. Oraindik bukatzeko dago, Emakundeko Erakundearteko Talde Teknikoa buru duela, eta prozesu horretan guztiz parte hartzen ari gara.

Ohiko ildoari jarraiki, oso harreman ona dugu herriaren **beste defentsa-erakunde batzuetako** haur eta nerabeen sailekin, horiekin maiz trukutzen baititugu informazioa, irizpideak eta iritzia. Aurten bisitan etorri zaizkigu [Valentziako Erkidegoko Síndic de Greuges](#) erakundeko arduradunak, gure bulegoaren eta, bereziki, Haur eta Nerabeen Kontseiluaren jardueraz galdezka. Gainera, ekainean, Ararteko erakundearen afitrioi izan zen Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioko Emakumearen Defentsa-erakundearen Sarearen Europako Eskualdeak egin zuen Topaketan. Gai hau lantzeko bildu ziren: *Genero indarkeria: etenik gabeko gaitza*.

Bulegoaren presentziak ikusgai egin zituen, eta ezagutarazi, genero-indarkeria pairatzeko arriskuan dauden haurren arazoak.

4. Ekitaldietan parte-hartzea

Hala elkarte eta erakundeekin izandako elkarlanaren esparruan, nola Arartekoak berak gidatu dituelako, Arartekoak berak edo erakundeko langileek adingabeen gaineko foro

eta topaketetan esku hartu dute, gure erkidegoan nahiz gure erkidegotik kanpo. 2015ean izandako parte-hartze esanguratsuenak, dokumentu honetan orain arte aipatu gabeak, honako hauek izan dira:

- Safer Centre Euskadi. *Día Internacional de Internet segura*. Bilbao.
- Emakunde. *Mutilación genital femenina*. Gasteiz.
- Bizkaiko Gurutze Gorria. *Prevención, detección y atención a víctimas de trata de seres humanos*. Bilbao.
- Hezkuntza Administrazioaileen Europako Foroa (FEAE). *Retos para el sistema educativo*. Bilbao.
- Bizkaiko Foru Aldundia. *Bizkaiko Haurren III. Plana* egiteko lantaldea. Bilbao.
- Leioako Udala. UmHerri15 Jardunaldia: Comunidad, aprendizaje y política local. Leioa.
- SIIS. Jardunaldia: Exclusión social residencial. Bilbao.
- Biltzen. Jardunaldia: Enfoque interseccional en el abordaje de las situaciones de discriminación. Bilbao.
- Kantabriako Gobernua. Jardunaldia: El interés superior del menor en las prestaciones sociales. Santander.
- AVAIM. II. Foro Autonomikoa “Justicia e Infancia”. Bilbao.

5. Adingabeentzako web gunea eta material didaktikoak



[Eskubideen uhartea](#) web-orria, 2011. urtetik abian dena, lehen hezkuntzako neska-mutilei zuzendutako web-atari bat da (6 eta 12 urte arteko haurrei zuzendutakoa). Web-orri horrek bi helburu ditu: batetik, erakundea neska-mutilengana gerturatu nahi dugu, denek ezagut dezaten –ahalik eta modurik gertukoenean eta iristerrazenean–, giza eskubideen eta haurren eskubideen inguruan hitz egitean erreferente bat den aldetik; eta bestetik, neska-mutikoen artean haurren eskubideak hedatu nahi dira, bai eta gai horren inguruan neska-mutikoak sentsibilizatu ere.

Hauek dira web-orriko atalak: *Itsasargia*, non neska-mutilek beren eskubideen berri izateko informazioa aurki dezaketen. *Botila* atalean, haurren eskubideen mapa jasotzen da, eta ipuin bizidunak eta liburu elektronikoak (e-book) ditu. *Zurezko upelean* edo *SOS espazioan*, neska-mutilek informazio interesgarria aurki dezakete, baldin eta laguntza behar badute.


Arrainontzi atalean, parte hartzera animatzen zaie, eta estekak eta jolasak daude horretarako. Azkenik, *Itsaspekoa* atala dugu, gurasoei eta oro har hezitzaileei zuzendutako espazio bakarra web-orri horretan.

Eskola 2.0. delakoaren Eskola Bakegunean sartuta dago gure web-orrirako esteka, eta horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lehen Hezkuntzako ikasle guztien eskura dago.

2015. urtean, web-orriak 21.000 bisita baino gehiago jaso zituen, eta aurreko urteetan gertatu zen legez, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena onartu zen egunaren, azaroaren 20aren, urteurrenaren oroitzapenaren ondoko egunetan bisita ugari egin ziren.

Berriro ere, jolasak eta haurren eskubideei buruzko informazio zehatza jasotzen duten atalak bisitatu dira gehien, batez ere eskubide bakoitzari buruzko istorio eta ipuin bizidunak dauzkan mapa kokatuta dagoen atala.

Material didaktikoei dagokienez, aurreko bideo bat egin eta ohiko kanaletan sartu dugu (Arartekoaren web orria, Youtube kanala). Bideo hori jada aipatu dugu aurreko kapituluan (“Gure haur eta nerabeen ahotsa”), bada Haur eta Nerabeen Kontseiluko neska-mutilek egin dute, helburu honekin, lehen esan dugunez: hezkuntzarako eskubidea zer den eta zer ondorio dituen hauei txikienei azaltzea.



ATALA

Haur eta nerabeen
eskubideen
egoera baloratzea

V. Atala

HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEEN EGOERA BALORATZEA

Hurrengo paragrafoetan, Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoak 2015ean egindako jardueretan eta balorazioetan aipagarriena izan dena aurkeztuko dugu.

Haurrak eta nerabeak berariaz aipatu dituzten edo horiek tartean dituzten kexa-espeditenteak, 2015ean, 564 izan dira, eta Ararteko erakundearen aurkeztutako kexa guztien %23,31 izan dira. Zenbaketa horretan sartu ditugu alde batek eskatutako kexa-espeditenteak (519), partikularrek edo erakundeek ezarrita dauden sarbide ezberdinen bidez (bulegoen, webgunearen, posta elektronikoaren bidez) aurkeztu dituztenak, bai eta ofiziozko espeditenteak ere (45), erakundearen ekimenez ireki direnak, zaugarritasun maila jakin bat edo haurren eta nerabeen beharren arretoa ezegokia dagoelako susmoa egon denean, egoera horiek aztertzeko eta jarraitzeko xedez.

Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemako prestazio ekonomikoei buruzko espeditenteen titularren bizikidetz-unitateetan 18 urtetik beherako zenbat pertsona dauden jakiteko balioespenak eginez urteak eman eta gero, 2015ean ahalegin handia egin da eragindako haur eta nerabeak bizikidetz-unitate horietako zeintzuetan egon diren jakite aldera. Datu hori ezin izan da kasu guzti-guztietan eskuratu, eta erakunde honetan diru-sarrerak bermatzeko errentari eta etxebizitzarako prestazio osagarriari buruz aurkeztu diren espeditenteen herenean baino zertxobait gehixeagoan (%37,38) informazio hori ez edukita ere, 260 dira urritasun ekonomikoko egoeran dauden adin txikikoak dituzten bizikidetz-unitateak (izan ere, prestazio horien onuradun izateak agerian jartzen du urritasun ekonomikoko egoera daudela). Bada, bulego honek eta txosten honetan kontuan hartutako espeditenteen %50 dira, funtsean, adin txikikoak dituzten bizikidetz-unitateak.

Bizitzarako eta bizirauteko eskubideari dagokionez, erakunde honetan diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoei buruzko erreklamazioak aurkeztu dituzten bizikidetz-unitateetan haur kopuru izugarria dagoela egiaztatzen da. Bada, hausnarketaren oinarrian dago egitate hori, izan ere, aipatu gutxieneko sarrerak ukatzen edo kentzen direnean, haurren eskubideei eta interes gorenari eragiten baitzaie.

Gomendio orokor batean gorpuztu da hausnarketa horren emaitza. Bertan, eutsi diren argudio nagusiak azaldu dira, eta Haurren Eskubideen Hitzarmenetik (adin txikikoaren interes goren eta entzuna izateko eskubidea) eta Europar Batzordearen 2013ko *Haurrengan inbertitzea: desabantailen zikloa haustea* gomendiotik hartu dira zuzenean. Horrekin batera, honakoa baieztatuko dugu:

- Haurrek eta nerabeek pobreziarako edo gizarte bazterkerarako arrisku handiagoa dute biztanleria orokorrak baino. Gainera, pobrezian eta gizarte bazterketan hazten direnek eskolan ondo ibiltzeko, osasun ona edukitzeko eta, bizitzako geroko faseetan, euren ahalmen guztia baliatzeke aukera gutxiago dute, egoera horretan ez dauden adinkideekin alderatuz gero.
- Esku hartzen ez badugu, ezer egiten ez badugu, pobrezia gurasoengandik seme-alabengana transmititzen da. Hortaz, belaunaldien artean desabantailak transmititu daitezela saihestea ezinbesteko **inbertsioa** da Europaren etorkizunerako, eta epe luzerako onurak ekarriko dizkie bai haurrei, bai ekonomiari, bai gizarteari, oro har hartuta.
- Esku-hartze goiztiarra eta prebentzioa funtsezkoak dira politika eraginkorrak egiteko; izan ere, sufrimendu dosi handiak ekiditeaz gain, merkeagoa izango da (gastu publikoari dagokionez) egoerak hain larriak ez direnean esku hartzea, pobrezia eta gizarte bazterketa larriagoaren ondorioei arretoa ematea baino.
- Jarduerak honako bi printzipioen arabera gidatuko dira:
 - 1) lehenik eta behin, kontuan hartu beharko da haurren interes goren, aldi berean, familiei laguntzeak duen garrantziari balioa emanez, haurrak zaintzeko ardura-dun nagusiak baitira horiek;
 - 2) haur guztien ongizatea sustatzeko politika unibertsalen eta gutxien dutenei laguntzeko ikuspegi espezifikoaren arteko oreka egokiari eutsi beharko zaio.

- **Prebentzio eraginkorra** hiru **mugarri** hauetan oinarritutako **estrategia integratuen** bidez lortuko da: baliabide egokietarako sarbidea; kalitatezko zerbitzueterako sarbidea, arrazoizko prezioekin; haurrek parte hartzeko duten eskubidea.
- Hauen arteko konbinazioa behar du **baliabide egokietarako sarbideak**:
 - gurasoek lan merkatuan parte har dezaten laguntzea, honakoetara bideratutako neurriak aktibatuz: zailtasun handiagoak dituzten pertsonak (prestakuntza baxua edukitzeagatik edo beste arrazoi batzuegatik) lan merkatuan sar daitezela eta bertan gera daitezela laguntzeari zuzendutakoak, eta familiako bizitza eta laneko bateragarri egiten laguntzeari bideratutakoak;
 - bizi-maila egokia ematea (bizitza duina ahalbidetuko duena), prestazioen konbinazio ezin hobearen bidez.
- Bizi-maila egokia ahalbidetzen duten prestazio ekonomikoak buruz, zera gomendatu da: *“familien diru-sarrerari laguntzea prestazio egoki, koherente eta eraginkorren bidez, esaterako, zerga-pizgarriekin, seme-alabak kargura edukitzeagatik familia-prestazioekin, etxebizitzarako soro-sopenekin eta gutxieneko sarreraren sistemekin”*.

Bestetik, *“Haurren pobrezia Euskal Autonomia Erkidegoan duen eskualdeko eragina. Pobrezia eta Desberdintasun Sozialei buruzko Inkesta 2012”* txostenak emandako datuaren gainean ikertzen jarraitzen dugu. Txostenean ondorioztatzen zenez, benetako pobrezia eta gabezia larrien arteko loturak, Euskadin, elikadura arazo larriekin zerikusia daukaten kontuetan dauka eragin handiena. Bada, ikertzen jarraitzen dugu, urtean zehar ezin izan baitugu hori baieztatzea lortu urritasun ekonomikoko egoeran dauden haurrekin harremanetan egoten diren eragile sozialekin eta osasun eragileekin eduki ditugun elkarrizketetan.

Bestalde, Eusko Jaurlearitza Familia Politika eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza itxuraz bultzatzen ari den proposamenaren bilakaerari adi egoten jarraituko dugu. Familiengan eta haurren inbertitzeko estrategia eratzekeo xedea dauka proposamen horrek, erakundearen arteko da, egonkorra eta irismen handikoa, eta haurren pobrezia eta desberdintasunaren errepikapenaren prebentzioari erantzuneko dion **Haurren eta Familien aldeko Herri Hitzarmenaren** bidez hitzartu nahi da.

Hezkuntzarako eskubideari dagokionez, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren (LOMCEren) aurreikuspenen gainean ikuspegi kritikoarekin jarraitzeko asmoak ezaugarritu du urtea. Bereiziki ikusgarri egin da hori lehen hezkuntzako hirugarren mailako ebaluazio proben eta Hastapeneko Lanbide Gaitasuneko Programen desagertapenaren harira.

Bestalde, EAEko hezkuntzako arduradunek, aldi berean, “Heziberri 2020” egitasmoaren markoan aurreikusitako urratsak ematen jarraitu dute. Hezkuntzako eragile guztien parte-hartze aktiboaren emaitzatza jo dira urrats horiek,

baina, hala ere, hezkuntzako eragile batzuen kritikak jaso dituzte, horien ustez hezkuntza eredu propiorako bidea oztopatzen baitute. Hori dela-eta, Arartekoak berretsi egin nahi du komenigarria litzatekeela hezkuntza eredu pedagogiko propio horren inguruko gutxieneko adostasuna lortzea.

Nolanahi ere, iruditzen zaigu gure hezkuntza sistema hobetzen eta bikaintasuneranzko bidean lagunduko duten jarduerak ildo berriak sustatzeko iturri edo erreferentzia gisa erabili behar dela herritarrek eta hezkuntzako eragile batzuek eskatuta erakunde honetan izapidetu diren kexen errealitatea.

Zentzu horretan, ikasleen onarpenaren atalari dagokionez, leku kopuru nahikoa ez dagoenean erabiltzen diren lehentasunezko onarpen irizpideei buruzko hausnarketa jorratzeko beharra dagoelako uste osoa edukitzen jarraitzea eragin digute 2015ean jaso ditugun kexek, etengabe atzeratzen den hausnarketa izaki hori. Gure aldetik, ofiziozko jarduerak hasi dugu, eroldako datuen gehiegizko erabilerari buruzkoa.

Nolanahi ere, ikasleen onarpenarekin zerikusia duten eta 2015ean jaso ditugun kexetatik zerbait nabarmentzekotan, urritasunen bat duten edo eskolatzeko prozesuan laguntza bereziak behar izan dituzten ikasleen izenean sustatu diren ekimenak aipatuko genituzke.

Hain zuzen ere, unibertsitateko graduko ikasketa ofizialako onarpenari buruzko erregulazioa onartu da, eta hor ikusi ahal izan dugu lekuen erreserba ez dela %33ko edo hortik gorako urritasuna aitortuta duten ikasleentzat bakarrik aurreikusi, izan ere, ezintasunezko zirkunstantzia pertsonalei lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat ere aurreikusi dira, heziketaren erabateko normalizazioa lortze aldera eskolatzeko prozesuan baliabideak eta laguntzak behar izan dituztenentzat, alegia. Beste heziketa maila batzuetara ere tratamendu hori bera zabaltzeko aukera planteatzea eragin digu horrek, lanbide heziketaren alorrera, adibidez; erakunde honetan ildo horretako kexak jaso baititugu. Kasu horietan, urritasun maila hori aitortuta ez edukita ere, aurreko etapetan laguntzak jaso dituzten ikasleen izenean aurreikusi dira kexak, ikasketak lanbide heziketan jarraitu nahi dituzte-eta.

Aurreko urteetan bezala, eskolatzeko lurralde batzordeak egin duten ekarpen handia aitortu nahi dugu, gure hezkuntza sistemara lehen aldiz sartu diren ikasleak bertakotzeari dagokionean. Batzorde horien mende egoten da, neurri handi batean, ikasle horiek modu orekatuan banatzen direla ziurtatzea, eta horiei dagokie, era berean, ikasle horiek funts publikoekin sostengatutako itunpeko zentroetan eskolatzeko, hezkuntza administrazioaren mendeko edozein zentroko baldintza beretan egingo dela ziurtatzea. Puntu horretan, era berean aipatu behar ditugu EAEra etorri berri diren familia batzuen kexak, izan ere, zail izaten dute euren seme-alabek A eremuan ikasten jarraitzeko duten nahia asetzeko. Halere, aitortu beharra dugu, azkenean, kasu gehienetan, hezkuntza administrazioak onartu egiten duela horien nahia.

Hezkuntza-premia berezien atalean, jasotako kexa askotan atzeman ahal izan dira laguntza nahikoa ez egotearen gaineko zalantzak. Honakoak dira azaldutako egoeretakotako batzuk: heldu-aterapena duten ikasleak, curriculum anitzeko taldeak edo beharrezko laguntzak lanbide heziketako preskakuntza programetan. Bada, egoera horien aurrean, hezkuntza administrazioa oso harkor agertu dela esan behar dugu. Nolanahi ere, eta gure ikuspuntuaren arabera, eskola inklusiboaren markoan 2012-2016 urteetarako onartu zen Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoaren ebaluazio eta segimendu lana albo batera ez uztea da garrantzitsua. Gure aldetik eta lan horren adibide gisara, gaixotasun araroak dituzten ikasleak hezkuntzan txertatzeko gomendioen segimendua egitea proposatu diogu geure buruari.

Lanbide heziketaren kasuan, ikasleen onarpenarekin eta hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonentzako laguntzekin zerikusia duten kontuez gain, 2015ean kezka handiz ikusi dugu 17 urtetik gorakoak diren eta bigarren hezkuntzan ikasketa egiazaturik ez duten gazte jakin batzuek aurrez aurre duten errealitatea, izan ere, desagertu egin dira Hastapeneko Lanbide Gaitasuneko Programak eta Aldi baterako Prestakuntza Integratuko Programak, Oinarrizko Lanbide Heziketa berria abiarazi ondoren. Egun, ez dago pertsona horien heziketa beharrak betetzen dituen eskaintzarik; hortaz, zenbait proposamen egin ditzala eskatzen diogu hezkuntza administrazioari, desagertutako programak eskaintzen zutenaren ildoan.

Eskola-garraioari buruz, zalantza dugu erregulazio berriak aurrekoak (Zirkularra) baino erantzun hobea emango ote dien garraio eskaerei, hala nola, batzuetan baserri inguruetan egiten zirenei. Beste alde batetik, harrigarria da kudeaketa guztiz berezia egitea, duen berriazkotetasuna dela-eta, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, izan ere, gure ustez, ikasle horiek gizarteratzeko oztopo izan daiteke hori.

Eskola-jantokiko zerbitzuari dagokionez, Hezkuntza Sailak oso arazoizko jarrera agertu du erakunde honetara iritsi diren proposamen berrien harira; adibidez, gaixotasun metabolikoa duen adin txikiko baten familiak aurkeztutakoaren aurrean.

Bekei eta bestelako laguntzei dagokienez, aurreko urteetako arazoak berberak agertu dira kexetan: administrazioaren atzerapena eskaerak ebaztean, atzerapenak aitortutako zenbatekoen abonuetan, laguntzen oinarri arautzaileen edukiarekin berarekin desadostasunak eta abar. Halere, hobekuntza hauteman da aurreko urteetako egoerarekin alderatuta. Horregatik, ahalegin hori ez baztertzera bultzatu nahi ditugu hezkuntzako eragileak.

Eskolako bizikidetzarekin zerikusia duten kexen izapideari buruz, bai eta guraso batzuek irakasle batzuen jarrerarekiko duten ezinegona eta kezka erakutsi duten beste kexa batzuen izapideari buruz ere, familiarekin komunikatzeak duen garrantzi izugarria azpimarratu behar dugu berriro ere. Irakasleen eta Hezkuntza Ikuskaritzaren zeregina funtsezkoa da familiarek behar bezalako arreta ematen zaiela senti dezaten, baita hezkuntza administrazioaz fidatu daitezkeen ere;

are gehiago ikasleek seme-alaba gisa aitortuta dituzten eskubideak kaltetu daitezkeen kasu hain delikatueta.

Babesik gabe dauden haurrentzako **gizarte zerbitzuen** eremuan jasotako kexak, batez ere, haurrentzako zerbitzuen balorazioarekiko desadostasunari buruzkoak izaten dira, hau da, seme-alaben babesgabetasuna, guraso-ahalaren etetea eta foru erakundeak horien zaintza hartzea ondorioztatzen duten balorazioekiko desadostasunari buruzkoak. Demanda horietako asko, ehuneko handian, bide judizialean bideratu dira. Horiekin batera, ordea, balorazio, komunikazio eta informazio prozesuarekin zerikusia duten bestelako kontuak helarazten dira. Horien gainean esku hartzen dugu, eta, oro har, ez da hauteman administrazioak egindako jardura okerrik.

Halere, berriztat jo ditzakegun hiru egoerak gomendioa ekarri dute: lehenengoan, espetxean zegoen emakume bat zailtasunak edukitzean ari zen adin txikiko bi semeekin komunikazioa edukitzeko orduan, administrazioaren tutoretzapean baitzeuden horiek; bigarrenetan, zalantzan jarri dira administrazioak emandako argudioak, aldeko txostena eman behar baitu neskato etorkin bat eskolatzeko xedea duen aldi baterako lekualdaketa programetan lekualdatu ahal izateko; hirugarrenean, hainbat urtez anai-arreba batzuk harreran hartu dituen bikote baten banantze gatazkasua ikusi genuen.

Harrera-egoitza baliabideen sarea dinamikoa dela ikusten jarraitzen dugu, errealitate sozialak eskatzen dituen beharrei adi dagoena. Badirudi aurten oso mugimendu gutxi egon dela sarean, eta informazio guztiek eman digute aditzera okupazio maila oso altua dutela egoitza baliabideek. Okupazioa lagunduta ez dauden adin txikiko etorkinen premiazko harrerarako zentroetan edo lehen harrerarako zentroetan jaitsi dela hauteman dugu baliabide horietara egindako bisitetan.

Murriztu egin dira, baina ez desagertu, lagunduta ez dauden adin txikiko etorkinek jarritako kexak, harrera egiteko moduari buruzkoak horiek, eta, zehazkiago, Fiskaltzaren dekretuetan adierazitako adinari dokumentazioan jasotakoari baino lehentasun handiagoa emateko irizpideari dagokionez. Aurten gainera, Gipuzkoan tutoretzapean dauden bost adin txikiko atxilotu dituzte, dokumentazioa faltsutzeagatiko delitua egin izana leporatuta, Polizia Nazionalak Espainiar Estatu osoan egindako jardura baten markoan. Aipatu salaketak kalte ugari eragin dizkie eragindakoei, izan ere, salaketa formulatu izanak eta zigor eginbidea ireki izanak pasaportearen erabilteza eragozten die eragindakoei, prozedura judizialari lotuta geratzen baita hori.

Bestalde, genero indarkeriaren eraginpean dauden haurren biktima estatutua aitortzeak babes sistemaren legegintzako aldaketa sakona ekarri du. Uztailean onartu zen, eta horien beharrak hautemateko eta jorratzeko proposamenak aztertzeko eta egiten jarraitzen dugu.

Familia babeslerako eskubideari dagokionez, berriro gogoraraziko dugu familia gaitan aritzeak ez duela esan nahi laguntza publikoen edo diru-laguntzen politikei buruz ba-

karririk jardutea (bereziki seme-alabak edukitzearekin, mendekotasuna duten pertsonekin eta laneko bizitza eta familiarikoa bateragarri egitearekin lotutakoei buruz), izan ere, beharrezkoa da zalantzan jartzea pertsonen bizitzentzat gero eta sostengaezina den eta gure gizartearen demografian zein bizi-kalitatearen hondamenean ageriko eragina duen eredu. Horrek zera dakar, kontu horren gainean ardura gehien duten eragilean (hala nola, enpresen) sentsibilizazio sozialean lan egiteaz gain, kontu hori botere publikoko erakunde ezberdinen agenda politikoetan lehen-tasuneko gai gisa txerta dadila lortzea. Kontziliarioaren aldeko apustuak zeharkakoa izan behar du, eta denborak banatzeko eta zaintzaren balioa handitzeko diskurtso berri batekin busti behar du gure sistema ekonomiko eta politiko osoa, gure arretaren erdigunean pertsonak jarriko dituen diskurtso batekin, alegia, eta ez ekoizpena.

Gure ustez lehen-tasuneko da baliabide bereziak edo babesa behar dituzten familien errealitateak zehaztasunez identifika daitezela Euskadin, administrazio ezberdinek xedatutako neurrietarako eskubideen titularrentzat marko bateratua sortzeko xedez. Horixe da, adibidez, guraso bakarreko familien kasua; izan ere, erakunde honen iritziz, aitortza argiaz eta definizioaz gozatu beharko lukete, guraso bakarreko ereduaren zein familia unitate sartzen diren zehaztasunez jakin ahal izateko.

Familia anitzak ez diskriminatzeko atalean egiaztatu genuen jorrazteko daudela, oraindik ere, erakunde honek aurreko urteetan azaldutako hainbat kontu; besteak beste, ama lesbianen egoera behin betiko argitzeko beharrezkoa, seme-alabekiko gurasotasuna aitortzeari dagokionez, ama ez-biologikoa den kasuetan. Horretarako, erregistro zibilaren praktikak bateratu behar dira, gurasotasun ez-biologikoen aitortzeari dagokionean, ezkontza heterosexualen aurrean emakumeen ezkontzei kalte egin ez diezaien.

Gai aniztasun handiak ezaugarritzen ditu haurren eta nerabeen **osasunerako eskubidea** bermatu behar duten politika publikoei buruzko keak. Nolanahi ere, kexa multzo ugariena etorkinek osasun arretan sartzeko dituzten zailtasunak buruzkoa da. Legeak osasun arreta jasotzeko eskubidea berariaz aitortzen du hainbat egoeratan, bada, egoera horietan arreta eskatzera osasun zentrorra joan direnean gertatu dira ezagutu ditugun arazoak. Batez ere, osasun arreta ez edukitzeagatik haurdunaldien arretari jarritako oztipoez ari gara.

Haurren eta nerabeen osasun mentalari dagokionean, segimendu berezia egin diogu gai horri txosten honen hasieratik bertatik. Bada, pertsona horiei arreta emateko aktibatu diren baliabideetan berritasun handirik egon ez dela baino ezin dezakegu adierazi aurten, eta horixe da herri-tarren demandan elementu nagusia. Halere, dramatikotasun handiko deiak eta kontsultak jasotzen jarraitzen dugu. Horietan, osasun mentaleko arazoak dituzten haurren eta nerabeen familiek aholkua, orientazioa eta, azken batean, laguntza bilatzen dute.

Justizia administrazioaren eremuan, bi alderdiren inguru-koak dira jaso ditugun keak: beste adin txikiko batzuen

biktima diren gazteek bitartekaritza prozesuetan behar dituzten arreta eta ahalduak; haur arau-hausleen gurasoei informatzea eta haur horiei entzutea, izan ere, 14 urte bete ez dituztenez, ez zaie adin txikikoen zigor erantzukizuna arautu duen 5/2000 Lege Organikoa aplikatzeko, eta babes sistemara bideratzen dituzte.

Jolaserako, atsedenerako eta aisialdi zein jolas jardueretarako eskubideari dagokionez, Espainiako Futbol Federazioak atzerrian jaiotako nerabeei federazio-lizentzia eman diezaien eskatzen diren dokumentazio errekerimendu bereziei buruzko keak jasotzen jarraitzen dugu. Eusko Jaurlaritzako dagokion sailak azkar jardun du, eta beharrezko kudeaketak egin ditu disfuntzio horiei irtenbidea aurkitze aldera.

Era berean, gazteen etxabeei buruzko arazoek ere iristen jarraitu dute, nahiz eta aurreko urteetan baino gutxiago izan diren. 2014an aurkeztutako *oinarrien dokumentuan* jaso zen erakunde honek gai horren inguruan duen jarrera, gogoratuko den bezala. Bertan, prebentziozko jarrera proaktibo aldarrikatu zen, jarduera menderakaitzenak edo beste bitarteko batzuen bidez birmoldatu ez daitezkeen jarduerak legezkotasunera berregokitzeko azken neurri gisa kontrola eta administrazioaren esku-hartzea erabiltzen duten jarrera erreaktibo hutsen aurrean.

Ez diskriminatzeko eskubidearen izenburupean, zera diogu:


- **Etorkinen seme-alaba** ugari pobrezia egoeran daude, jada aipatu dugun moduan; bada, egoera horien segimendua egiteaz gain, modu berezian zainduko ditugu eroldan inskribatzeko eta osasun arretarako eskubideez gozatzeko orduan haur etorkinek dituzten zailtasunak.
- **Adin txikiko transexualen** edo genero jarrera ez-normatiboak dituzten adin txikikoen familien demadak daude, arreta publikoaren markoa hobeto egokitu dakien adingabe horiei eta horien familiei, modu berezian, arreta sanitarioari eta psikologikoari dagokionean, bai eta hezkuntza eremuari dagokionean ere. Funtsezko deritzogu eremu horretan esku hartzeko ahalmena duten erakundearen artean estrategiak adosteari eta irizpide argiak ezartzeari, euren jardueren erdigunean koka ditzaten haur eta nerabe horien interesa eta eskubideak.

Beste alde batetik, **LGBTI haurren eta nerabeen** eremuan, oraindik ere, hezkuntza sistemak gabezia nabarmena duela egiaztatu dugu, aniztasun afektibo-sexualerako eta genero aniztasunerako eskubideekiko erabateko errespetua gizarteratzeari, ikusgarri egiteari eta sustatzeari dagokionean. Horren erakusgarri ona dira honakoak: irakasleak trebatzeko eta sentsibilizatzeko egitasmoen edo programen urritasuna, ikasgeletan kontu horiek sistematikoki eta modu antolatuan ez jorraztea, edo sexu orientazioari eta genero identitateari buruzko material espezifikoen erabilera antolatuz ez egotea, edota gaurko material didaktikoetan bizikidetzaren eredu berriak ikusgarri ez egotea. Hortaz, ezinbestekoa da euskal hezkuntzako erakundeekin lan bateratua egitea, eskola haurrentzako

leku segurua izango dela ziurtatuko duten tresnak sortze aldera, horien sexu orientazioa edo genero identitatea dena delakoa izanda ere, oso-osorik garatu ahal izan daitezkeen pertsona gisa.

Amaitzeko, eta urtez urte modu nekaezinean egin dugun bezala, Haurren Eskubideei buruzko 1989ko Hitzarmeneko oinarritzko paradigma gogoraziko dugu, eta, beste behin

ere, gogora ekarriko dugu haurrek eskubideen subjektu estatututa dutela. Hemendik, **parte hartzeko benetako bide egonkorrak** eskatuko ditugu berriz ere, bai eta haurrei eta nerabeei entzuteko denborak ere, edota mekanismo egokiak zein metodologia erakargarriak eta abar, adin txikiek beren bizitzetan eragina duten eremu ezberdinetan parte har dezatela bermatu dadin.



VI

ATAIA

Eranskinak

VI. Atala

ERANSKINAK

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa Kexen banaketa, kexagileak adingabearekin duen harremanaren arabera	22
2. grafikoa Alde batek eskatuta bideratu diren kexen banaketa, gai-esparruaren arabera	22
3. grafikoa Ofiziozko espedienteen banaketa, gai-esparruaren arabera	23

Arloko araudia

Hezkuntzarako eskubideari dagokionez:

- 8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, hezkuntzarako eskubidea arautzen duena.
- 2/2006 Lege Organikoa, 3 maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.
- 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, hezkuntza-kalitatea hobetzeko (LOMCE).
- 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa.
- 118/1998 Dekretua, ekainaren 23koa, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbaker eta integratzailearen esparruan antolatzen duena.
- 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharre buruzkoa.
- 69/2015 Dekretua, maiatzaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleen eskola-garraioari -garraioen arloan eskumenak dituen sailak finantzatutakoari- buruzkoa.
- 86/2015 Dekretua, ekainaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Lanbide Heziketaren araubideari eta ezarpenari buruzkoa.

Haurrak eta nerabeak babesteari dagokionez:

- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 238/2010 Dekretua, irailaren 14koa, Gizarte Zerbitzuen arloko Goi Ikuskaritzari buruzkoa.
- 353/2013 Dekretua, maiatzaren 28koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa.
- 424/2013 Dekretua, urriaren 7koa, gizarte-zerbitzuetako irabazi-asmorik gabeko erakundeak gizarte-intereseko deklaratzeari buruzkoa.
- 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.

A. Babesik gabeko haur eta nerabeen gainean:

- 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena.
- 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena.
- 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15koa, Adin Txiki-koen Babes Juridikoari buruzkoa, Kode Zibila eta Prozedura Zibilararen Legea Partzialki Aldatzeko.
- 54/2007 Legea, abenduaren 28koa, Nazioarteko Adopzioari buruzkoa.

- 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko.
- 40/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzeko.
- 114/2008 Dekretua, ekainaren 17koa, Foru Aldundiek adingabeen adopzioaren arloan jarraitu beharreko jarduna arautzen duena eta, aldi berean, Nazioarteko Adopzioarako Erakunde Laguntzaileen kreditazioa eta funtzionamendua arautzen dituen urriaren 28ko 263/2003 Dekretua aldatzen duena. (Dekretu hori aldatu du 245/2012 Dekretuak, azaroaren 21ekoak, adingabeen adopzioan foru-aldundiek jarraitu beharreko jarduna arautzen duen Dekretua aldatzen duenak.)
- 131/2008 Dekretua, uztailaren 8koa, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituena.
- 230/2011 Dekretua, azaroaren 8koa, BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duena.

B. Ezinduta edo mendekotasun egoeran dauden haur eta nerabeei buruz:

- 26/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa, araudia Desgaitasuna duten Pertsonen buruzko Eskubideen Nazioarteko Konbentziora egokitzea.
- 51/2003 Lege Organikoa, abenduaren 2koa, ezinduen aukera berdinerako, bereizkeriarik ezerako eta erabile-rraztasun unibertsalerakoa.
- 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa.
- 20/2012 Legegintzako Errege-dekretua, uztailaren 13koa, aurrekontuaren egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzkoa.
- 1050/2013 Errege Dekretua, abenduaren 27koa. Horren bidez arautu da Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Mendeko Pertsonak Artatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarri zen gutxienezko babes-maila.
- 1051/2013 Errege Dekretua, abenduaren 27koa. Horren bidez arautu dira Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Mendeko Pertsonak Artatzeko Legean ezarri ziren Autonomiarako eta Mendekotasuna Artatzeko Sistemaren prestazioak.
- 2013ko uztailaren 25eko ebazpena, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Estatuko Idazkaritzarena. Horren bidez argitara eman da Gizarte Zerbitzuen Lurralde Batzordeak eta Autonomia eta Mendekotasuna Artatzeko Sistemak gai hauetaz onartu duen Akordioa: irizpide komunak, gomendioak, mendekoak diren edo izateko arriskuan dauden hiru urtetik beherako haurrei

osoko arreta emateko planen gutxienezko baldintzak, 2012ko ekitaldiari dagokion ebaluazioa (Norberaren Autonomia Sustatzeko eta Mendeko Pertsonak Artatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legea aplikatzearen ondorioak ebaluatzen dira bertan).

Osasunari dagokionez:

- 14/1986 Lege Orokorra, apirilaren 25ekoa, Osasunari buruzkoa.
- 33/2011 Lege Orokorra, urriaren 4koa, Osasun Publikoari buruzkoa
- 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.
- 41/2002 Legea, azaroaren 14koa, informazio eta dokumentazio klinikoaren arloan pazientearen autonomia eta eskubideak eta betebeharrak arautzen dituena (9.3 artikulua: 12 urtetik aurrera entzuna izateko eskubidea).
- 2/2010 Lege Organikoa, martxoaren 3koa, sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko eten-durari buruzkoa (13.4 artikulua: haurdunaldia borondatez etetea baimentzeko eskubidea).
- 16/2012 Legegintzako Errege-dekretua, apirilaren 20koa, Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko eta bere prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurriei buruzkoa.
- 175/1989 Dekretua, uztailaren 18koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko paziente eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharren karta onartzen duena.
- 114/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Osasun Sistema Nazionalaren osasun-prestazioak emateko araubideari buruzkoa.

Zigor-arloko erantzukizunari dagokionez:

- 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, adingabeen erantzukizun penala arautu duena eta lege hauek aldatu dutena: 7/2000 eta 9/2000 Lege Organikoak, abenduaren 22koak; 9/2002 Lege Organikoa, abenduaren 10ekoa; 15/2003 Lege Organikoa, azaroaren 25ekoa; 19/2003 eta 8/2006 Lege Organikoak, abenduaren 4koak.
- 1774/2004 Errege Dekretua, uztailaren 30ekoa. Horren bidez, 5/2000 Lege Organikoaren Araudia onartu da.
- 163/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko arau-hausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta eskaintzeko erakunde laguntzaileak baimendu, homologatu, ikuskatu eta erregistratzeari buruzkoa.
- 80/2009 Dekretua, apirilaren 21ekoa, askatasunaz gabetzeko neurriak betearazten dituzten EAeko ikastetxeei buruzkoa.

Familia-erantzukizunari eta haren osotasuna babesteari dagokionez:

- 40/2003 Legea, azaroaren 18koa, familia ugariak babesteko.
- 13/2008 Legea, abenduaren 12koa, familiei laguntzeko.
- 1/2008 Legea, otsailaren 8koa, Familia Bitartekaritzakoa.
- 7/2015 Legea, ekainaren 30ekoa, gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremani buruzkoa.
- 124/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituena. Dekretu hori aldatu du 239/2011 Dekretuak, azaroaren 22koak, Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituen Dekretua aldatzeko denak.
- 177/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa. Dekretu hori aldatu du 31/2015 Dekretuak, martxoaren 17koak, lana eta familia bateragarri egiteko laguntzei buruzko Dekretua aldatzekoak.
- 154/2012 Dekretua, uztailaren 24koa, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoa.
- 246/2012 Dekretua, azaroaren 21ekoa, Bitartekarien Erregistroari buruzkoa eta erregistro horretan inskribatzeko egiaztatutako beharreko familia-bitartekaritzako prestakuntza zehazten duena.
- 30/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituena.
- 1618/2007 Errege Dekretua, abenduaren 7koa, elikagaien ordainketa bermatzeko funtsaren antolaketari eta funtzionamenduari buruzkoa².
- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako erabateko babesari buruzkoa.

² Horren xedea da banandutako gurasoen seme-alaba adingabeek diru-kopuru bat hartuko dutela bermatzea %aurrerakintzat hartzen da%, familia-unitateak haien premiei aurre egin ahal izan diezaien, obligaziodunak ordaindu beharreko elikagaiak ordaintzen ez dituela eta.

